



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

Euskerazaintza

LXXIV Zenbakia • 2014. urtea-2

Euskalerriaren edestia II

Euskerazaintza

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dute-
nentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu
zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta
gure erantzuna au da: “Len”,
oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmo-
rik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo
ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak
“laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da
gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta
gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30
euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure
kontuen zanbakietan.**

Gure kontuen zanbakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2^a eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com

www.euskerazaintza.org

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlearitza Elkarte Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena

(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: **IBEGRAFIK**
www.ibegrafik.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

<i>Atarikoa</i>	5
-----------------------	---

Euskalerrriaren Edestia

1^ogo. ZATIAN.

<i>1. AURKEZPENA</i>	7
<i>2. Keltiarrak</i>	10
<i>3. Euskalerrria edo ta euskerea, zelako lurraldeetan geratu zan, keltiarrak britaniara zabaldu ta euskal-kelti edo keltiberiar ondoren</i>	11
<i>4. Erromatarrak ta Euskaldunak</i>	11
<i>Emendik aurrera esaten dabe, erromatartuten asi zala Euskalerrria</i>	12
<i>Oar-txiki bat emen</i>	18

2n ZATIAN.....

<i>5. Sarrera ta erromatarren k.o. edestia, godoakin alkartu arte</i>	19
<i>6. Oar txiki bat emen</i>	28
<i>7. Oar txiki bat emen</i>	30
<i>8. “Gaurko-Euskaldunaren-Izatasuna”:</i>	31
<i>9. Zelan sartzen diran Godoak emendik aurrera I Alarikogaz, erromatar jaurkintzaz-ko jokoan, antzezleri nagusi lez.</i>	34
<i>10. Sueboen alderraiezko etorkizuna</i>	43
<i>V-VIn gizaldietan, Sueboen erregetzazko mugak, eta erromatarren jabetzazko lurraldeak</i>	44
<i>411-438 urte artean, Sueboen erregetzazko sorkuntza</i>	44
<i>Erdi-ugarte onetan, Sueboaren erregetzazko lurraldeak ori-urdiñezko margo argitsuan</i>	44
<i>Koinbrako uriaren armarria, eta Klodobeo Frankotar erregearen aldaketa edo biurkera katolikotasunezko erlijioara</i>	46
<i>11. Bandaloen alderraiezko etorkizuna</i>	49
<i>Bandaloen sortarazia</i>	49
<i>Godoen egizko edestia</i>	51
<i>12. Godoen sorkuntza, Ostrogodoak eta Bisigodoaren aldia Europa onetan</i>	52

<i>13. Bisigodoak Akitaniaren Tolosako erregetzan eta erdi-ugarte onetan.....</i>	<i>56</i>
<i>14. Toledoko kaizartza edo Toledoren kaizarkeria aipatu bear dogu emen.....</i>	<i>61</i>
<i>Bisigodoaren Toledoko erregetza.....</i>	<i>63</i>
<i>15. Oar-txiki bat emen.....</i>	<i>64</i>
<i>16. Zer izan zan Euskalerrria ta euskaldunarentzat godoen etorrera ?.....</i>	<i>73</i>
<i>17. Oar-txiki bat emen.....</i>	<i>74</i>
<i>18. Zer ziran frankoak gurentzat mauritarrak etorri ziran arte.....</i>	<i>79</i>
<i>Klodobeo erregetzara eldu zanean egon ziran politikako banaketak.....</i>	<i>80</i>
<i>Franko erreinuaaren banaketak.....</i>	<i>81</i>
<i>Merobinjioaren erregetzka.....</i>	<i>83</i>
<i>19. Euskalerrriko edestian, IIn atal onen “ONDORIOA”.....</i>	<i>89</i>
<i>1. Zatian:</i>	<i>89</i>
<i>2. Zatian.</i>	<i>89</i>
 <i>BERTSOAK (Txomin Garmendia)</i>	
<i>1936'ko gerraren ondorengo gosetea</i>	<i>93</i>
<i>Aurrerapenak.....</i>	<i>96</i>

Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza emten digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanakietan.

Gure kontuen zankakiak onek dira:

BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669

KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589

Atarikoa

1- EUSKERAZAINTZA Alkartearen egitekorik garrantzitsuena da euskera bidean aurrera egitea.

Eskuntza aldetik (alkar izketa ta EUSKERA IKASTALDIA indartuz) ta ekintzaren aldetik.

2- ATUTXATAR PAULO JAUNA."EUSKERAZAINTZA" Alkartearen idazkaria dogu zeaztasun osoz lana betetzen dakiena. Orregaz aparte "ZER" eta "EUSKERAZAINTZA" aldizkarietan idazlan ugari eta gustagarri agertuten dauzana da. Egitan aspertu ezieko gizona.

Oraingo onetan arrasoi sakon batek naroa aitauten PAULO.

Eta da "EUSKALERRIAREN EDESTI BI" deritxona. iru zatiko emeretzi (19) atalaburutan banatua. Euren izenak ikus daikezuz leen aldeko AURKIBIDEAN.

Lan zabala, garrantzitsua, erraldoi baten lana.

Esan gura dot Istoria-egille baten egitada erraldoia dala. Ondo egindako lana. Lenaldian buru belarri, sartuten dana, aztarnatuz egintzak, giroak, urteak, izenak... Bai eta arakatuten deusku gertakizun bakoitza, adierazoz berbak, esanak, izkanbillak, burrukak eta a. Guzti orreikaz erakutsiz, bizirik gagozenei, agiri ta edesti-kondaireen bitartez. Txalo beroak alango gizon langilleari!

3-TXOMIN GARMENDIA, BERTSOLARIA.

Beronek aitauten dauanez, aspalditik eskuratu ta irakurten ei dau EUSKERAZAINTZA aldizkaria.

Emen BERTSOLARI izateaz berba egingo dogu.

GIPUZKOAKO BERROBIN, Tontola baserrian, jaio zan 1934-02-3an.

Askotako lanbidetan ibilli zan: nekazari, arotza, taxilaria, Berrobiko Alkatea...

50 amarkadik aurretik, BERTSOLARI dogu. Zeinbat txapelketetan parte artua ta txapel andienak bereganatua.

1980tik aurrera, idazteari ekin eutson. Izan be da deukoz bertso-liburu ta koktakizun aleak be.

Urrengo urterako egiteko asmoa daukana aparte, onexek dira eskuratu deuskuzan bertsoen izenak:

-1936ko GERRA ONDOREN GOSETEA (12 apaldietan).

-AURRERAPENAK (12 apaldietan)

-2014ko AGOSTUAREN 1an (12 apaldietan)

-AGOSTUERAEN AZKEN EGUNEAN (12 apaldietan)

-ZERUTARRA ZAN AITA OTANO (3 apaldi kantatuak, Ernaniko lurpeko iltegian)

ZORION BERO-BEROA, EUSKERARI OMENIK BIKAINENA EGIN TA EGITEKO ASMOA SENDOA DOZULAKO!



1'go. ZATIAN.

1. Aurkezpena.

Euskalerriko bigarren atal oneri egin bear dautsaguna, lenengo atalagaz lotu, eta orretarako, I'go atalari ondorio labur bat egin, bigarren onegaz jarraipenezkoa izan dagian.

Lenengo ataleko Goi Paleolitiko aldiaren asieratik ikusi gendun, zelan:

Mundu onen gaurko giza, ez daukala Neandertal gizabideko ondorengotasunik, kromañoen gizatik agertzen dana baiño, Neandertalak Europan zabal bizi arren.

Kromañoen giza, Afrikan sortu zala orain 150.000 urte, eta Neandertalakin bizi zala auek aienatu ziran arte, Kromañoi giza izanda Afrikatik urtenda, Europatik zabaldu zana Neandertalen ostean.

Eta gaurko jakintsuen esanetan, munduko emakumearen A.D.N.mitokondrialagaz ainbeste azterketa egin eta gero, euskaldunak dirala antziñeko Ursula, Xenia, Tara, Elena, Katrine ta Belda'ren sei leiñuetatik datozen ondorengo gizakiak, Sirian sortu zan gazteenetako leiñu Jasminen A.D.N.lakorik ez dalako aurkitzen, euskaldunak izanda Europeoaren artean, Europeo bakarrak diranak.

Orain 30.000 urte sortu zala Omosapiensien giza, Kromañoi gizaren ondorengotik.

Eta 15.000, 10.000 urte bitartean, gorengo Paleolitikoaren denborak zirala, eta lurge-saltzeak aurrera ioiazala eguraldi ona edo ta itsaso aldetik agertzen zan egugiro onaren inguruetatik, Asia ta Europatik zabaltzen asi zirala, lortuta euki eben leen izkuntz edo len ereduzko euskereagaz, Atlant itsasotik ekialdeko Indiaraiño, K.a. 2.000 urte ingurutan Europaren erdialdiko lurraldetan Keltiarrak agertu arte.

d) Mesolitiko aldia, Paleolitiko ta Neolitikoaren aldi artekoa dala eta Europaren edesti aurreko aroa orain 10.000 urte.

Aldi onetan esaten dau On-Joxemielek, euskaldunak artu ebela gaur daukan giza itxura, edo Kromañoien itxuratik gaurko itxurara aldatu zala, Paleolitiko Neolitiko bitartean edo Mesolitiko aldi onetan.

Ainbat epeldu zala, Europa aldi orreitan, eta Omo Sapiensien giza, eizan egitez gain, zitu, bii, ale edo fruituak batzen asi zala.

Neolitiko aldia: Mesolitiko edo Epipaleolitiko eta Tupiki⁽¹⁾ aldiaren artekoa da.

(1)Tupiki = edad del bronce.

Omo Sapiens aldi oneitan, arrapari uts izatetik, ekoizle, egille edo uzta ugariren sortzaille izatera aldatu zan, eta orren ostean iraunkorrezkor bizilekuetan asi zirala bizitzen, leenengo iriak sortuz.

Beste trebetasunezko aurrerapen aundiak be asi ziran artzen, ta batez be arria lantzeko erabide aipagarrienak.

Kromañon giza: 1.868ko urtean Frantziko egomendebalaren Dordoñako lurralde inguruan eta Madeleineko arpe edo aitzulotan⁽¹⁾, orain 30.000 urteko aurkitu ziran Kromañon gizaren azurrai esaten jakie, eta Madalein mendiko kobazulo orren omenez, K.a.14.000-9.000 urte bitarteari esan eutsien Madalen aldia zala.

e) Orduko leiñuek, milla urte askotako aukera orreitan lortu ebezala, Euskalerrriak gaur oraindiño daukan nortasunezko izkuntza eta leiñuaren auzotasunezko kokamenean, bakoitzak daukazan batzartzeko oitura demokratikoak, Griegoen oikuntzak ta gure Lege Zarrak gaur arte erakusten daben lez.

Izkuntza arloetan baiña, orduko lurralde orreik oso zabalak ziralako, izkuntzaren jakintzazko aztura arloan gaztelu bat bakarrik ezin ebela egin, eta orko bidetik asi zirala berexkatzen, antzeko izkuntzatan.

Gure arbasoak milla urte askoren aukera orreitan eraiki eben, gaurko jakintsuak esaten daben: ***galdu zan askatasunezko demokraziaren Atlant jendekuntza dala.***

Omosapiensek goian esan dogun lez, Afrikatik urten ebenean, Europa eta Asiatik zabaldu zala euskerearen aurreko itz ots edo leen euskerazko izkuntz ta oitura bardiñekin, toki izenak alan esaten dabelako.

Eta gaurko Euskerazko azturan, Atlant itsasotik Alemaniaren erdiraiño, eta Eskozia ta Britaniako ugarteetatik Kadizeraiñoako lurraldeetara zabaldu zirala, eta Estrabon konturatu ez arren euskaldunak zirala bealdeko Turdetano ta Tartesoak, eurengeitak, aurrerakuntza aundikoak zirela esan eban.

Orduan ezagutzen zan Paleolitiko Neolitikoaren demokrazizko jendekuntza, mundu osoarena izan arren, euskaldunak izan zirala Atlant Itsaso ta Alemania bitartean sendotu ziranak, eta gaur arte ekarri dabezanak euskal izkuntz eta askatasunezko demokraziaren zentzu eder oneik.

f) Ekialde Urbillean egugiro epelagoagaitik orain 9.000 urte asi zala Neolitiko aldia, eta Europako mendebalean, orain 6.000 urte inguru, ekialdekoak mendebalekoak baiño 3.000 urte aurreratu ziralako, tresnerien jakiturizko arloetan.

Ezagutzen zan mundu onetako Leiñuen antolamendua auzotasunezkoa izatez gaiñ, leen euskerazko izkuntzarekin egokituta egon zala, egugiroaren gozotasunagaitik goian esan dogun lez, Europa baiño irumilla urtearen aurrerakuntza artuta, bai ta nortasunezko bidetik alde eginda, K.a. 4.000, 3.000 urte inguruan norkerietan asi zala be bai.

Mundu onen leen jendekuntzak⁽²⁾ egugiro onak lagunduta, Ekialde Urbil eta Ekialde Erdi inguruan sortzen dira.

(1) Ortik dator Auriñaciense edo Magdaleniense Goiko-Paleolitiko aldian, Musteriense ta Soloutrense arteko denborak diranak eta Magdaleniense izena Madelein mendiko aitzuloaren izena ipini eutsoelako.

(2)Jendekuntzak=civilizaciones.

Indo ibai eta Nilo ibaiaren bitartean, eta apur bat estutu ezkerreko Tigris eta Eufrates ibaiaren bitartean.

Sumeriako erria, orain K.a.4.000, 2.500 urte bitartean sortu zan.

Oso aurreratuta egon bear ziran Sumerio oneik, arkeoloji lanaren bitartez aurkitutako ondarrak, ziri antzeko⁽¹⁾ irudiaren⁽²⁾ idazkerea be asmatu ebelako.

Burnigintzan, urre edo eta zillar lanean, obekuntzazko edertasun aundiak erakusten dabez eta euren ortuak antzez edo egindako tresneriekin⁽³⁾ ureztatu egiten ebenetik, Sargon erregeak menperatu ondoren eta lurralde arein erriak ezereztuten joanda, Babilonia sendotu zan ortik aurrera jendekuntzaren ordezeko lez.

Asia Txikia edo Anatolia izan zala antziñako denboretatik jendekuntzazko gurutzbi-dea, K.a. 2.000-1.200 urte artean, Ititen kaisertza gaienduta.

Geroago: Urartu⁽⁴⁾, Frijia, Lidia eta beste erreñu batzuk agertu ziran, euren arteko gizabi-dean oso ezberdiñak ziranak.

Dana dala K.a. 4.000 urte inguru, Mesopotamiaren ego aldean Semdarren erri zarretik, K.a 2.600, 2.300 urte inguruetan Sargon agertu zan, Akkadeko⁽⁵⁾ kaisertzaren sortzaillea izan gurean, eta bereala asi zan Sumeriotarren aurka, menperatzeko alegiñetan.

I Sargonek, K.a. 2.025, 2.010 urte artean, Asiriatik asi eta lurralde aundi baten sargonidaren kaisertza sendotu eban.

g) Eta Asiako menpetasun oneik sendotu ziranean, ango leiñuak Arabiako erdi ugartera ta ingurutatik, bai eta Keltiarren artean be alderraiezeko mogimendu ugari gertatu zirala Europarantza, guda bidez berezko erri eta izkuntz azko ezereztu eta beste izkuntz barri sortuazota ekialdearen zorotasunezko antzerki areitan, gero K.a.753ko urtetik aurrera Etruskoaren bidetik erromatar gudalozteak sortuta, Europa, Asia eta Afrikan egingo zan antzera.

Eta zelan ekialdeko Sargonidazen menperatzailletasunezko borroketatik sortu ziran erri ta izkuntz barriak, erromatarren menperatzaillezko borroketatik sortuko ziran latinikumezko izkelki barriakaz alkartuta, osotuko ebezan zati aundi baten beintzat, indoeuropeotar kopuru aundienetariko izkuntzak.

i) Erdi ugarte ontara ez zirala etorri Iberoak, euskaldunen mogimenduak izan ziralako eta bakez egon giñela keltiarrak agertu arren, oneik aurrerakuntza aundiak ekarri ebezalako, arik eta erromatarrak dana zazkiltzen asi arte.

j) Erromatarrak zelan euki eben Euskalerraren iparraldeko Akitania Nobenpopulania izenagaz eta egoaldea Tarrakoniense alditan bananduta.

Euskaldunak Anibaleri laguntzen ibilita, erromatar gudalozteak ezagutu genduzela, eta zergaitik izan zala eurokaz lagun izatea aurkarikoak ezik, erri lez aurrera gura bagendun egin.

(1)Ziri antzeko = cuneiforme, en forma de cuña. (2)Irudian= ideogràfica. (3)Egindako tresneriekin = artificialmente. Egitezkoa = mètodo empírico. (4) Urartu = ibai edo ur-artean dagoena ?. (5) Akkad'eko= Acadia.

2. Keltiarrak.

K.a. 2.000 urte inguru Keltiarrak, ekialdeko menperatzail ekintzatik iges eginda alde-rrai, Alemaniako lurraldeetan agertu ziran eta euren izkuntz ezberdiñeko izkelki edo mintzadarrekin leiñuzko auzoetan laterritu ziran.

Gero, ortik egin ebezan mogimenduak, leen Britaniako ugarteetara zabaldu ziran, gero mendebaleruntz Iberiako erdi ugartera, egoalderuntz Italiaren Iparraldera eta ekialde-rik Danubio ibaiaren bealde baiño urrunago.

K.a. 1.800-1.600 urte bitartean, Britaniako Ugarteetara egin eban leenengo erri aldea.

K.a. 1.200, 800 urte artean, Galia edo Frantziaren Britania aundiako lurraldeetara, Frankoak Loira ibaiaren goialdean Britaña edo Normandiako lurraldeetan kokatuta.

Eta K.a. 900, 500 urte bitartean, Alemaniaren egoaldean Renaniako lurraldetan, Halls-tatt, Austriako iparraldean dagon erri eta bardiñ deitzen jakon burdiñezko aldiai ko-katuta egon ziranean, Keltiar jendekuntza Europaren sarkaldetik zabaltzeko gertatzen asi ziran.

K.a.VI, In Mendeen artean, Tene deritxon goimaillako Keltiar jendekuntzak⁽¹⁾ egin eban zabalkuntza ori, Europako lurralde guztietara eldu zan.

K.a.Vn gizaldian La Armonikagaz⁽²⁾ jabetu ziran. Eta britanioa`k, Goideloak Brita-niako ugarteetatik bota ebazan.

Batzuk, Akitaniatik erdi ugarte onetara aldatu ziran, ta onekaz euskalkelti edo Kelti-beritar errigizartea sortu zan.

Baiña nortzuk ote izan ziran Ibero orreik ?.

Ez ote ziran Kromañoi edo Euskaldunak ?. Europako mendebal onetara ez ziran etorri orduan Kromañoi edo euskaldunak baiño, Atlant Itsasotik Alemaniako lurraldeetara eta Eskoziako Piktoen lurraldeetatik, Kadizeko euskal Turdetano ta Tartesoaren lu-rraldeetaraño.

Euskaldun ta keltiarrak demokrazi aundiko jendekuntzazkoak izanda, ez ziran iñor menperatzeko gizakiak izan, gaiñera, euren artean ondo konponduta. Geiago, keltia-rrak euskaldunen artera ekarri eben aurrerakuntza aundiagaz, gero erromatarrak etorri ziranean Estrabonek esanda: Tarteso ta Turdetano euskaldun areik, eurak agertu or-duko ezagutzen ebezala lurgintzarako egon ziran burdiñezko aurrerakuntza guztiak.

K.a. IVn gizaldian, Alpeseke mendikateak aldatuta Po ibaiaren ibar guztitik eta Italia-ko iparraldean kokatu ziran keltiarrak, lurralde oneri Galia Zisalpinaren izena ipinita.

K.a.280an, Asia Txikitik be zabaldu ziran, inguru areitan Galata izenarekin ezagututa. Eta K.a. 279an, Greziara joan ziran.

K.a.IIIIn gizaldian, Keltiarrak euki eben indarra aundia izan zan, baiña asten ebazan borrokak menpetasunezko elburu barik egiten ebazan lez, eta erromatarren borrokak alderantziz, menpetasunezko elburuagaz eta odoljariozko sarrasketa baten egiten zi-ralako, keltiarrak, euskeldun artean aienatu edo urtu egin ziran, Irlandan, Gales, eta Galiziako inguruetan izan ezik.

(1) Keltiar jendekuntza = *civilización celta*. (2) *Frantzia'n ariñagotik Britania'ko lurraldeari deitzen ja-kon izena eta gero erromatarrak galia'ren izena ipinita*.

3. Euskalerrria edo ta euskerea, zelako lurraldeetan geratu zan, keltiarrak britaniara zabaldu ta euskal-kelti edo keltiberiar ondoren.

Emendik aurrera asiko ziran Europako mendebal onetan, euskerearen eragipeneko lurraldeen murrizketak, leiñu bakotxa al eben neurrian euki ebezan elburuak lortu gura ebezalako, eta erromatar gudalozteak agertu ta egin ebezan menpetasunezko zatiketaz, azken baten gaur gagozan lurraldeetan geratu giñan, gertarizko azalbide onetan ikusiko dogun lez.

Loira ibaitik gora, Keltiar leiñuetatik Britaniako lurralde artetan frankotar leiñua kokatu zanetik, eta iparraldean asita Loira ibaitik berako lurralde guzti orreitan eurakaz bizi gintzazalako, zeozeren arazoak eukiko genduzan, euren jendekuntzazko eragipena aundia zalako, baiña erromatarrak agertu ziran eta keltiarrak aienatuta laster berrezkuratu genduzan eurakaz nortasunezko zarraski alditan galduko genduzanak.

Txarragoa izan zan erromatarrak egin ebena, euren menpetasunezko triskantza bideetik latinkume asko sortuta, gero euren eritziagaz agertuko ziran batzangotasunezko kolonigille menperatzaileak latinkume orreikaz norkerituteko, European daukaguzan norkerizko laterri oneikaz sortzen jakun bezala.

Europaren mendebaleko lur zabaletan a ta gusti, milla urte azkoren luzezko denborak izan ziran euskerearenak gero ikusiko dogun lez. Erritarren izkuntzak ez diralako aienatzen unetxo baten eta gitxiago, denbora aietan.

4. Erromatarrak ta Euskaldunak.

Lenengo atalean ikusi dogu, zelan Etruskoaren salerosketako bidetik jaio zirala erromatar gudalozteak K.a.753ko urtean.

K.a.241, 240ko urtetan jaurkintzazko bide okerrak artuta, zelan joan ziran kaisertzaren billa, erromatarren barruko arazoak Sikka Beneriako urian asita, erriaren be-maillako sendi oso aberats batzuk errigurasoen sendiakaz alkartu ziranean, beste erritarrak zentzunezko legearen jaurkintzatik bastartzeko.

Eta Jaurkintza guztia euren eskuetan eukinda, zelan andimandikeria, apainkeria eta kirkilleriak goraldtu ebazan ezin besterarte, euren arbasoen goimaillako oiturak eta orekazko ekanduak, neurri aundi baten galduta.

Orren ondorioz, zelan: lur zabalen etxagunak agertu ziranean, berezko baserritarren zuntsitzea edo ezeztatzea agertu zala, menpetasunezko joputasunak indar aundia artuta.

K.a.196ko urtean sartu ziran erromatarrak gure Euskalerrri onetan, eta keltiarrak erromatarren etsai aundiak ziran lez, or agertu giñan euskaldunak bieri laguntzen gure arteko borrokan, jakinda, guk gure artean anaiak izan giñela, eta ez gendula gura, gure Euskalerrriaren askatasuna baiño besterik.

Ez zan egon miraririk ikustegi edo antzoki orretan, euskaldunek ondo baiño obeto ezagutzen genduzalako erromatarrak, eurak ezagutu baiño len, Anibaleri laguntzen ibili gintzazalako euren aurka, ta aukera orretan jakin gendulako eurokaz obe zala, euren aurka agertutea baiño.

Eta zelan alde bietan euskal anaiak borrokatzea gertatu zan: keltiarrak aurrerakuntza aundiakin, erromatarrak baiño ariñago gure artera etorrira, euskal bizitzarako ekarri eben aurrerakuntza aundiagaz, nekazari ta ekintzazko arlo aundiak erreztu ostean, **bat-tak ainbeste aurrerakuntza gure artera ekarrira ezin gendulako arbuia⁽¹⁾, eta bestea menperatzaile lez, ezin gendulako kendu gure lepo gainetik**, agertu gintzazan euskaldunak txeberazko⁽²⁾ aukera orreitan, anai arteko borroketatik iges ezin eginik.

K.a.195eko urtean Porzio ta Katon´tar Marko⁽³⁾ erromatarra etorri zan erdi ugarte onetara, euskaldun eta keltiarren matxintasunak geratzeko, eta bakezto ondoren, egoaldeko **Sierra Morena´**ra joan ziran euskal turdetanoak euki zituzen meaztegiekaz jabetzeko.

Berton, euskaldun ta keltiar gudalozteak euki ebezan itxaroten, erromatar oneik baiña el-kargo antzeko bat eginda keltiarrakaz, auker atzeratu ziran eta **Iliturgiko**⁽⁴⁾ menditxoan menperatu ebazan erromatarrak, an egon ziran Tateso ta Turdetano euskaldunak.

Emendik aurrera esaten dabe, erromatartuten asi zala Euskalerrria.

K.a.81eko urtean azten dira Sertorioren gudak, erromatarren anai arteko gudak baiño besterik ez ziranak, eta euskaldunek keltiar eta erromatarren alde bietan lerrokatuta egoteagaitik euren artean be borrokatuta. Begitu zelako indarra euki bear izan eban erromatar kaisertzazko arrano aundi orrek, euskal anaiak alde bietan lerrokatuta egoteko eta, euren artean borrokatzeko.

K.a.80ko urtean Sertoriok erdi ugarte onetan leiñu batzuk matxinatu ondoren, egon ziran erromatar gudal nagusiak menperatu ebazan, ta erromatar legeakaz askatasunezko jaurkintz antzeko baten ezarrita, banandu eban erdi ugarte au zati bitan, bat lusitania izango zana eta bestea kelti euskaldunena, uri nagusiak Oskan eta Portugaleko Eboran kokatuta.

Sertoriok, irakaskintzazko arloak be ez ebazan bakean itzi, ta ikastoletan gazteek ikasi bear ebena antolatu ebanean erromatar jendekuntzaren ikastetik aurrera, bere izarrak euken ospea galtzen asi zan.

Au da emen marratu egin bear dana, zelan **euskaldunak, erromatarrak eta keltiarrakaz borrokatuta, anai arteko borrokan ibili giñela**, ori izan dalako gure zoritxarreko marra edo orde, euskal izaerazko ekintzan Jainkoari begira lortu genduzan askatasunezko demokrazi ta izatezko zentzu ederrak babestuteko.

Beti aurkitu gara ortik aurrera aukera orreititik urten ezinik, Nizean ezarri ziran arau bideak menperatzailetasunezkoak izan da, eta erdian arrapatuta geratuz, geiago gure dogulako Jainkoaren legerari begira eta beren askatasunezko legeakaz euskal nortasu-

(1) *Arbuia* = despreciar. (2) *Sare-arteko txebera* = emboscada, celada, trampa. (3) *Marko Porzio´tar Katon zarra* = K.a. 234-149 urte artean bizi zana. (4) *Iliturgiko menditxoa* Jaeneko lurraldean = gaur Mengibarreko lurraldean "Màquieko mendizka deituten eutsoenari eta euskal itza dana.

nean lortu genduzan demokraziaren zentzuzko izaerakaz irauin, norkeriz edo ta mal-tzur ta lapurrezko bideetatik gure arimaren berezkotasun⁽¹⁾ labur au, Jainkoaren lege guztietatik kanpo ibili baiño.

K.a.77ko urte orretan Erromako agintariak, Kneo Ponpeyo Aundia bialdu eben Ebro ibai inguru orreitara, eta Pertuseko⁽²⁾ bitartetik aldatuta, euskaldun askoren atsegintasan edo begionekua izan zalako, euskal uriaren banaketa sortu zan, Kalagurrisekoek Sertorioren alde kokatuta, eta Grakurris edo Alfarokoek Erromatarren alde kokaturik, Ebro ibai inguru ori odolez ondo margoztu eben.

K.a.76ko urtean Tito Libio⁽³⁾ ezagutu gendun, gizon au izan zalako euskaldunak len aipatu egin ebazanak, eta Beroiak aipatzen dabezanean, Sertorioren aurkakoak lez agertzen dauz. Estrabonek keltiar lez aurkezturik. Eta Ptolomeok gero, beren uri nagusi Libia, Tritiun eta Bareia aurkezten daukuzala.

K.a.75eko urtean Kneo Ponpeyo aundi onek baskoien lurraldetan beren kanpaldirako babesa aurkituta, eta gudariak bear ebenagaz ornitu ta dirukutzak bete bitartean, K.a.IIn gizaldiaren inguruan irasitako Iruñako uriari, Pampeoloko izena ipiniko eutson.

K.a.74ko urtean, Apiano grekoerromatar edestilariak, ta Floro latindar edestilariak esaten dabe, Sertoriok, Metelo ta Ponpeioren gudalozteari 3.000 baiño gudari geiago il eutsezela, Kalaorra inguratuten egon ziranean.

Erromatarrak urte onetan, ainbeste garaipen bidetik eta lortutakoak gaiñezka eginda, errepublikako jaurkintzak be larritu jakiezan, menpetutako yopuak⁽⁴⁾ gero ta geiago izanda euren kontrolezko orekak aldarotu⁽⁵⁾ edo dendu ezean⁽⁶⁾ sartu ziralako, eta Espartako gidari lez artuta, menpetutako yopu guztiak matxinatu ziran.

K.a.73ko urtean, Afrianotar Ponpeyo erromatarren gudal nagusiak ostera inguratzen dau Kalaorra, ta Sertoriok oraingoan ez ebalako aukerarik euki euren babesean joateko, Kalaorra erromatarrai etsaimendu jakon.

K.a.72ko urtean Ponpeio⁽⁷⁾ erromatarrak, Mario erromatarren indarrak menperatzen dauz erdi ugarte onetan.

20 urtean egin eutson aurre Kastroko Klunia deritxon mendiko euskal urian Sertoriotar Kintok Ponpeiori, baiña 72ko urte onetan Ponpeio garaipenduta, ezereztu eban garrantzi aundiko uri ori, gero Tiberio eta I Klaudio kaisargoaren aginte bitartean **“Legati-Luridici” edo Klunitar Lekaidearen legejakintza edo zuzenbidearen uria** irasiko eben berriz, diruzko txanponaren egozpenak be eginda. Eta Galba berton kaiserra egin ebenean, Kastroko kluni orrek **Sulpizia** ren izena eroan eban, Serbio Sulpizio Galbaren omenez, erromatar kaisertzaren uri nagusia izanda denbora orretan.

K.a.67garren urteraiño irauin eban, Afrianotar Ponpeio gudal nagusiak Kalaorrari egin eutson inguratuko eraso ori, eta jakin daigun noraiño eldu ziran euskal keltiar eusleak, Ponpeioren erasoko indarrari eutsin ezinik, Floro Balerio Maximok esan ebena aurkeztuko dautzuet:

(1) Berezkotasun = materializaciòn. (2) Perthus edo Pertuis = Probenza ta itsas-urdiñezko ertzean Baukluseko lurraldean kokatuta dagoena. (3) Tito Libio = K.a.59-Ko.17, edestilari eta erromatar idazlarria. (4) Menpetutako yopuak = la jente que se esclavizaba. (5) Oreka = equilibrio. “Aldaro” = desequilibrio, falta de equilibrio. (6) Dendu = equilibrio. Dendu-ezak edo gabe = desequilibrado, inestable. (7) Ponpeyo = K.a.106-48.

“Jateko abere geiago ez ebelako euki, euren emakume ta ume biurtu ebazan janari; eta gudari gaztearen barrukiak euren sendizko illekaz elikatzeko ez eben zalantzarik euki, gorputz aiek gatzartean sartu ta zainduz, janari aien balioa irauin egien”⁽¹⁾.

Euskaldunai, zoritxarreko keltiar eta erromatarren alde bietako gudalozteetan borrokatzen ibilteko egoeratik, azkenez onena sortzen jakeena, borroka ostean uri orreik euskaldunen eskuetan geratzen zirala, erromatarrek, laguntzen eutsoen euskaldunai emoten eutsezelako uri ta lur orrean jaurkintza.

K.a.VIII In gizaldian sortu zan ori Asturias ta Kantauriko aldetik, 72ko urtean danak menperatuarte, eta baita Aragoiko iparraldean.

Euskalerrria bearduna izan dala beti entzun dot nik, jakin gura neuke baiña, zer esangura dabezan beren lurraldeko erromatar bideetan aurkitu diran ainbat txanbil edo santaroak, *XXXIVn erromatar bidetik* Tarragonan asita, Ilerda ta Oskatik zear, Astorga Leon edo *Asturika Augusta*, Burdingala edo ta *Akitaniako Burdeosetik* Oiasoraiñoiko kaiara eltzen ziran Bizanzioko olio ta arduak, Atlant itsasoko kaietatik banatzeko eta abar.

Edo ta, Oiartzuneko *Arditurri*, beko Nafarroan *Banka* ta *Lantz*, Baztanen *Arizakuneko tupikiaren meaztegiak*, Araban *Eskoriatza*, Bizkaian *Somorrostro*, edo ta Gipuzkoaren *Oiasso ta Aiako* aitzmendietan *burdiñ ta zillar edo urre zurizko* meaztegiak, Nafarroako Iruñan eta benafarroaren *Donazarreko* buztingintzak, *Falzes ta Funeseko* ardogintzak,

Lapurdi ta Getariko gatzunketak, Nafarroan *Fiteroko* erromatar urbero edo uraste-giak, eta ainbat erromatar arribide erri ta itsas inguruko kai artean, kaisertzaren toki guztiekaz artu emon estuak izanak, bai ta K.a. II In gizaldiaren euskerazko idazkunakaz aurkitu diran diru txanponak, ta abar.

Eta mundu fisiko onetan ordezkarietzako gauza guztien artean sortzen dan antzera, erromatarrekin bearrezko artu emon orrek be, euskerazko izkuntzan bere ordainketa euki eban, erromatarrekin artu emonak ta erromatarren gudalozteetatik zar sarietan ezartzen ziran euskal gudarien laguntzagaz, iparraldeko nobenpopulanian *gazkoiñ*, Asturiasen *bable*, Burgos eta Kastro bitarean *gaxtelera*, eta Nafarroako be alde ta Aragoi iparraldetik *Nafar Aragoiko* mintzadar edo latinkumeak sortarazi egin ebazalako, euskerak euki ebazan lur zabalaren eragipenak galtzen asita.

Zati aundi baten baiña, gure maitetasunezko aberkidetasun edo sinismenari erantzuteko bidean, euskaltasunari mesede aundi bat eginda, ekintza ori izan zalako gure alegiñagaz azken baten babestu ebena, gaur geratzen diran *euskal askatasunezko demokraziaren sinisteak*.

Izar aundi bat lez, goiko aldetik argitu dagiezan ekanduzko zentzuaren egi eta oitura aundiz, gaurko mundu onetan, Islam eta katolikotasun abertzalezkoak euren norkeri bidez egiten dabezan gauzak, mundu onen bizitza kontrolatzeko.

Oneik, jaurkintz laikoagaz batera, erlijiozko gogo ta merkantillezko diruak kontrolatzeko, sortu eben arau bideagaz, ainbeste batzangotasunezko beartasun ta, gaurko errigizarteak bereztasunaren nortasunezko oker bidetik XIX gizaldian laterri oneitan

(1) *Iraun-arazteko = conservación, perpetuación de los cadáveres.*

sartu euskuenetik, nekagirosakonean sartuz gain batera, daukagun *baitaren* aurrean barregarrizkoak dira.

Alegiñ orreikaz, berez argitzen diralako, nori edo zeri begira egiten doguzan gure gurtzak.

Gure gurtzeko gauzatan bide ortatik, beti agertuko jakuzelako urre-gorritzko zekorrak, Jainkoak mundu oneri oñarritu eutsoezan berezko legeak baiño.

Ez ziran guztiz kaltegarriak an sortu ziran latinkumezko mintzadar asi berriak, euskal eragipenak eukan indarra askatasunezko demokraziaren zentzuagaz eta euskerazko zentzuan ezarrita geratzen ziralako, arik eta norkeriaren menperatzail asmakizun txarrak ez ba ziran, ainbeste indarrakin sortu ta zabaltzen asi, Nizean K.o.325eko urtean egingo zan eleiz batzarretik aurrera.

Erromatar Antoninoren ogeitaamalau bideetatik, bost igaroten ziran Euskalerriko lurretik.

Danetatik garrantzi aundiena euki ebanak XXXIVgarrena izanda, Arturikatik⁽¹⁾ Belegiara⁽²⁾ ta Ponpaelotik⁽³⁾, Burdigaliara⁽⁴⁾ joaten zalako, bai ta Kalaorrtatik igarotzen zan XXXIIIna.

K.a.60ko urtean ispaniako Sertorio eta Katilinare⁽⁵⁾ erkideko matxintasunak ezerez-tuta, Zesar, Ponpeyo ta Krasok errepublikaren amaiera beartu eben, lenengo kaisar agintaritzazko irukotea aukeratu ebenean.

K.a.58ko urtean, Erromatarrek Klodio gudal agintari egiten dabenean, Zizeronek atzerrira iges egin bear izan eban, eta Zezartar Juliok, Galiako gudak asten dauz.

K.a.56ko urtean Zezarrek, agintaritzan bere urrengoa zan Publio Lizinio Kraso⁽⁶⁾ bialdu eban Akitaniako lurraldeak menperatzera⁽⁷⁾, eta Adiatuanok bideratzen ebazan euskal leiñu indartsuenak, erromatar zalduneri asko, ta lejiorearen 10 taldeko bost zenturiaren gudalozteak ustegabe arrapatuta menperatu ondoren, Auñamendiaren aldebietako euskaldun guztiak alkartu ziran erromatarren aurka.

Alkartutako euskaldun onetatik egoaldekoak, ondo baiño obeto ezagutu arren erromatar gudaloztearen gudako tresneri eta antolabideak, Iraillaren urte orretan menperatu ebazan erromatarrek.

Zezartar Julioreⁿ gora beran, Akitaniako euskal lurraldeak, Garona ibaitik Auñamendien arteko lurra izan ziran, gero baiña, Loira ibaitik bera alkartu ebazan lurra orreik eta Nobenpopulaniaren izena ipini ondoren⁽⁸⁾, beste erromatar lurralde baten biurtu ebazan, eta nola ulertu alkarte orreik, izkuntz batekoak ez ba ziran izan ?.

K.a.56-55 urte onetan erdi ugarte onen Tarteso ta euskal leiñu guztiak matxinatu ziran.

K.a.55eko urtean Zesar, Germania ta Britania sartzen da.

K.a.51kako urtean Zezarren ondorengoa zana Krasok, guztiz menperatzen dau Galia osoa, eta Akitaniako euskaldunak menperatzen joan zanean, oneik, laguntza eskatu eutsoen erdi ugarte onen euskaldun anaiari, Zezarrek, kantabroak lez zeinkatuta⁽⁹⁾ eukazanak.

(1) Arturikatik = Astorga. (2) Belegia = gaurko Iruña-beleia, Arabako lautada. (3) Ponpaelo=Iruña. (4) Burdigalia = Burdeos. (5) Katilina = erromatar politiko aundia, 108 ? 62 urte bitartean. (6) Publio Lizinio Kraso ? (7) Nobenpopulania = erromatarrek Galiako lurraldeak 17 zatitan banaduta euki ebezaketik, Akitania izan zan bat. (8) Zalduneri asko = muchos cuerpos de caballeria. (9) Zeninkatu = identificar.

K.a.49ko urtean Andaluziako Ispalis⁽¹⁾, oso osoan sartzen da esanaren argibidetasunezko edestian, Ponpeio eta Zezar´tarren borroketatik aurrera, bertan egon ziran Tarteso Turdetano euskaldunak euren izaerazko zentzuak ondo zaindu arren, len kartajines eta keltiar artetik nastuten joanda, emendik aurrera erromatarrekin geiago nastu ziralako.

K.a.49ko urte onetan Zezarrek, Rubikoi⁽²⁾ ibaia igaroten dau eta erromatar anai arteko bigarren guda asi zan Erroman.

K.a.45eko Epaillaren 17an Mundako⁽³⁾ zelaietan borrokatu ziran Ponpeio⁽⁴⁾ ta Zezar-tarrak, Zezarrek Korduba eta Ispalis berreskuratuta.

Borroka onegaitik Zezartar Juliok esan eban: *“orainarteko borroka guztietan, irabazteagaitik bakarrik arduratuten nintzan, baiña onarte euki dodazan borroketatik, Munda’ko borroka au izan da nire bizitzaren babesagaitik arduratu bear izan nazela”*.

K.a.45eko urtean Zezarrek, Ispaliseri *Iulia Romula Ispalis*´en⁽⁵⁾ izena ipini eutsen, bere jaurkintzarako erromatar legedia emonaz, eskubide osoko erromatarrak izan zitezten.

K.a.44ko urtean Epaillaren 15ean erromatar Bruto, Kasio eta an egon ziran beste batzuk ilten dabe Zezartar Julio.

K.a.44ko urtean erromatar Ponponio Mela idazle eta lutelezti zaleak⁽⁶⁾, bardulitarrak Añaamendietan bizi eta leiñuetan ez ziralako bananduta egon, *aberi bat osotzen ebela esaten eban*.

Barduloak zirala esaten eutsen, bardulo, karistio, beroi, baskoi eta akitanoari bakarrik, kantabro, autrigoi, edo turmogo euskaldunakaz banatzearren.

Erromatar edestilariak emen, euskaldunen askatasunezko demokraziaren zentzua bardina izanda euskaldun guztientzat, ez ziran eldu euskal sinismen ori ulertzera, beste gauza batzuk izan ziralako, bildurgarritasunezko nekaitz baltzazko indar orren aurka euskaldunak euren babeserako ibili bear ebezanak izangaitasunezko⁽⁷⁾ aukereetan.

Eta Augustok, Kantabroak menperatu ebazanean, barduloeri ez eutsen ezer egin, berari leialtasuna emonda, sartu ez ziralako borroka orretan. Euskaldunai ainbat bider sortuko jakuna datorren edestian.

K.a.43ko urtean Marko Antonio, Lepido eta Oktabiok bigarren irukote edo triunbiratua irasten dabe, eta Marko Antonio ekialdeko jaurkintzan ipinita, Lepido Afrikako lurraldean, eta Oktabio mendebaleko jaurkintzan ipinteagaz, euren agintaritzan banandu eben.

K.a.31ko urtean Marko Antonio eta Oktabioren arteko zein geiagoko naikidetasunean, anai arteko guda biztu zan, ta Akkzioko itsas borrokan Oktabiok, Marko Antoniori irabazita, au Afrikara joanda beren burua il eban Kleopatragaz batera.

Lepido, auzigizon nagusi⁽⁸⁾, eta Oktabio⁽⁹⁾ agintari aundi lez geratuta, Erromatar kaisertza sortu eben augustoren izen aundiakin, eta Julio Klaudioren leiñua sortu zanean

(1) *Ispalis (euskal itza dana) = Sevilla.* (2) *Rubikoi ibaia = Fuimizio ibaiaren antziñako izena.* (3) *Munda = Betikako lurraldean eta gaur Ronda dauan lekuan kokatuta egon zana eta Zezarrek, Ponpeyoren seme eta Sexto eta Kneo´ren (Cneo) semen aurka borrokatu zan bertan. Kneo (Cneo) borroka orretan il zan.* (4) *Kneo (Cneo) Ponpeio aundia = 106-148ko urte bitartean bizi zana.* (5) *Iulia Romula Ispalis = Ispalis gero Betikaren izena ipini eutsen eta guadalquivir ibaiari betis´ko ibaia, eta beranduago gaur arte ekarten dauan Sevilla izena.* (6) *Lutelezti = geografía. Lutelezti-zaleak = geógrafo.* (7) *Izangaitasun = posibilidad, capacidad para ser o existir, potencia.* (8) *Apezpiku, edo Pontífice = magistrado.* (9) *Oktabio = K.a.27an. erromatarren errepulika amaituta, Erromak euki eban lenengo kaiserra izan zan Augusto izenarekin, eta Julio Zezarren loba-billoba izanda Julio Klaudiaren leiñua sortu eban.*

Tiberio ipinita agintari lez, Erromak, bere ospe aundiena ezagutu eban, kaisertza ori ondorengo lez ipinita, odoletiko edo etorkizkoa biurtu zedin.

K.a.29ko urtean Oktabiok, erromatarrek menperatuta euki ebezan erri guztien agintaritzaz artu ebenean, erromatarren Errepublika amaitu eban, eta 29, 19 urte bitartean erromatarrek ***Bellum Kantabrikum*** deitzen eutsoen EuskalERRI oneri, gudategitik kanpo geratu zan.

K.a.27ko urtean Erroma, kaisargo edo aginzalekerian ezarri zanean Octabiotar Augusto Kayorekin, eta berari Printzearen izena ipini ondoren, iru zatitan banandu eban erdi ugarte au. Bateri, ***Ispania Citerior Tarraconense lez irasita, eta bere uri nagusiari Tarrakoren izena ipini ondoren***, Tarrako uri nagusi orreri geratuko zan lotuta bealdiko EuskalERRI osoa.

Orretarako Oktabiok, zati bitan banandu eban EuskalERRIA: Iparraldean ***Nobenpopulania 9 euskal lurraldeakaz osotuta geratuko zana***, eta egoaldeko edo erdi ugarte onen euskal lurra: ***Iparraldean Kantauri eta Galizia, Ekialdetik Lur Arteko itsasoa, Egoaldetik Betika ta Lusitania, eta Mendebaletik Atlant itsasoagaitik mugatuta egon ziran lurraldeak, Tarrako uri nagusi lez ipinita, iberia ziterior deitu eutson lurraldeakaz egokitu eben egoaldeko EuskalERRIA.***

Gaurko jakintsu batzuk, IIIn gizaldian Marko Porzio Katonen⁽¹⁾ denboratik asita, kantabro ta asturiarrak menperatu orduko, eta erromatarren oiturak artzen asi orduko, euskaldunak, erromatartuten asi giñela esaten dabe.

Ez da arritzekoa, orduko euskal erromatar gudariak, 20 urteko serbitzu ostetik 3.000, 5.000 denarioaren diruagaz zar saritu, eta ekarten ebazan erromatar lege berezi orreikaz baimena emonda eurak gura eben lurretan kokatu zitezen, sortuko eben sendiakaz, erromatarren legezko oituran kokatuta geratzen ziralako.

Eta euskal gudari asko izan ziran antza, oraindiño euren ondarretatik azterkatzen ibili ta aurkitu diran Piotar Antoninoren denborako ***bidarri*** edo ***milla arrien***⁽²⁾ idatzitakoaren ospatsuenetik asita, Trajano eta Adrianoren denborako ***La cohors II Vasconum Civium romanorum*** germaniarako sortu zana, gero Britaniako Sydenhanera bialdu ebena, eta K.o.

156ko urtean Mauritaniako Tinjitanara⁽³⁾ bialdukoak agertzen diralako. Bai ta Frantzik Nimes eta Budapesten aurkitutakoak.

K.o.I-IIIIn gizaldi bitartean, ***La I Fida Vardillorun Miliaria equitania civium Romanorum*** Britaniako iparraldean Adrianoren euskarri⁽⁴⁾ ibili zanari leialtasunezko izena ipinitakoa lez, eta lenengoa zala ipinten baetsoen, geiago be egon zirala esan gura dau.

Eta Trajanok lez, ***I Fida Vardullorun Civium Romanorum*** izendu ebezanak, Romanorun izen ori eroateagaitik, erromatar erriargoa emoten eutsiela esangura eban.

Erromatarrek, alde bitan banandu ebezan euskal lur oneik, ***saltus baskonun: basarte lez eta ager baskonun: alor, soro edo zelai lez.***

(1) Marko Porzio Katon = K.a.254-149. (2) Bidarri edo Malla-arri = piedra miliar. (3) Tjititana, Mauritaniaren mendabaleko alde, gaur Tanjer dana eta len erromatarrek TINJIS'eko uriaren izena ipini eutsoena. (4) Euskarri = en apoyo de Adriano.

Orregaitik esaten dot nik, ez dala beste mundu bateko miraria, Kantauriko Itsas eta Auñamendiaren babeseko euskaldunak ainbesteko zentzun eta zuurtasun aundiz jokatzea, Anibalen bidez erromatarrak ezagututa, ta euken indarrakin jakinda zelako burugogorkerian ibili ziran jokatzan, K.o. IXn gizaldiko mauritarren etorkerak emon euskun aukereagaz, laster kendu genduzelako gure euskal sinismenaren gaiñean euki genduzan menpetasunezko norkei latz orreik, gure baitazko aitorrerak alan eskatzen euskulako.

Euskaldunak edo ta askatasunaren oiñarrizko demokrazizkoak, or asi giñan galduten apurka apurka, euskal oiturazko zilbor, erdileku edo biotzezko eragipenaren indarretik urrun geratuta, euskerazko nortasunean makaltzen ziran euskal lurak, adibidez:

K.a.14ko urtean Oktabio Augustok 25, 12ko urte bitartean kantauriko gudak egiten egon zala, Aragoiko euskal uri nagusi Salduiari⁽¹⁾, Zaesaraugustaren izena ipini eutson Zezar Augustoren omenez, garrantzienetariko uria izan zana erromatarrentzat.

Baita, denbora onetan Erromatarrak, orduan euskaldunak ziran Burgosen egoaldeko lurraldeetan, Kondetar Koruña ta Kastroko Peñalba bitartean 1.000m baiño geiagoagaz mendi gaiñean, Klunia Sulpiziaren izenagaz eraiki eben garrantzi aundienetako uria, eta abar.

Nizearen 325eko eleiz batzarraren ostetik aurrera, Aita Santua erromatar kaisertzaren sasinorkerizko katolikotasunaren ekanduzko legean, aolkulari lez iraspendu edo irakasle lez ezarri ebenean, ta naikerizko menpetasunen eragipenak aundiagotzen joan ziran ezkeroztik, naikoa egin gendulako euskaldunak gagozan lurraldeetan bizirik agertzeagaz bakarrik, eta *“jendekuntz galdua esaten dautsen, Paleolitiko Neolitikoa dan askatasunezko demokrazi ederraren “aitorleak lez” gaiñera.*

Alemaniko lurralde edo ta Europaren erdiko lurraldeetan, orain 4.000 urte Keltiarrak agertu ziranetik, gaur arteko urte guzti orreik izan bear izan dabez menperetzaille zaleak, Europako mendebal onetan zabal, bakez eta euskal eragipenaren askatasunezko demokrazi aundiko jendekuntzan bizi ziranaren sinismenak zirriborrotzeko.

Eta ez guztiz, oraindiño geratzen garelako, gaurko euskal lur txiki oneitan.

Baten baiño sarritan esaten eban Onaindiatar Aita Santik: “Zergaitik dan ezer jakin bage”, “Euskalerrriak, etsai asko daukazala”.

Egiaren argitasun guztiagaz, nabari agertzen jakuz gaur, demokrazizko askatasunaren etsaiak dirala zirriborro onein errudunak, euren urre gorritzko txekorraren gurketatik kanpo, ez dabelako nai Jainkoak berezitasunduta oiñarritu ebazan legetik ezer.

Orregaitik bakarrik, Euskerea eta Euskalerrria izan bear leukie,: *“munduko gizartearen onaurkia”* ezerezko zalantza barik, eta izango dala uste dot denbora asko iraun barik.

Oar-txiki bat emen.

Atal onetan aurkezpen lez idatzi dotena uste dot, naiko lotuta geratu dala leenengo atalakin, Euskalerrriaren edestiko idaz lan onen ulermenean aurrera egiteko, ta I Konstantino eta I Silbestre Aita Santuak Nizean ospatzeko eleiz batzarrak agindu ebenetik asiko gara, sarrera txiki bat egin ondoren.

(1) Saldua uri Euskaldunari, (Iberotarra ?, Iberoak, euskaldunak ziran) = Zaragoza gaurko izena da.

2n ZATIAN.

5. Sarrera ta erromatarren k.o. edestia, godoakin alkartu arte.

Erromatar edestian ikusi dogun lez, erromatar oneik ez ziran iñori ezer erakusteko gai, eta alderantziz bai, euki eben aberastasunetik al ebena artzen, asetu arte.

Afrika, Europa guztia eta Asiatik al ebena menperatzera eldu ziran, baiña erromatar oneik ikusten eben alguztitik artuz, ezertan be ez eutsoen lagundu menperatzen joan ziran berezko errigizarteari, eta bai alderantziz euren atzerritar legepeko neke galantatan sartu.

1.164 urte, etenbageko gudan ibili ondoren, eta Afrika, Asia, ta Europa guztian euren legeak danon lepoetan gaineratuta odolez margoztutakoaren truke, ondoren agertu ziran menperatzaileak salerosketaren ordezkarietzako merkataritzatik, merkantilismoaren diru zalekerira aldatu ziran, eta gauza orrein bidetik lokaztuko ziran, Paleolitiko Neolitiko aldi bitartetan lortu ziran askatasunezko demokraziaren mailla aundiko oiturak.

Menperatzailetasunezko ekandurara⁽¹⁾ beartuta aldatu ziran ortik aurrera euren menpe egon ziran guztiak, eta ondo astindutako Kristau sinismeneko gizarateak batez be, odoljariozko ekintza baten eldu ziran I Konstantinoren deboretaraiño, onek aurretik erromatarren zoritxar au ikusita, zuzentzeko antolatzen asi zana, baiña ez ebana egin.

Eta maltzurrezko guzurak egiztatzeko guzurra bear dauan lez, Nizean asita gaurko egunetaraiño etorri jakuz usteltasun orreik, ezarri eben Ekanduzko arauetatik eurak be menperatuz geratuta, ez daukielako indarrik lokatz orreititik urteteko.

Gure denborako 14n urtean, Tiberio Klaudio Neronek⁽²⁾ artu eban Oktabioren ondorengoa Julio Klaudiotar leiñua sortuta, eta erromatar menpeko lurraldeak zabalduz, ta kaisertzaren barneko egilletasuna babestasunean tinkotu egin ondoren, kaiserraren naikeriari ate guztiak zabaldu eutsoezan, auk ustelkerizko jarraietan ugaritu zitezen.

K.o. 29 urtean eta erromatarren 782ko urtean, erromatarrek Nazaretoko Jesus il eben gurutzean 33 urte euki ebazala.

K.o.IIn gizaldian Alejandriako jakintsu aundia izan zan Klaudiotar Ptolomeok, Turdetaniako Oska uria, gaur Sebillaren Umbretekori urian dauan lekuan kokatzen eban, eta nork esango dau, ez daukela euskal izatasunik ?.

Antonino Pio⁽³⁾ aipatu gura neuke emen, euskal izatasuna goiko maillan ipinten ebalako bere esanetan, *“euskal bizkorra lez”* edo ta *“euskaldunen ulerpidera esan leike eltzen dala mutil orren zentzua”* .

K.o.212ko urtean Karakalla erromatar kaiserrak, *Antoninianoren iraspenna* edo erromatar uritargoa ezartzen dau, erdi ugarte onen osoarentzat.

Kontu aundia euki bear da emendik aurrera sortu zanarekin, 1.512ko urtean Nafarroa, 1.812ko espaintarren konstituzioagaz, 1832-1876ko urte artean espaintarren ondo-

(1)Menperatzailetasunezko ekandurara = que tuvieron que vivir en una sociedad de costumbre sojuzgadora, o moral vakvasora. (2) Tiberio Klaudio Neronek = K.a.42-Gure denborako.37 urte artean bizi zan eta kaisertzara G.d.14n urtean igon ebana. (3) Antonino Pio erromatar kaiserra = 86-161 urte artean bizi zan eta 138-161 urte bitatean kaisar lez.

rengo karlistadakin, eta Frankogaz sortu ziran borrokakin konturatu gindezen, 325eko urte areitan I Konstantinogaz artu ziran erabagiaren aritik etorrira, gaurko legeak, orduko legearen izaera osoa daukielako, erabagi areik diralako iturburuak, gaur sortzen diran ekanduzko usteltasunak sortu daitezzen.

Eta ezarri ziran egitarau arekin jaurkitzen garelako oraindiño.

Orregaitik, edesti guztian eta Franko gudal faziztagaz agertu arte ikusten dogu: “Dana geratzen dala ondo lotuta gerorako” euren agintari aldiko esanetan.

Zer ete da ori, “askatasunezko demokraziaren edestia?”.

Konstantinogaz asten da aurrez ikuste au:

K.o.284ko urtean Diokleziano kaisertzara igon ebenean, erromatar agintari guztiak ibili ziran borroka utsean, norbera kaisertzazko agintaritzan ezartzeko.

K.o.306ko urtean azken baten, I Konstantino ta Majenzioren artean egin zan borroka au, eta I Konstantinok kristautasunaren laguntzagaz igon eban erromatar kaisar jauntzara, baiña oraindiño ekialdeko kaisertzagaz alkartzeko borroka geiago egin bear eta:

K.o.310eko urtean I Konstantinok, Maximianori irabazi eutsen.

K.o.311ko urtean Kristau sinismenaren indar aundia ikusita eta euren laguntza lortzeko, Galenok Sardikako legearen bidez, kristautasunaren jaiarauak askatu ebazan.

K.o.312ko urtean I Konstantinok, Italiako lurraldearen menpekotasuna asten dau eta Majensiori Milbioko subiaren borrokan irabazi eutsoenean, 300 urteko *pretoraren aginteak, euren “Pax Romana”ren zeregiñ guztiakaz* ezereztu ebazan.

K.o.313ko urtean I Konstantinok, Kordobako Osio gotzaiñaren aolku bidez, kristauren aurkako legeak jasangarrizkoak izan zitezzen alegindu zan, eta Milaneko agindua emon ondoren Baleriok baieztuta, Galenok kristautasunaren aurkako arau orreatik, kristau guztiak askatu ebazan.

K.o. 318ko urtean, Jesusen jainkotasunezko izatasunaren gora berak, Antiokian 268ko urtean egin ziran eleiz batzarretan baiño ariñaukoak izan arren, Arriok aurkeztu ebezan eritziakaz asi ziran Jesusen gora berako arrianismoaren eztabaida gogorak, Alejandriako San Alejandro gotzaia aurrez aurkari eukela, eta Nikomediako gotzai Zezareako Eusebio ta I Konstantino aundiaren laguntza euki arren, 320, 321eko urtetan Alejandrian, Ejipto eta Libiako 100 gotzai baiño geiagorekin egin ziran eleiz batzarretan, Arrio exkomunikatu ta erbesteratu eban Alejandrok, 322, 323ko urtetan naigabe-ko edo ta asarre orreatatik erlijiozko eztabaidak gogortu ebezanak, eta I Konstantinori Liziniotar Balerioaren aurkako borroketara aokatu.

Eta K.o. 324ko urtean Konstantinok Liziniotarren gudalozteari irabazita, mendebal eta ekialdeko kaisargoetan agintari bakar lez geratu zan, aurrerantzean kaisertzaren gizarte ta erlijiozko bateratasun eta bakeakaz arduratzeko.

K.o.325eko Lorailaren 20rako, I Konstantino eta I Silbestre Aita Santuak, arrianismo eritziak artzen egon ziran indarragaitik arduratuta, Osio Kordobako gotzaiñ santuaren aolku bidez ta San Atanasioren laguntzagaz, gaur Asia Txikerrean Turkiako uria dan Iznik´en edo Bitiniako Nizean I Eleiz Batzar Nagusia batzeko agindu eban.

Eta bere ospakizunerako I Silbestre Aita Santua makalik ibili zalako, Bito ta Bizente abadeak ipini ebezan ordezko maikide, Kordobako Osio gotzaiñ lendakariagaz batera.

Berton egon ziran Arrio ta bere adizkideak Nikomediako gotzai Eusebiogaitik bideratuz, batzarra 318 gotzaingo kopuruagaz osotuta.

Uztaillako 25erarte iraun ebezan eleiz batzar auek, arik eta Arrioren eritzia ziñauskeri lez zigortuta geratu zan arte, ***Semea Aitaren izate berekoa zala erabagitu zanean.***

K.o.325eko urtean Bagillako 14an agertu zan I Konsantino batzar orretan, eta batzarrean ez zitezen eritzizko nastetasunik agertu, Bagillaren 19an Nizearen Dogma edo Aita, Seme ta Arnas Sainduaren izaerak, Aitaren izate berekoak ziranen irudizko Kredo izango zan ikur itza⁽¹⁾ aurkeztu eban, eta an egon ziran adizkidetzeko edo bateratzeko eleiztar guztietatik danak baikor agertuta bost izan ezik, auek eskomunikatu eta erbestetu ebazan, Arrio Iliriara alde egin bear izanda eta beren liburuak sutan erre egin ondoren.

Arrio ta Eusebio Nikomediako gotzaiña arrianismoaren eritzikoak, Jesusen izaeraren gora beran, ***Kristo: Jaungoikoaren lenengo egitea izan zala mundu au sortarazi orduko, Kristo baiña, sortutakoa izan zan lez, ez zala Jaungoiko bera,*** argibide edo arrazoiezko ondorengoakaz ibiltan ziran.

Eta Alejandriako gotzaiñ Alejandro, bere jarratzaille ta ondorengoa izan zan Atanasio, ta Kordobako Osio gotzaiñaren eritziak, ***Kristo k, jainkotasunezko ta gizatarrezko izatasuna eukelako, bera izan zala benetako jainko ta gizona ren eritzizkoak ziran.***

Kordobako Osio gotzai au, antzerki orren antzezlarri aundienetariko bat izan zan.

K.o.325eko urtean Atanasio Santua Arrianoren irakaspidetza ori ezereztuteko, ukatzen bakarra izan zanetik arik eta I Silbestre Aita Santua ta I Konstantinok Nizeako eleiz batzarra batu eben arte, ortik aurrera I Silbestre ta I Konstantinok euki eben eragipenagaz indar andia artuta, Arrianoren ikaspidetza ziñauskerira gaitz etsiratu zan, ta Arrio eskomunikatuta bere lagun Nikomediako Eusebioren ondora iges egin bear izan ondoren, batzarkide geienak ***katolikotasuna elburu lez aukeratuta,*** siniskizunezko dogma edo aitortzan⁽²⁾ biurtu eben.

Katoliko itza, latin katholikos´eko izkeratik datorrena da, orokar edo guztientzako dala esangura dauana, eta berau, Grekoerazko itz bi onen alkartasunetik: ***kata,*** norantza esangura dauana, eta ***Holos,*** danoentzat edo dan guztientzako esangura dauana.

Eta siniskisunezko aitortza orreitan biurtu ebazanean eleiz batzar orreitan artu ziran ziñeskintza orreik, Kristautasunari alderdikierizko lapurkeri aundiena egin eta gero, or jaio ziran “katolikotasunezko aberri barri orreik” gaur menperatzailletasunezko maltzur eta lapurrezko laterri onekaz, berezitasunaren askatasun eta eskubideko legearen aurka irauten dabenak, ezeren lotsabarik “Jainkoaren esanak” direla esanda..

Konstantinoplako eleiz-batzar onetan, Zesareako Eusebiok antolatu ta osatu eban Kredoa edo siñisbidea batzar aretan ontzat artzeko gaiñetik, beste gauza artean Arnas Saindua edo Izpiritu Saindua be, Jaungoikoaren neurrira igotea erabagi zan, ondore Irukoitz Deunaren irakaspide ori danontzat ezarrita. ***Orrela ezarri zan erromatar kaisertzaren katolikutasuna erlijio lez.***

(1) Kredo edo sinisbidea = Nizeako ikur-itz, irudi edo zaupidea zana. (2) Dogma edo aitortza = dogma de fe.

Jaungoikua izango ote zan, batzarkideai almena emon eutsena, bere izatasuna antolabide orretan ezarri egien?.

Irukoteko irakaspidetza onen aurka egon zan Arrio gotzaiña, eta bearrezkoa aurkeztu jakien bera baztartzea, erribatzangotasunaren ziñeskintza orreik ezartzeko.

Gaiñera, Aita Santuaren uts ezintasunari, zeru lur edo Jaungoikua ta gizon emakumearen arteko artu emonetan, eurak ordezkari bakartiak zirala ziñeskaitu eban lez, gura izan edo gurabage, katolikotasun ori alderdikidetu ondoren, Jaungoikuak mundu oneri ipinitako lege guztiaren aurka geratu zan, erritartasunetik asita, berezko gauza guztia- ren legeen aurka kokatuta geratu zalako.

Diru zalekeriaren batzangotasunezko merkantilistak be, katolikotasun alde kokatu ziran, eleizaren katolikotasun ori mundu guztiko errigizartetan ezartzeko, eta arimako gauzak kontrolatzen eban lez, errigizarteak bizitzeko bear ebezanak be, euren kontrolpean artzeko.

Jainkoak sortu eban Izadi au baiña, beren legeakaz erperatu eban lez, norkeriz dabil- tzan batzango zale orrein asmakuntzak aurrera eroateko, errigizartearen izatasun edo gizon emakumeak daukien nortasunezko baitaren gaiñetik egin bear dabez egin bear dabezanak etenbage, bai eta Jainkoak ipinitako lege temati ta emankor guztien gaiñe- tik, odoljarioz ekarri dauskuna edesti guztitik, menperatzailletasunezko alegiñ orren aurka.

Erromatar katolikotasunak ez dau gura jakin ezer, Jaungoikoak danori barneratu eus- kun beren legezko baitagaz, eta gitxiago Jesusek bere aolkularitzakin ondo baiño obeto argitu euskuenakaz.

Batak, gauza guztien gogo eta erabilketaren *itxurazko ekandutik kanpo*, ez dauskuelako izten arduradunak izan gindezen, norkeriaren zoritxarreko garaipenaren bidetik, loka- tzazko siniskerian ezarrita *eta dan guztia, diru edo ta urrezko txekorraren serbitzura bideratuta*, nortasunbagnetu egin dabezan errigizartezko borondate orreik batzangotu- ta, euren naierazko asmakintzan jaurkitzea gura dabelako.

Besteak, Jesusek irakatsita ikusiaz euskun lez, danok daukagun baitaren ezkaerakaz egarrituta, Jaungoikoak bereztasun oneri ipinitako legeak gogoratzen dausku, eta or- dezko arloetan zuzentasunezko ekandu bidetik, giza eta errigizartearen artean daukagu- zan eskubide bardiñetan kokatzen gaitu.

Orregaitik, Nizeako eleiz batzarretatik ona, ulertu egiten ez dana, Jesusen bereztasu- nezko irakatsiak eta katolikotasunaren alderdikierizko siniskai orreik, biak zorro baten sartuta alkar ekarte da.

Gaiñera, bolbora edo lerrautsa ta su piztu leiken poxpoilloak, zorro orren barruan ba- tera ekarte lez izaten ba da.

Euskalerriak, bere askatasunezko demokraziaren nortasun aundiagaz, irakaspide orreik baitu edo barneratuta daukazenak, nai eta lur zabaltasunez ainbat murriztu.

325eko Nizearen Eleiz Batzar Nagusi onetatik artuko dogu aria oster a be, Euskalerriko edestiagaz aurrera egiteko.

Eta emendik asita edesti guztian ikusiko dogu, katolikotasunezko eritzi onek zelako indarragaz lotu gura dabean munduko errigizarteak morroitasunean, izadi edo mundu onek daukazan askatasunaren legezko eskubide guztien gaiñetik.

Ori da argi gertatzen dana gure berezkitasunaren eragilletasunezko ekintzan, berezko legearen sorburuak eragiten dabean ondorioakaz egiztatu egiten doguzanean edo berezko erantzunak agertzen jakuzanean.

Etenbageko aldaketan dagoan munduaren gaiezko indar oneri, Jaungoikuak gorengo maillako neurrian ipini eutsoezan legeak, ordezkartzazko legean ipini eutsezan, eta ez dau balio bere ikuspenetik ostonketarik egin, gure eragilletasunezko ekintza guztiaren ondore edo emaitza guztiak, lege orrean agindu edo zentzunezko jardueraren⁽¹⁾ ondorioak diralako.

Baiña gu ilten garelako, jarduera orren bietik gogoratzen gara, gu ez gabela gaiezko izadi onetakuak, beste leku batekoak gabela, eta eragilletasunezko okerrak egiten doguzanean, gure arimak bizitzarako daukan baitagaz gaiaren aldetzar orreik ikusita, arlo txiki baten bakarrik konpontzen doguz, naikoa ez dana, arik eta goimaillako jakiturizkoak edo ta gure mundu au goitik bera bideratzen dabenak, sortzaille edo irazaleak⁽²⁾ baiño, gu asmatzailleak bakarrik gabela ulertu arte.

Eta orregaitik agertzen da gure Ludi ta Europa au arduragabetasunean, batzuk danoren ardureakaz jabetu diralako, eta ekintza ori ezin leike izan, mundu onen egipide edo eragilletasuna danon ardurazkoa dalako.

Eragilletasunezko ardureagaz bialtzen gaitu bialtzen gaitunok, ordezkartzazko mundu onetara, eta ez gara sekula konponduko bere agindua ez badogu betetan.

Edo ta, beste gauza baterako etorri ote gara ?

Nizeako eleiz batzar onen ostetik eta norkeriaren ezjakintasunezko ausardi osoagaz, Jainkoaren izatasunean eskuak sartuta, zalantza askoko urteak bizi zituzen Arrianismo ta katolikotasunaren eritzikoak uste orreikaz, asken baten Teodosio kaiserrak Nizeako *erabagiak* bere egikeraren arau lez artuta, Konstantinoplako eleiz batzarrari deia emon arte.

330eko urterarte, Bizanzio izango zan kaisergotzaren uri nagusia, urte onetatik aurrera I Konstantinoren omenez Konstantinopla deituko zana.

334, 335eko urte bitartean I Konstantinok bere lekuan ipinteko asmoagaz, ostera deitu eutson Arriori eurengana joan zedin, Arrio⁽³⁾ baiña Konstantinoplara elduarren, 336ko urtean Konstantino ikusi barik il zan, 80 urte eukezala.

337ko urtean il zan I Konstantino, eta Nikomediako uriaren gotzaiñ Eusebio arriantarra izan zan Konstantino bataiatu ebana askeneko arnasak emonten egon zanean, batera erritarren arteko borrokak asita.

337ko urtean II In Konstantino⁽⁴⁾ kaisertzazko aulkira igon ebanean, Konstante⁽⁵⁾ ta Konstanzio⁽⁶⁾ bere anaiak, Dalmazio eta Anibaliano lengusuakaz igon eban kaisergotzaren zeregiñetara, eta 340ko urtean il zanean bere ondorengo II In Konstanzio izan zan.

(1) *Jarduerak = comporamientos, (frutos de ese comportamiento).* (2) *Sortzaille edo irazaleak = creadores.* (3) *Arrio = 260ko urtean jaiio eta 336ko urtean il zan.* (4) *II In Konstantino = 317an jaiio ta 340ko urtean il.* *Eta kaisertzan 337-340.* (5) *Konstante Flabio Julio (323-350) = I Konstantinoren irugarren semea.* (6) *Konstanzio (317-361) = I Konstantinoren bigarren semea = 337-361 urte bitartean kaiserra izan zana.*

340ko urtean II In Konstantino il ondoren, bere anai II In Konstanzio *ziñ-ukatzailleak* igon eban ekialdeko kaisertzaren jaurkintzara, eta 361eko urtean il zan bitartean, ate guztiak zabaldu eutsozan arrianismoari.

341eko urtean Antiokiako eleiz batzarra egin zan Nikomediako Eusebiogaitik bideratuta, arrianotarren alde jokatu ebena, katolikuak baiña, eleiz batzar au ez dabe ontzat artzen.

343ko urtean Sardikako eleiz batzarrerako deitu zan, bertan arrianismoaren irakaspidetza ezereztu edo baztertzeko, eta eleizako antolakuntzaren arauak erabagitzeko.

347an Teodosio aundiak igon eban kaizartzara.

350eko urtean I Konstantinoren irugarren seme Konstantetar Flabio Juliok⁽¹⁾, bere lengusu Dalmazio il ondoren, kaisar bakarti lez geratu zan mendebaleko kaisertzan, borroka aundiak sortuta arrianotarrai laguntza osoa emon eutsoenean, eta katolikotasunaren eritzikoak guztiz jazarkundetuta⁽²⁾ agertu ziran.

350eko urte onetan, Magnenzio Magno, Galiako erromatar gudal nagusiak, Konstanteren aurka agertuta, Galiaseko borrokan il eban Konstante erromatar kaiser au, eta bera igon eban kaisargotzaren aulkira.

351kako urtean II In Konstanziok, Mursako borrokan irabazi eutson Magnensio Magnori eta bateratu ebazan ekialde ta mendebaleko kaisertzak.

353ko urtean II In Konstanziok bigarrenez Magnensiori irabazita, onek bere burua il eban Lyonon egon zanean.

355eko urtean II In Konstanzio arrianotarren eritzikoa izanda, beartu eban Osio gotzaia San Atanasioren katolikotasunetik urten dagian edo katolikotasunari ziñautzi eiola⁽³⁾, arrianoren eritzia besarkatzeko, 356ko urtean Osiok ezezko eskutitz bategaz erantzunda.

357ko urtean 101 urte euki zituzenean, Panoniaren Sirmioko urian il zan Osio Kordobako gotzaia, II In Konstanzioren oiñazkatuko⁽⁴⁾ alegiñaren ostean.

Aundiak izan bear ziran II In Konstazioren alegiñak, Osio gotzaiñak arrianotasun eritziak besarkatu egizan, berentzat garaipen aundia zalako berori lortzea, San Isidoro eta siñiste zuzenaren aita⁽⁵⁾ Alejandriako san Atanasio aundiak, katolikotasunean euki zituzen zalantzazko eztabaidak berari aurkeztu ondoren.

Osio gotzaiñak ez eban ontzat artu antza, eta Dagonillaren 27ko egunean ospatzen dabe Santu lez bere eguna, Greziako eleizak.

359ko urtean, gorengo maillara igon eben Arrianotarren eritziak, katolikuak ia sunsittuta geratu arte, Seleuzia ta Ariminoko eleiz batzarretan agertu zan lez, arik eta 361eko urtean Konstante il zanean, katolikotasunezko eritziak indartzen asita.

361eko urtean II In Konstanzio il zanean, bere loba *Flabio ta Klaudiotar Juliano ziñukatzaillea*⁽⁶⁾ igon eban kaisertzaren aulkira.

(1) Konstantinoren irugarren semea, Konstantetar Flabio Julio = 323-350, eta kaisar lez 337-350. (2) Jazarkundetuz = perseguidos. (3) Ziñautsi eiola = que repudie las teorías católicas. (4) Oiñazkatuko alegiñakaz = sometimiento a torturas. (5) Siñezte zuzenaren aita = padre le la ortodoxia. (6) Flabio Klaudio Juliano ziñukatzaillea = 331-363ko urtetan jaio ta il, eta kaizar lez = 361-363 urtetan, I Konstantinoren loba izan zan. Ziñ-ukatzaillea = negador, desmentidor, apostata, hereje, renegado.

363ko urtean Flabio Klaudiotar Jobianok igon eban kaisertzara, erromatar gudalozteak antolatu ondoren, eta Asia Txikerrean Tigris ibaiaren osteko erromatar uriak Persari emon

ondoren, Katolikotasunaren eskubideak baieztu ebazan Nizeako kredo edo sinisbidearen legeak ezarrita, arrinotarren eritzien aurka.

364ko urtean I Balentinianoren⁽¹⁾ agindupean egonda, siñiste zuzenezkoak⁽²⁾ indartu ziran ostera ekialde ta mendebalean, San Basilio ta Nazianzenoko San Gregorio Iliberis edo Elbirako⁽³⁾ gotzaiñaren lan aundiagaz, Konstantinoplako eleiz batzarrean Arrianoak ezereztu arte.

Ainbat eleiz batzar batu ebezan arrianotarrak, 351ko urtean Sirmion asi ondoren. 359ko urtean Trazian, eta 360ko urtean Konstantinoplan. Eta eleiz batzar oneik 381eko urtean amaitu arren, ostera berbistu ziran XVIIn gizaldean, Serbet´tar Migel, Sozino´tar Fausto eta beste batzuen gogoko lanetatik, gaur egunean ainbaten artetik, gaurko Jeobaren aitorleak eroaten dabena.

367ko urtean I Balentinianok bere anai Balenteren laguntzagaz eroan bear izan eban kaisertza, Balente ekialdeko kaisertzara bialduta, bera 367, 374ko urte bitartean galiaseko Alamanoren aurkako borrokan ibilteko, ondoren Markomanosen eta Kuadosen erasoetatik Danubioko mugak babestuteko bearrean aurkituta. Godoek, indar asko egon ziran artzen denbora onetan.

375eko urtean Flabiotar Graziano⁽⁴⁾ bere anai IIIn Balentinianogaz igon eban mendebaleko kaisertzara, baiña gazteak ziran lez, erdi ugarte onen semea izan zan Flabiotar Teodosioren babesean kokatu ebezan, arik eta ekialdeko kaisertza eroan bear izan ebenean, 383ko urtean Maximotar Magnoren matxinatuak Flabiotar Graziano il eban arte. 378ko urtean il eben IIIn Balentiniano, antza bere gudal nagusi Arbogastoren agindu edo eskutik.

376ko urtean Balentek, Unoen aldetik astinketa aundiak artzen ibili ziran godoak, bere babesean artu ebazan.

376ko urte onetan eta semearen adiñak kontuan artuta, oraindiño erromatar gudal nagusia izan zala bakarrik I Teodosio aundia ezkondu bear izan eban, bere antzera erdi ugarte onetan jaio zan Flazilatar Eliagaz.

Seme bi euki ebezan, Arkadio, ekialdeko kaisar lez Flabiotar Rufino gudal nagusiaren aita ordezkopean ipini ebena, eta Onorio mendebaleko kaiserra izendatuta, Estilikon gudal nagusiaren aita ordezkopean. Eta euren kaisertzagaz bananduko ziran betirako mendebal ta ekialdeko kaisertzak, ia erromatar azken kaiserrak izango zirenakin.

378ko urtean Balentek, Persakin lotsagarritzko bakeak siñatu ondoren, godoak euki ebazan itxaroten eta Adrianopoliseko lurraldeetan eurakaz borrokatu ondoren galtzaille urtenda, bertan il eben.

(1) I Balentiniano = 321-375ko urte bitartean jaio ta bizi eta 364-375 urte bitartean kaisar agintaritzan bere anai Balentegaz eta Flabiotar Balente onek = 328-378ko urte bitartean jaio ta bizi eta 364-378ko urte bitartean kaisar lez. (2) Ziñiste zuzenezkoak = ortodoxos. (3) Iliberis = Tarteso denboran Granadaren euskerazko izena, gero Elbira ipinita, eta mauritarrak agertu ziranean Medinat-Elbira ipini eutsoena, Granadako erritarrak gero, Granata euken baserri baten izena ipinita. (4) Flabiotar Graziano = 304-384ko urtetan jaio ta bizi ta 366-384ko urte bitartean Aita Santu lez. San Damaso Aita Santua ez zan juan eleiz-batzar orretara.

379ko urtean erdi ugarte onen Kaukako urian jaio zan I Teodosio aundia deritxon guda nagusiak igon eban erromatar kaisertzara Balente ostein. Gero, beren maisutasunagaitik Augusto izendatuko eban, eta Ejipto ta ekialdeko kaisertza artu bear izan eban bere agindupean godoengandik babesteko.

380ko urtean Otsaillaren 27an bateatu eban Tesalonikako Akoliok I Teodosio Aundia gaiso ezarria zala, eta Graziano ta IIn Balentinianok Erroma ta Alejandriako gozaiñak esaten ebena danok bete egien aginduta, ostera katolikotasuna edo Nizeako ziñeskintza⁽¹⁾ erromatar laterri edo kaisargotzaren erlijio lez ezarri zan.

380ko urtean eta Azaroko 24ko egunean I Teodosiok, Ejiptotik borroketan ibili zala, Graziano bialdu eban Iliriako gotzai barrutia⁽²⁾ godoengandik askatu egien, eta lortu eban azkenez Konstantinoplan sartzea.

380ko urtearen Azaroko 26an I Teodosiok, bota eban Konstantinoplako Demofilo goztaia eleizatik, bere orde Melezio izendatuta Antiokiako Aitalen lez, Konstantinoplako Nazianzenotar Gregorio izendaturik.

Orregaitik, ondo begitu bear doguz emen, zelango eritziekaz egiten ebazan ikusi bear doguzan gauza guzti oneik, eta benetan diñotsuet, ez daukiela porroskeririk⁽³⁾:

–“Gure zaletasunexko barka asmoan eta gure neurritasunexko aginpean dagozan izadi edo mundu onen aberriak, Zeruko San Pedrok erromatarrai erakutsitako katolikotasun erlijioagaz, aojakintzan edo erriakintzan zainduta irauñ bear dabe, 380ko urte onetan Damaso Aita Santuak eta Alejandriako gotzai Pedrok aitortzen daben lez”.

–“Apostoluen irakaskintzazko adostasunean eta Ebanjelioaren irakaspidezagaz, Aita, Seme ta Arnas Sainduagaz, goitasunexko bardintasun bateko Irukoitz Deunaren Jainkotasuna sortarazi gendun”.

–“Eta lege onen alderdiko jarraikilleak baimendu egiten doguz, katolikotasunexko izen au eroan dagian”.

–“Besteak, gure eritziz zentzunbageko eroak diralako: “sinist auslearen⁽⁴⁾ lotsagarri edo ta laidogarrizko⁽⁵⁾ izenagaz aipatuak izan daitezala agintzen dogu, eurak otoi egiteko daukiezan tokiari, eleizaren izenak ipintea debekatuz”.

–“Eurak eramango dabe len Zeruko zigorraren ertsaldi edo zebadura⁽⁶⁾, eta bigarren, Zeruañen naiakin ados dagoan gure agintaritzazko zigorra”.

San Pedroren denborakuak zirala..., katolikotasunaren erlijiozko eritzi orreik ?.

Nungo eskutik artuko ote ebazan, jaintasunexko eskubide orreik ?.

Guk ezer jakin barik, Jainkoagaz batzartuko ote ziran Zeruan ?.

381eko urtearen Lorail ta Uztailleko illaren artean, I San Damaso Aita Santua izan zan Ekialde eta Mendebaleko bereizkeriakaz amaitzeko, eta I Teodosiok⁽⁷⁾ Konstantinoplako eleiz batzarrak ospatutzeko aginduta, bertan onespendu ziran Nizeako eleizbatzarrean erabagitu ziran **Jaungoikua, Kristo ta Arnas Sainduaren⁽⁸⁾** neurri bardiñeko

(1) Nizeako ziñeskintza = Dogma o credo Niceano. (2) Iliria = Panonia y Dalmacia, hoy Yugoslavia. (3) Porroskeririk = desperdicio. (4) Sinis auslearen = quebrador, violador, transgresor. (5) Lotsagarri = indecente. Laidogarrizko izenagaz = citados con nombres deshonrosos, afrentosos, ignominiosos. (6) Zebadura = represión. (7) I Teodosio = Erdi ugarte onen Kauka errian jaio zan 347ko urtean Urtarrillaren 11ko egunean. Eta Milanen il 395eko urtean Urtarrillaren 11n. Eta kaisar lez, 379ko Urtarrillaren 19ko egunetik-395ko Urtarrillaren 17ko egunerarte. (8) Arnas-Saindua = espíritu santo.

jainkotasunak, ortik aurrera Irukoiztar irakaskintza sendotuta, Nizea eta Konstantinoplaren Siñisbideko izenagaz ezagutu zana.

Mundu onetan, nor eta noren bidetik eukiko ote eban inork baimena, Jainkoaren izkutu edo mixteriozko izatasunean eskua sartuta, erabagi orreik artzeko ?.

382 urteko Urrillaren 3an I Teodosio aundiak godoakin bakeak eginda, onek, erro-matar kaisertzazko lurraldeetan Dazia ta Iliria edo gaurko Bulgaria eta Yugoslabiaren arteko Danubio ibaiaren inguan abarotu edo kokatu ebazan godo oneik, Terbinjioaren leiñuak ainbat ugarituta Danubio ibaiaren inguruetatik.

383ko urtean I Teodosiok, Magno ta Klementetar Maximoren laguntza eskatu eban mendebaleko jaurkintza eroateko kaisar lez, eta berak II In Balentinianoren ilketa apendu edo ordainzkatzeko⁽¹⁾ Eujenio eta Arbogastro menperatuz, katolikotasunaren fe-debagnetasunak inguratu, estutu eta jarraian, Tesalonikan egin eban odolkerizko sarraskiagaitik, San Ambrosiok aitorkuntzaren zigor lez agindu eutsoezan erriaren aurrean errudunezko ordaiñak beteteko, onartu ebazan.

387ko urtean, Maximo kaiserra matxinatu zan, eta II In Balentinianok bota eban Italiatik.

388ko urtean Magno Klementetar Maximo kaisar matxinatua, I Teodosioren aurka borrokatu zan eta onek menperatu ondoren il da, II In Balentiniano ipini eban bere lekuan osterabe.

388ko urtean I Teodosiok, katolikotasunezko irakaskintzaren siñezbagekoak aienatu edo ezereztu egin, buruzagi bat bialdu eban Siria, Ejipto eta Asia Txikerrara, bide batez euki ebezan alkargoak desegin eta eukezan eleizak botateko.

390eko urtean, Ambrosio Milaneko artxapezpiku Santuak, I Teodosio eskomikatu eban, Tesalonikara joan zanean bere guda jaurlaria zigortzen 7.000 erritar il ebazalako, eta Ambrosiok ez eban osterabe artu eleizan, arik eta agindu eutsezan erritarren artean oben ordezkioak bete arte, erritarrai erakutsita nor izan zan agintaria kaiserraren aurrean.

392ko urtean Loraillaren 15ean, bere etxean urkatuta aurkitu eben II In Balentiniano, baiña jakinda Eujenio kaisertzazko aulkian ipinteko Arbogastes izan zala II In Balentiniano il ebana, bere aita I Teodosiok Arbogasteseri irabazi eutson.

393ko urtean eta Urtarrillaren 23an I Teodosiok, bere seme Arkadio izendatu eban laguntzaille lez Ekialdearen kaisertzarako, eta bardiñ egin eban bere beste 9 urteko seme Onoriogaz mendebalaren kaisertzarako, bieri augustoren izenak ipinita.

I Teodosiok, 380ko urtean Tesalonikan artu zan erabakia erabiliz, guztiz debekatu ebazan katolikotasunaren aurkako sinisgogorrak, eta zatika egon ziran mendebal eta ekialdeko kaisertzak alkartuta, bera geratu zan mendebal eta ekialdeko kaiser lez, il zan arte. Ortik aurrera, banandu egin ziran kaisertzaren alde biak.

393ko urtearen olinpi jolasaren ostean, I Teodosiok debekatu ebazan joko orreik, siñesbagekoen jokoak zirala esanda.

Konturatu zeinkie, Nizean asmatu zan katolikotasunezko erlijioa, garrantzi aundiko ardatz nagusian biurtu zala, kaisertzaren menpetasunezko batzagotasunak lortzeko. Eta au izan da Europako edesti guztiaren odoljariozko gizabidea gaurko egunerarte.

(1) Apendu edo ordainzkatu = vengar.

394garren urteko Iraillaren 6an I Teodosiok, len Akileiaren izenagaz ezagutzen zana edo Eslobeniako Bipaba ibai ondoko Frijido zelaietan, Eujenio kaisertzaren lapurragaz euki eban borrokan irabazita, II In Balentininoren ilketan erkideak izan ziran Eujenio ta Argobasto orreik il ebazan.

395ko urtean eta Urtarrillaren 17an il zan Milaneko urian I Teodosio Aundia, bere elizkariak San Ambrosiok eginda.

395eko urtean Azaroaren 8an eroan eben I Teodosioren gorpua Konstantinoplara bertan illobiratzeko. Greziako siñiste zuzeneko eleizak, Santu lez onartuta.

Ekialdeko Kaizartza bere seme Arkadiori emonda eta Onoriori Mendebalekoa, Ekialde ta Mendebaleko kaizartza oso ori, betirako bananduta geratuko zan.

Edestilariaren gora beran, bera izan zala azkeneko kaiserra erromatarren kaisergotzan esaten dabe, bera ilda asten dalako europako kaisargotzaren maldabera, bertoko leiñuaren erasoari eutsin ezinda. Urte onetan Unoen agerketa sortu zan.

6. Oar txiki bat emen.

434ko urtean II In Konstanziok, Onoriatar Justa Grata bere alaba, II In Teodosiren arrebagoz

bialdu eban, bere laguntzagaz eta otoizketaren bidetik, ia Onoriatar Justa Grata onek zuzentzen ebazan, gaztetatik gizonakaz ibilteko euki ebazan erakerizko zaletasunak.

450eko urtean II In Teodosio⁽¹⁾ il zanean, Onoriatar Justa Grata onek, Atilari eskaiñi eutson bere eskua, onek eurentzat erromatar kaisertzaren erdia eskatu egian, eta bere anai III In Balentiniano azpikerizko joko orregaz konturatu zanean, gizon bategaz ezkondu ondoren, Rabenako lekaimetxe baten sartu eban bere eriotzararte.

Zertzelada au zuen aurrean aurkeztu gura izan dot, gero gure errege jauntzak agertzen diranean konturatu gindezen, Ekialdeko lurretatik errigizartearen jaurkintzarako Sargon menperatzaileagaz asita, errege mailla orreik norkeriaren jendekuntz bidetik eta oitura bezela etorri direla edesti guztitik jabetasunezko zentzuan. Ordezkaritzaren ardurazko ekintzak izan bear ziran berezko errigizartearen antolakuntzak, jabetasunezko ekintzatan biurtuta.

Orregaitik, Jainkoaren berezko legeari begitu ta azturazko ekintzaren oituran, orduan ezagutu, eta mundu guztiarentzat Paleolitiko Neolitiko bitarte orreitan, lortu zan askatasunezko demokrazia, nola Asia Txikerreko lurraldeetatik asi ta, Europaren mendebal aldekoak baiña, norkeriaren jabetasunezko jendekuntz orreitan 3.000 urte aurreratua goak egon ziralako, zigor, zorigaitz edo izurrite aundi bat bezala ikusten dogu, zelan illuntzen dira apur apurka demokrazizko ekanduaren argitasun aundiak Europaren lurraldeetan, ekialdetik mendebalerantza Atlantikoaren itsas ertzera eldu arte.

Gaurko egunean or gagoz gu baiña, mundu onen Euskaldunetzko izar txiki bat bezala, gure arbaso maiteak Paleolitiko Neolitiko alditan euskal baita lez lortu ebezan askatasunezko demokrazazi ederrak, euskal guztien arnasa bezela zaintzen.

Iparagirrek abestuten eban lez, "emankorra izan daiten", badakigulako munduko giza osoari berriz emon bear dautsagula, Omosapienssen eskubide lez.

(1) II In Teodosio = 401-450 urte bitartean bizi zana eta 408-450 urte bitartean Ekialdeko kaizar lez.

Gaurko gizon emakumeak ezin ote gara izango gai..., maltzurtasunezko trikimaillu guzti orretatik alde egin eta gure demokraziaren ordezkarietzazko eragipenaren ekintza guztiak, ardurazko oitura lez, nortasunezko demokraziaren zentzupean ezartzeko ?.

Edestiko aria ostera artuta:

395eko urtean I Teodosio Aundia il zanean, bere seme Flabiotar Onorio⁽¹⁾ igon eban 9 urtegaz mendebaleko kaisertzaren aulkira, Estilikon bandaloaren guda nagusiko gurasoren ordezkotasunean.

Flabius Konstantinegaz banakatuta jaurkitu eban erromatar kaisertza, eta onek Europako errigizartearen leiñuakaz borrokatu ostean, laterri batzuk galdu ebazan.

395eko urtean Arkadiok⁽²⁾ be igon eban ekialdeko kaisertzara, eta Eudoxiagaz ezkondua, onek euki ebazan Rufino ta Eutropio leen ministruakaz, jaurkitu eban ekialdeko kaisertza.

Orañarte ikusita alde bietako kaisertzak bat eginda, zelan joan ziran jaurkitzen, Arkadio bera artzen dabe Ekialdeko leenengo kaisar lez.

Unoren erasoagaz batera, bisigodoak be agertzen dira Greziaren uriko atetatik I Alarikoen agindupean, eta erromatarrak zirikituta, ostera agertzen dira etenbageko borroak.

397ko urtean Estilikon erromatar guda nagusiak, gudaizte bat antolatu eban godoak Peloponesotik atarateko, Epiroko lurraldean babestuta godo oneik.

399ko urtean, Eutropio irendua⁽³⁾ deritxon pretorak iñori esan barik, bera izendatu zan kontsul bezela, eta Frijiara bialdu ziran gudaizteak lurralde aiek bakezteko matxinatuta, senatoreak, Eliatar Eudoxia kaisar andreari eskatu eutsoen, bere senar Arkadio kaiserra eskuratu egiala, Eutropio agintaritzatik kentzeko. Eta ekintza onegaz asten da Eudoxiaren eragipena, erromatarren mendebaleko kaisertzaren jaurkintzan, ekialdeko kaisertzaren pretoritzan euken buruzagi adizkide Aurelianokin.

Eta 400eko urtean baita, Eliatar Eudoxia onek, Juan kondea eta godoen leiñukoa izan zan Frabita guda nagusiagaz, jaurkintzazko gauzatan euki ebezan arremakin.

401eko urtean Arkadiok, I Alariko izendatu eban ***Magister Militum*** eta Iliriako Uri nagusiaren guda nagusi godoak bakezteko, ontzat artu zan, godoak erromatartzea ekialdeko kaisertzan.

Urte onetan godoak, Konstantinoplatik zirikituta, ekialdeko kaisertzatik urtetan dabe eta Italian sartzen dira.

402ko urtean Bisigodoak saskildu eben Erroma, eta Onoriok au ikusita, Milanen euki eben uri nagusia, Rabenako itsas ondora aldatu eban.

402ko urtearen Jorraillako 6n egunean Estilikonek, Pollienazko lurretan menperatu ebazan Bisigodoak, eta gero Beronan.

403ko urtetik asita, Krisostomotar Juan, Konstantinoplako aita leena agertu jakon aurkari Eliatar Eudoxiari, sendiaren aberastasuna ibili ebalako bere senarraren kontrola

(1) Onorio, I Teodosiren semea 384ko urtearen Iraillaren 9an Konstantinoplan jaio eta 423ko urte artean Dagonillaren 15ean Rabenan il = eta kaisertzan 395-423 urte bitarean. (2) Arkadio = 377-408 urteko Lorraillaren 1eko bitartean bizi zana eta kaisergotzan, 395-408 urte bitartean. (3) Eutropio irendua = el eunuko Eutropio.

eukiteko, eta Eliatar Eudoxiak Alejandriako Aita Leenaren laguntzagaz lortu arren Krisostomotar Juan erbesteratzea, atzeratu zan, erritarren asarreak ikusi ostean.

404ko urtean il zan Eliatar Eudoxia, Arkadioren emazte kaisar andrea, eta Pulkeria, Arkadio ta Eliatar Eudoxiaren alaba geratu zan, bere anai ta euren sendiko mutil bakarra izan zan II In Teodosioren zain.

Eta ekialdeko jaurkintza emendik aurrera, pretorgotasunaren buruzagi izan zan Antemiok eroan eban, Arkadio bera il zan arte, Arkadio bera geiago gura ebalako katolikotasunezko gauzatan ibili, jaurkintzazko gauzatan ibili baiño.

405eko urtean Erromako kaisertza suntsitzen egon zirala, Bordeletik ta Astorgarako erromatar bideetatik sartu ziran Bisigodoak Euskalerrian, ortik aurrera eten barik eta iru mendetan saiatuta euskaldunak menperatzen, errege bakotxa kaisar aulkira igoten ebenean *“Et Domuit Vascones”*eko esan bearrekoakaz igonda.

406ko urtearen Abenduko 31n silingos ta asdingoseko izenakaz Alemaniko mendebalaren

Renaniatik urtenda, alano, suebo ta bandaloak, agertu ziran Europako mendebal onetan, eta 409ko urtean Galiasetik zear, Añamendiak aldatuta sartu ziran peninsula onetan.

Britaniako egoera oso larria izan zan denbora onetan, ango gudalozteak bakarrik geratu ziralak, eta ez gitxiago Europako mendebalarena, 406-407 urte bitartean Markosek erromatar gudarrien laguntzagaz matxinatuta, 407an Grazianok bardiñ egin ebelako, ta III In Konstantinok Galiako Arlesegaz geratzen zan bitartean, II In Konstante Britaniam ibili zala eta abar.

7. Oar txiki bat emen.

395eko Urtarrillaren 17an I Teodosio Aundia il zanetik, Europako Mendebal eta Ekialdeak, Asiako lurraldeak bezala, naste askoko lurraldeetan biurtu ziran, Euskal Keltiarren bakezko egoeratik, Erromatar, Franko, Godo, Uno, Erulo, Eszita, Samata, Ostrogodo, Jepido, Boyo, Turinjio, Franko, Alano ta Borgoñesak ekarri eben borrokaren nastetasunezko saltsa erdian agerturik.

Geiago baltzituko zan saltsa ori, Suebo, Bandalo ta Alanoak alderrai agertu ziranean Asiatik, euren bizi lekuak eskatzen sortu ziran borrokakaz, danoen ikuspegiak lokaztu egin ziralako guztiz.

Erromatarrak, eurak bizirik agertzeko, euren “Etorri nintzan, Banandu nebazan ta Irabazi nebanen” atzalburuagaz alde batetik, eta Persak bestaldetik ez ba eben Asia, Arabia ta Afrikako lurraldeetatik batzangotu gurean, alderrai eta bakezko leku billa Europara ainbeste leiñu bota, danon jaurkintzarako bear doguzan bereztasunezko lege demokratikoak ez ziran ainbeste lokaztuko, eta bata besteen bultzakadak amaibakoak biurtu ziralako, Europak, iñurrien edo txingurritegi baten zirikitu bat eginda, txingurritegi ortan sortzen dan zorotasunezko ikuspegiaren antza artu eban.

Eta begitu nun agertzen diran Paleolitiko Neolitiko alditan lortutako Kromañon eta Omosapiensien askatasunezko demokraziaren aitortzak “Euskerean bilduta”.

Euskaldunak, ainbesteko lokatzartetik bizitzak eta lurrak galduz joan arren, zaindu edo “betiko lege zarrak” iltzen ez eben itzi, Euskal barnean ondo “Baituta” daukan askatasunezko demokrazitik aldendu gura ez ebelako eta gaur be, gura ez dogulako.

Egoera onetatik eta Mauritarrek agertzen diranean, Euskalerrria aukera ezin obeetan agertu zan, bere euskal lurretan bear eben jaurkintzazko antolamentuak egiteko.

A ta guzti, eta beragaz batera, Jesusen Kristautasuna katoliko alderdikidetu ebenean maltzuratasunezko lapurtza aundiena egin ondoren, "katolikotasunaren aberrikuntz fazizta batzangozale ori" aurrera egingo dau, eta munduan sortzen diran jaurkintzazko era ezberdin guztiak, iru baldintz faziztapean jaioko dira.

Ondo jakin bear doguzan baldintzak dira oneik, bestela, iñoiz ez doguz ulertuko zeintzuk diran askatasunezko egarriak beteten dabezan baldintzak:

a).-“Erromatarren sakratuzko kaisertza ta legeak”.

b).-“Norkeriz asmatutako judu-katolikotasunaren aberritasunezko batzangotasuna”.

d).-“Griego en jakintza”.

-Leenengo biak, menperatzailetasunezko baldintzak dira, biak diralako Jainkoak Izadi oneri ipini eutsoezan berezko legearen aurkakoak: “nai daukazan legediarenak”, “bai Omosapiensien gizakiak azturaren oiturazko bidetik, baitu ebazan “Arimarenak”.

-Irugarrena alderantziz, askatasunezko demokraziaren emaitzak emonez gain, guri gaiezko antzerki onetan berez eskubidetuta daukagun “asmatazaillearen” antzezlaritzan kokatzen gaitu, mundu onetako gizon emakumearen “nortasunezko zentzu ederrenean”.

Askatasunezko bizitz demokratiko onetan, eskubide bardiñean jaioten garelako, danon zor eskubidearen ordezkartzazko arduratan “nortasuna da antzezlarri nagusiena”, bere askatasunaren zentzuzko alderdibagekeria dalako mundu onetan dauan altxor aundiena, Jainkoari arpegiz begitu gura ezkerro.

Leenengo biak alderantziz, ez dira nortasunaren askatasunezko demokrazi zaleak, Jainkoaren zeregiñetan sartuta “irazale” edo “sortzaillerean” antzezlaritzan kokatzen diralako, eta guk ez dogulako “ezerezetik” ezer sortzeko almenik, batzangozale orreik “norkerizko jokuetan ezartzen dira”, benetako Jaungoikuari begira gagozenai, bizitza infernu baten biurtuta..

Orreik dira norkerizko katolikotasunaren aberritasunezko asmo txarrak, ezin diralako zorro baten sartuta, alkar ekarri “Erromatar Kaisar Sakratua eta katolikotasunaren batzangotasunezko lerrauts edo bolboraren artean”, “supizteko poxpolloak diran Greziaren Askatasunezko Jendekuntz Demokratikoak”, euren artean ikutu orduko extanda egiten dabelako, edesti osoan ikusten dogun lez .

Katolikotasunezko aberkide menperatzaillerei, ortik agertzen jakie, Berezko erritartasunaren aurkakoak izatea.

Eta emen milloi askoko itaun bakarraren argitasuna.

8. “Gaurko-Euskaldunaren-Izatasuna”:

Euskalerrriak orainarte, beren bizitzazko aztura guztian, Euskerean oitu egin dauazan zentzunezko ekintza onguztiak bere barnean baituta daukazalako, Paleolitiko Neolitikoaren alderdikeribageko askatasun demokrazizko jendekuntzaren aitorlea da, eta gaurko arazoa, 325eko urtean norkeriz, Nizean artu ziran kaizar sakratu menpe baten, katolikotasunezko aberkide-tzaren batzangotasunean beartuta bizitzeko erabagitik, arazo ortan aurkezten bagara.

Zelan aurkeztu bear dogu, gaurko euskaldunaren izatasuna ?.

a) *Zexar agertzen zanean bezela, aurkakoak edo etsaien eritziaik banandu ondoren, gairaitzeko lez. Ezinezkoa da gurentzat.*

b) *Aberribageko menperatzailleak egiten daben antzera, gagozan alderdikierian banakutzatuta lez. Ori be ezinezkoa dala uste dot.*

d) *Ala, alderdibageko euskal lez ?.*

“Euskaldunen Euskerea eta euskal Askatasunezko Demokrazien zentzuak, ez daukie alderdikierietan izan gaitasunik, bere bizitzako azturan oituratu dauan euskaltasunezko demokraziaren ulertza baiño, askatasunezko demokraziak ez daukelako alderdikieririk”.

Euskaldunak konturatu gaitezen: “Euskalduntasunaren Alderdiko Jeltzaletasunak” ez dau gura esan, batzuk, P.N.Vn biurtu daitela gura daben antzera, “alderdia dala”, “euskalerrriaren askatasunezko demokraziaren aldeko euskaldunai deitzen dautselako, gure aberritasunezko zoritxarrean erri lez alkartu gaitezen, “izatasunaren elburuzko” tresneri edo ulerketaren bide bat baiño besterik ez dalako, gure askatasunezko demokrazi bidean”.

Gure Arana tar Sabin euskal arbasoak “Euskadiren” itzagaz bildu eban lez.

-Adibide bat lez ipinita: mundu edo izadi onen batzangoatsunezko irudia lortzeko, beren banandutako mukullu txikerrenetik asi, eta izadiko irudi ori osagarritzeko daukan erakarteko indarragaz lortzen dauan antzera.

-Mundu onen gizatasunak be bardiñ lortu bear dituz ulermenaren bidez, gizakiaren azken batzangotasunaren irudizko lormen orreik, mukulluen artean erakarteko indarra bezela, banandutako gizakien artean sortzen dan antzera “borondatearen ulerme ona” dalako tresna, Jainkoaren seme/alaba lez osagarritzeko elburuak lortu daiguzen.

-Bakartasunezko gizaseme/alaba ta leinuaren auzotasunezko bizitzatik, bereztasunaren errigizarte berezitan agertu gara, eta mundu onetan inork ez dauka eskubiderik, erri batzangotasun orreik beartzeko euren izatasunetik kanpo, mundu onen gauza eta gizaki guztiak garelako “nortasunaren eskubidekoak”.

-Gitxiago katolikotasun, islam eta alango norkeriaren gogoetatik izaten bada, euren elburuaren sasijainkoa ixillean edo eskutuan ekarri arren, badakigulako urrezko txekorrala dala orko bidetik agertzen jakuna.

-Europak, gaur laterrien menpe ta ardurabagean ezarrita ganora barik daukazan berezko errien giza/seme-alaba guztiak, askatasunean ta demokraziaren ordezkariitzeapeko legean ardurapetuta ezarri bear dituz, gaur edestiko norberkeriaren erruz daukazan maltzurtasunezko lapurtzazko^o bidetik edo arrokerizko utsaldietatik urten gura ezkeru.

Nai ta nai ez berrezkuratu bear doguz berezko bide orreik, Jainko sortzaillearen lege bideak, alda-eziñezko legeak diralako, gu egokitu gaitezen, bakez bizi gura ba dogu

Eta Euskalerriko erriai bezela, bideak zabaldu, euren barnak eskatzen dautsen lez emankorralak izan daitezen, gizaren osagarritasunezko elburuak bete daiguzan.

408ko urte onetan il zan Arkadio au, Ekialdeko kaisar izena bakarrrik eroan ebena.

408ko urte onetan, Onorio Mendebaleko kaiserrak Iruñako erromatar gudalozteetan egon ziran euskaldunai, eskutitz bat idatzzi eutsien, matxinatutako leiñuakaz borrokatearren, lansari edo soldata igoten eutsela.

408ko urte onen Dagonillaren 23an Onoriok aginduta, Arriano gudal nagusiaren aurka azpikerienbat egon zalako Estilikon bere aitagarrebaren aldetik, eta Estilikon oartuta bere atzean ibili zirala, eleiz baten barruan sartu zan eta etsaiak aurkitu ta gero berari esanda ezer ez eutsoela egingo, Olinpoko atetik urtetan egoala il eban.

408ko urte onetan II Teodosio⁽¹⁾ *“Luma Ederra”*⁽²⁾ Arkadioren seme au, zazpi urte eukezala igon eban Ekialdeko kaisertzaren aulkira, leen Antonio pretoraren, gero bere arreba Pulkeria eta askenez Krisalpio *“Txikiratutako edo Irendua”* izan zanaren⁽³⁾ errege ordegotzan.

Bere gudal nagusiak Persarren aurka borrokatu ziran birritan, eta Unoak urrunduta Auki eben ontzidi aundiagaz, bandaloen itsas lapurtzakaz amaitu eban.

408ko urtearen Loraillaren 1ean igon eban II Teodosio kaisertzaren aulkira 7 urte bakarrik eukala, pretorgotasunaren buruzagia izan zan Antemioren errege ordegotzan leenengo, bere aitaren gandik zuzentzen ebana ekialdeko kaisertza.

409ko urtean Onoriok, Estilikonon alabagaz ezkondata, eta Estilikonnek euken ospearen bekaitz, aitagiñarreba il eban, Alarikok Erroma saskiltzen ibilita, eta Onorio bera, Rabenan ondo bizi zala.

409ko urterarte I Alariko bisigodoak⁽⁴⁾, Unoen aurka jokatu eban I Teodosiogaz batera au il zan arte, eta erromatar kaisertzaren aurka asita, Erroma menperatu eban, Onoriok orren erruz edo bakearen orde, erdi ugarte au eta Frantziko lurraldearen zati aundi bat emon bear izan da.

Emendik aurrera, eta Erroma saskildu ondoren, I Alarikogaz asita sartzen dira Godoak erromatar kaisargoaren jaurkintzazko jokoan, 409, 415eko urte bitartean erromatarrak erdi ugarte onetan euki eben guda indar guztia ezereztuta.

Godoak denbora orreitan, Unoen ekintzagaitik, ego mendebalean Bisigodoaren izenagaz eta Ostrogodoen izenagaz ekialdean geratu ziranak banandu ziran. Ostrogodoak Unokaitik menperatuta geratuz, Danubio ibaiaren inguruetan.

410eko urtearen Dagonillako 24an I Alarikok, iru bider inguratuta euki eban Erromako uria, eta Mazedonia, Trazia, Tesalia ta Greziako urietatik arrapaka ibili ondoren, urte onetan saskildu eban Erroma.

Mendabaleko kaisertzan ta Onorioren agindupekoak, onak ziran Jauregiaren azpikerietan, baiña oso txarrak gudalozteak bideratzen, Alarikori aurre egiteko.

Onoriok Akitaniako lurralde batzuk emon eutsozan bisigodoari euren ezarpenerako, eta ortik asi ondoren Bandaloak bota ta erdi ugarte onetan sartuta, ia lurralde guztiak menperatu ebazan 475garren urterako, orregaz erregetzazko jaurkintzan sartuta, Mauritarrak etorri ziranean ezereztu ebana 711ko urtean.

(1) II Teodosio = 401eko Jorraillaren 10ean jaio eta 450eko urtean Uztaillaren 28an il, eta Kaiserra lez = 408ko Loraillaren 1etik, 450eko urte bitartean. (2) Luma-Ederra = el caligrafo, apodo de Teodosio II. (3) Txirikatua, edo gizon-erdia = eunuco. (4) I Alariko Bisigodoa = 370-410eko urte bitaean bizi zan. Erromataren kide izan zan Unoen aurka eta I Teodosio aundia il zanean mendebaleko kaisertzaren aurka borrokatu zan eta Onorio kaiserrak erdi-ugarte au eta Frantziako zati bat emon bear eutsen. Eta Mazedonia, Trazia, Tesalika eta Greziatik borrokan ibili ondoren 410garrengo urtean Erroma iru bider inguratuta euki ondoren saskildu eban.

9. Zelan sartzen diran Godoak emendik aurrera I Alarikogaz, erromatar jaurlantza-ko jokoan, antzezlari nagusi lez.

414ko urtearen Ekialdeko kaisertzan Antemio aldendu zanean, II In Teodosioren arreba nagusia Pulkeria arduratu zan errege ordegotzagaz bere ezkon lagun edo Marzia-no senarragaz, berari Augustaren izena ipinita.

Pulkeriak eragipen aundia euki eban bere anai txiker Teodosiogaz, eta asko arduratu zan bere azkuntzagaz⁽¹⁾, bai ta katolika sutsua lez, asko zirikatu ebazan fede ausle⁽²⁾, siñesgaitz⁽³⁾ ta juduak.

415eko urtetik aurrerantzean, guda sutsuan borrokatu ziran erdi ugarte onetako bisigodoak, erromatarren kaisar jauntza euren agindupean eukiteko.

418ko urtean, Galiako ipar ekialdea frankoen eskuetan egonda, urte onetan sinatu zan elkargoagaz, bisigodoak geratu ziran egoekialdeko lurrazak.

421eko urtean eta Mendebaleko kaisertzan, guda nagusi eta gero kaisertzara igon eban III In Konstanziok, Onorio kaiserraren arrebagaz ezkondu egon zan, eta Konstantino kentzaille edo lapurak, Galia, bretaña ta erdi ugarte oneik artuta euki ebazanari borrokan irabazi eta atxilotu ondoren, Rabenan burua moztu eutson, berari Onoriok, kaisergotzaren zeregiñetarako baltzuratuta⁽⁴⁾, baiña andik zazpi illabetera il zan.

421eko urtearen Bagillan eta Ekialdeko kaisertzaren aria artuta Pulkeriak, Atenais siñesgaitzegaz ezkondu eban II In Teodosio, katolikotasunezko erlijioara aldatuazota, gero Aeliatar Eudoxiaren izenagaz ezagutu zana.

Ezkontza onetatik, Liziniatar Eudoxia alaba euki eben, gero III In Balentinianogaz ezkonduko zana, Ekialde ta Mendebaleko arremanak estututa.

II In Teodosioren jaurlantza onetan, eta nestorianismoaren⁽⁵⁾ agerkeragaz, aurrera egin ebezan kristau katolikotasunezko eztabaidak, aldare edo eliz mai ta kaisertzazko agintariak, nork almen aundiagoa euki edo euki bearrean egon, bai eta eleiz osoaren barruan.

Aldendu ebazan persiarrak, baiña Atila garaipendu zanean, onek ipini eutsozan zergari erantzun bear izan eutson, eta orde z Panoniako lurraldeak emon eutsozan.

423ko urtean Mendebaleko kaisertzaren agintaritzan 30 urte eginda, Onorio ur miñagaz ondorengo barik il zanean, III In Balentinianok⁽⁶⁾, III In Konstanzioren seme ta beren loba zan II In Teodosio ipini eban Kaisertzaren aulkian, ama Galatar Plazida erregearen ordetzako lanean ipinita.

425eko urtean Konstantinoplako Ikastetxe-Nagusiari, antolamenduzko berriztasun bat emon eutson.

429ko urtean II In Teodosiok, I Konstantinotik agertu ziran lege guztien utsaldiak argitzezko talde bat antolatu eban, gero II In Teodosioren **Lege sortak** deituko zirenak.

429ko urtean Mendebaleko III In Balentinianoren kaisertzazko denborak zirala, banda-loak erdi ugarte onetatik urtenda Afrika menperatu eben.

(1) Azkuntza = educaciòn. (2) Fede-ausle = herejes. (3) Siñesgaitz = paganos. (4) Baltzuratuta = asociado, o asociarse. (5) Nestorianismo = Vn gizaldian Nestoriok agertu eban, Jesus eta Ama Birjiñagan, ezezko jainkotasunaren eritzia. Nestorio = Konstantinoplako Aita-Leen 428-431 urte bitartean eta 451n il zana. (6) III In Balentiniano = 419-455 urte bitartean bizi zana eta kaisar lez 425-455 urtetan.

431ko urtean I San Zelestino Aita Santuak, Efesoko eleiz batzarrak egitea agindu eban, eta bertan Konstantinoplako aitalengoak, ziñausleburu ta nestorismoaren irasle Nestorio izan zana, Libiako basamortura erbesterratu eban, Jesusen jainkotasuna barik, gizona zala, ta Ama Birjiña ez zala Jainkoaren ama esateagaitik.

Efesoko eleiz batzar onetan IIn Teodosioren arreba Pulkeriak euki eben lenengo edo aitzindari aundienetariko lez.

438ko urtean IIn Teodosiok, I Konstatinok argitu ebazan lenengo legeak edo araudietatik bere denboraraiñokoak batzeko aginduta, berak ekialdean argitaratuta eta denbora bardiñean IIIIn Balentinianok mendebalean argitu ebezanak, Justinianoren lege bildumagaitik aldatu ziran arte, iraun eben.

Eta 438ko urtean, utsazko garbitasun ori guztiz osotu barik geratu ziran lez, talde orrek Konstantinoplan berriz batzartuta, Teodosioren Lege Bilduma osotu eban.

450eko urtearen Uztaillaren 28an il zan IIn Teodosio, eizan egonda zalditik jausita lurra jo ebanean.

450eko urtean Ekialdeko kaisertzaren IIn Teodosio *“Luma Eder”* esaten eutsienari il zanean, bere arreba Pulkeriak igon eban Ekialdeko Kaisar aulkira ta Marziano senatoreagaz ezkonduta, bere leiñuzko kaisartzaren jatorritarsuna atera eban galbidetik.

IIn Teodosioren il ostean, Pulkeria⁽¹⁾ igon zan kaisergotzaren aulkira, eta Marzianogaz ezkonduta egon zan lez, bere gudal nagusiaren aolkuagaz, Marziano izendatu eban ondorengo lez.

451ko urtean Ekialdeko kaisertzaren, Pulkeria kaisar andrea eta bere senar Marzianok eleizako agintariekaz batera, Kalzedoniako eleiz batzarrak egiteko agindu eben, Marzianok garrantzi aundiko estabaidetan sartuta, Kristoren Jainkotasuneko izaeran aurkakoak ziran irakaskintza bien artean, monofisismo edo eutikianismo eta nestorianismoen artean.

451eko urtean Atila, Galiako lurraldeak menperatzera joan zan.

451ko urtean Iraillaren 20an Mendebaleko IIn Balentinianoren gudal nagusi Aeziok, mendebaleko matxinatuak geratzen alegindu zan bitartean, bera frankoakaz borrokatu zan, auek izenpetu edo siñatu ebezan elkargoak ez ebalako betetan, eta gero Aeziogaz batera bisigodoakin ta frankoakin antolaketak eginda, Atilaren aurka borrokatu ziran Frantziaren Katalaunikoseko zelaietan, Txalons sur Marne inguruan, Troyeseko uri ta Sena ibaiaren artean.

452ko urtean Atilak, Italiako lurak menperatzera joan zan, Akileyako uria inguratu ostean iru illabete barru saskilduko ebana, eta Erromara joan zanean, Erromako Aita Santua bere jantzi onenakaz Minzio ibai bazterrera urtenda, Atilari dirua emonda edo Atila bera beren siniskeriagaitik bildur, ez zan sartu urira.

I Leon Aita Santuari “Aundiaren” izena balio eutsena, eta geroago Erromako Aita Santuaren izena mundu osokoarentzat, lenengo Kristauak Griegoen izkuntzatik (papa-aita) artuta aitaren izenetik etorrira, danon aita santu lez biurtuko zana.

(1) *Pulkeria IIn Teodosioren arreba zarrena = 399–453 urte bitartean bizi zana eta kaiserra lez = 450–453 urte bitatean, eta Pulkeriaren ondoregorako Marziano bere senarra izendatu eben, onek Pulkeriagaz ezkonduta zanean ziñ egin ebalako Pulkeriak Jainkoari egineko bere birjintasunezko eskeiñ itza lotsean artuko ebala.*

453ko urtean Pulkeria kaisar andrea il zanean, eta Unoak eraso gogorrenetan ibili ziranean, Marziano bere senarrak igon eban ekialdeko kaisertzaren aulkira, 431ko urtean Atilak baitu ebanean, berari emon bear eutson zergaren ordaintzazko berbea ezereztu ostean, esan oneikaz: *“bere Ekialdeko kaisertzaren urrea lagunentzat zala, eta burdiña euren etsaientzat”* Marzianok jakin ebalako ekialdeko kaisertzaren Constantinopla, Atilak, sekula ez abala artuko.

Ekialdeko kaisertza, Flabiotar Marziano Augustusen⁽¹⁾ agintaritzan sendotu zan diruz eta diruaren antolakuntzan, naita Atilaren eraso aldiak ainbeste arazo ta kalte egin.

Marzianok, Trazian jaio zanetik eta bere gaztetasunean gudari lez ibilita, Ardaburio eta Aspar'en agindupera aldatuta, 19 urte beteko ebazan eurekin, Persiar eta Bandaloaren aurka.

Bandaloak, baitu eben 431kako urtean Marziano, Ippo Rejius'eko borrokan, eta Jenseriko bandaloaren⁽²⁾ aurrera eroanda onek, ziñez itz eman bear izan eban, sekula ez zala joango bandaloaren aurka, askatasunean bizi gura ba eban.

Gudal nagusi bi onen eragipenagaitik, zain taldearen kapitaiña izendau eben, eta orren ostean gudatribunoa eta senatorea.

Marzianoren kaisar izena, 451ko urtean Kalzedonian berak eta I Leon Erromako Aita Santuak aginduta, egin zan eleiz batzar nagusienetik dator.

Pulkeria, 431ko Efesoko eleiz batzarretan be egon zan antzezlari nagusi bat lez, eta bere antutasunezko eguna Iraillaren 10ean ospatzen da.

453ko urtean, Atila bandaloa il eben pozoituta, bere ezkontzaren ospakizunetan.

454ko urtean erromatar Mendebaleko kaisertzan III In Balentiniano bekaizti, erromatar Aezio gudal nagusia il eban, onek aunditasunezko ospea artzen egozanagaitik.

454ko urtean Teodomiro bisigodoak, Koruñako lurraldearen Nedao uriaren inguruan menperatu ebazan Unoak.

455eko urte onetan III In Balentiniano bera be il eben, eta beren ilketatik 476ko urteraiño aukeratu ziran bederatzi agintariak, Suebotar Rizimer gudal nagusiak aukeratu koak ziran, bera izan zalako erromatarren benetako agintaria, naita berak kaisertzazko izenburu ori artu ezin, jermanoa zalako.

455eko urtean Epailako 17an Flabio Aniziotar Petronio Maximok⁽³⁾ igon eban erromatar kaisertzara.

Onek, bere laguna zan III In Balentinianoren kalte jokatu eban, ta 455eko urtean Epailaren 16an il ondoren, iru illabete jaurkitu eban erromatarren mendebaleko kaisertza, arik eta bandaloak il eben arte. Eta bera izango zan Mendebaleko kaisertza, amaierara bideratuko ebana.

455eko urtean Jorriallaren 22an il zan Petronio Maximo.

455eko urtean Jorriallaren 25ean Jenseriko bandaloa, bere gudalozteakaz sartu zan Erroman, eta arrapaketan dabillega, I Leon Aita Santu Aundia parka eske beragana joan zalako esker, Jensenrikok ez eban Erroma saskildu.

(1) Marzian = 392ko urtean Trazia edo Ilirian jaio zanetik, 457ko urtean Urtarrillaren 27ko egunerarte bizi zana, eta kaisar lez 453ko urtetik, 457ko urtean Urtarrillaren 27ko egunean il zan arte. (2) Jenseriko bandaloa = 428-477 urte bitartean bandaloaren erregea izan zana. (3) Flabio Aniziotar Petronio Maximo = 396ko urtean jaio eta 455eko Jorriallaren 22an il, eta kaisar lez 455eko urtean Epailaren 17tik-455eko urtearen Jorriallaren 22rarte.

455eko urtean Uztaillaren 8an igon eban Marko Mezilio Abitotar Eparkio⁽¹⁾ Mendebaleko Erromatar kaisertzaren aulkira Bisigodoen laguntzagaz.

Eta 456ko urtean Urrillaren 17an, erromatar Rizimero gudal nagusiak kendu eban kaisar aulkitik.

Piaenzaren inguruan, borrokan menperatuta, Rizimerok, Abitotar Eparkiori parkatu eutsen bizitza, lekaidetzaren jantzia ipini egian beartu ostean, Piaenzako gotzai izan zedin Turseko Gregorioren gora beran, Abiotar Eparkiok, beren bizitzagaitik bildur, Galiara igesko alegiñak egiten egon zanean il zala esan arren, beste batzuk, Rizimero berak ito edo goseagaz il ebela esaten dabe.

457ko urtean erlijiozko bidai baten egin eban zauri bategaz gangrenatuta il zan Pulkeriagaz politikaren elkargo betegaz baldintzapenduta bigarrenez ezkondu zan Marzian Augustus kaiserra, Pulkeriak Jainkoari eskeiñita euken birjintasunezko ziña, bera ondorengo lez aukeratu ebenean, beti lotsean artu bear ebalako, Pulkeriaren ostean kaisertzaren aulkian ezarri gura ba eban.

Ortodoxo eleizak Otsaillaren 17an ospatzen dau Marzian ta bere Pulkeria emaztearen santutasunezko eguna.

Marziano Augustusen kaiserragaitik esaten dabe, sekula ez zala arduratu Mendebaleko kaizertzagaz, baiña ez da egi guztia, 453eko urtean bera ibili zalako Atilaren eriotzazko inguruan.

457ko urtearen Urtarrillako 27an, alanotar gudal nagusi Asparrek igongo eban erromatarren ekialdeko kaisertzara, traziotar I Leon Iltzaillea, Konstantinoplako jaurkintzan Asparrek euki eban kontrolagaz, lengurasoen bereinkapenagaz igongo ebezalako aukeratzan ebazanek kaisertzaren aulkira, len erri, senatu ta gudal nagusien aupadakin igoten ebezanek.

457ko urtearen Otsaillako 7an koroatu eben I Leon⁽²⁾, eta isauriotarren Tarasikodissagaz alkartuta, 466ko urtean bere Ariadna alaba zarrenagaz ezkondu ondoren, Zenonen izena artu ebenakin asi zan jaurkitzen Ekialdeko erromatar kaisertza, batera Aspar eta bere laguntzaille ostrogodoaren eragipenetik askatzeko.

I Leon Iltzaillaren aginpean, sarritan erreko zituzen Balkaneseko mendikateak ostrogodo ta unoek, baiña ezingo eben Konstantinopla menperatu, II In Teodosiok egin eutsesan ormak, gogorregiak izan ziralako eurentzat.

457ko urtean bisigodoek, Nobenpopulania⁽³⁾ ta Akitania Sekundako⁽⁴⁾ lurrak menpetuko ebazan.

457ko urtearen Jorraitillan igon eban Rizimero gudal nagusiak, Mayoriano´tar Julio Balerio⁽⁵⁾ erromatarren kaisar aulkira, baiña Ekialdeko kaisar I Leonen borondatearen aurka igon eban lez, I Leonek, lapur edo kentzaille lez artu eban.

(1) Marko Mezilio Abito tar Eparkio = 385 urte inguruan jaiotako, eta 455eko urtean Uztaillaren 8tik - 456ko urtean Urrillaren 17rarte. (2) I Leon Iltzaillea, erromatarren Ekialdeko kaiserra = 401ean jaiotako ta 474ko Urtarrillaren 18ko urte bitartean bizirik zana, eta kaisar lez = 457ko urtearen Otsaillaren 7an koroatu ebenetik, 474ko urtearen Urtarrillaren 18an il zan arte. (3) Nobenpopulania = Erromatarrek Galiako lurraldea 17 lurraldeetan banatu ebazanez, Akitaniaaren zati aundienetariko 9 errien artean osotzen eban lurraldea zan. (4) Akitania Sekunda = Galiako lurraldeak erromatarrek 17 zatitan banandutako lurralde bat zan, Loira ibai, Zebeneko mendikateak, Auñamendikateak eta Gaskuñako ur-kolkoaren arteko lurraldearen zati-bat zana. Beste zatia Prima zala esaten eben Erromatarrek. (5) Mayoriano´tar Julio Balerio = 420ko azaroan jaiotako eta 461eko Dagonillaren 2rarte bizirik zana, eta erromatar kaisar lez, 457ko urtearen Jorraitillatik, 461eko urtearen Dagonillako illearen 2rarte.

Mayoriano onek, lagunak euki arren, saltzaille geiago euki ebazan lagun orrein artean, eta bandaloen aurka ibili zanean II In Teodosiren laguntza artu ta Auñamendiak igarota, berak Kartajenako itsas kaian ondo antolatuta euken ontzidira joan zan, baiña saltzailleak oartuta Jenseriko euki eban itxaroten, eta sekulako porrota euki eban.

Mayorianok, Jenserikogaz siñatu ebezan bakeen ostean, berak ezer jakin bage artzen egon zan ospegaitik, Rizimero⁽¹⁾ bekaizti euki eban, eta au ez zan geldirik egongo.

461eko urtean Dagonillako 2an, Rizimeroren zirikitahunagaitik, Mayorianok Lonbardian eukezan gudalozteak matxinatu jakozan, eta gudariak beartu eban kaisertza utsaldu egian.

461eko urtearen Dagonillako 8an, Mayorianotar Julio Balerio, Rizimerok pozoituta edo berakoagaz il zan.

Jakigendun zelako maldaberea artzen egon zan erromatar kaisertza, kontuan baiño ez da artu bear, nor izan zan “Rizimero” au, ainbesteko almenakin, erromatar kaiserrak ipini ta kentzeko, bai eta nungo leiñuetatik agertu zan.

Sueboa izan zan Walia godoaren billoba au, eta or agertzen jaku ikusteko bear dogun argitasuna, erromatarren kaisartza, beste eritzi bateko eskuetan egoala jakiteko.

Eta euskal edestikoaren illuntasunak argitzeko, mendebaleko erromatarren edestia amaituta, Suebo, Bandalo, Alano ta Unoen edesti labur bat egingo dogu, euren izaerak argituz, euskal arazoaren ulermeneko argitasunean, zer esan aundia daukielako,

Baita euskaldunak erri lez, zelako garrantzi aundia daukan mundu onen egarrizko bakearen alegiñak agertzen diranean, bakoitzaren nortasunezko izaeraren aurkezpenak egiten diranerako.

Libiustar III In Sebero erromatar kaiserra, 420ko urtean jaio zan eta 465eko urtearen Dagonillako 15ean il. Pozoituta esaten dabe edestilari batzuk.

461eko urtean Zemendiaren 2an Rizimero erromatar guda nagusiek, Mayorinotar Julio Balerio pozoituta il ebanean izendatu eban III In Sebero au, Erromako kaisartzaren aulkira igon egian. Ekialdearen Konstatinoplako erromatarrak ez eben onartu.

461eko urtean, I Leon Aita Santu Aundia⁽²⁾ be il zan, eta bere lekua Ilario Aita Santuak⁽³⁾, I Leonen aurreko III In San Sixtoren⁽⁴⁾ laguntzaillea izan zanak bete eban, Efesoko Eleiz Batzarrean, I Leon Aita Santu Aundiaren eritziak gaitzetsi ebazanak, eta **monofisismoaren**⁽⁵⁾ eritzia onartuta, eritzi orren laguntzaille aundienean biurtu zan.

462ko urtean Bisigodoek, Narbonense Primako⁽⁶⁾ lurralde guztia menperatu eben.

(1) Rizimero guda maisua = Rekila printzearen semea eta Jermanotar Suebo leiñutik datorren erromatar guda nagusia bai-ta godoen errege Waliaren billoba izan zana, 405-472ko urte bitartean bizi, 456ko Mayorianoren denboran, bere guda maisutasunagaz kaisar guztien gainetik egon zana eta 459ko urtean erromatarren atzerritar-lejiosko gudaloztearen buruzagi egin ebenetik, 461eko urtean III In Sebero kaisertzan ipini ebanetik aurrera, berak ipini ta kenduko ebazan kaisar guztiak. Berak ez eban kaisertzara igoteko aukerarik euki Jermanoa zalako. (2) I Leon Aita-Santua = 440-461eko urteetan Aita Santua izan zana. (3) San Ilario Aita Santua, I Leonen ondorengoa eta 461-468 urte bitartean Aita Santua izan zana. (4) III In San Sixto = 432-440ko urte bitartean bizi zana. (5) Monofisismo = Jesusen izaeraren gora-beran, izatasun bat bakarrik egoala esaten dauan irakaspidea da, Vn Gizaldian Eutikek zaindu egiten ebana eta I Leonek bere “Dogmatica ad Flavianum”ean Jesusen izaera bien katolikotasunezko eritzia ezarrita, 451kako urtean Kalzedoniako Eleiz-Batzarrean MONOFISISMO ori gaitz-etsiratu zana. (6) Erromatarren jaurkitzarako ipinitako izena da = Robine ibaiaren alde bietako ur-bazterren lurra dira.

465eko Dagonillaren 15ean, Rizimero erromatar gudal nagusiak, IIIIn Libiustar Sebero il eban pozoituta, 16 illabeteko utsuna sortuko ebanak erromatar mendebaleko kaisertzan, I Leon Ekialdeko erromatar kaiserraren laguntzagaz 467ko urtean, Antemino mendebaleko kaisertzara igon arte.

466ko urtean Euriko bisigodoak, bere anai Teodoriko il ondoren igon eban bisigodoaren erregetzazko aulkira, eta Loira ibairañoko Galia, ta Rodano ibaitik, Lur Arteko itsaso ta Italia bitartean dagon probenzako lurraldeak menperatu ostean, Arrianismoa besarkatu eban bisigodoaren erlijio lez, bisigodoaren leen legebilduma argitaratuta.

467ko urtearen Jorraillako 12an igon eban Prokopiotar Antemio⁽¹⁾ kaisertzaren aulkira, Ekialdeko erromatar I Leon kaiserraren laguntzagaz.

Edestilariak, Prokopiotar Antemio au erromatarren mendebaleko jaurkintzan, almenezko asken kaiserra izan zala esaten dabe, aurrean euki eban ikusmena, lokatz andikoa izan zalako, erromatarrai orrrarte kalte aundiak egiteko aurrean euki ba ebezan, indar gitxi eta antolabageko Suebo, Bandalo, Alano, Uno ta Godoetatik, oraiñ aurrean eta Auñamendiko albo bietan agertzen zirenak, Eurikoren Bisigodoak eta Afrikako iparraldean garaitu eziñean ibili ziran Bandaloak Jenserikogandik bideratuta euki ebazalako.

A ta guzti, itxaropen aundiagaz jaió zan bere jaurkintza, Prokopiotar Antemio, Rizimero erromatar gudal maisuaren alabagaz ezkondu zalako, eta Iliriako Martzeliño ta Riotamonen Britaniako erromatar gudalozteak lagun lez artu ebazalako, Eurikori aurre egiteko.

Eurikok baiña, laguntza guzti orreik menperatuz gain, Frantziako lurraldeetan, Galia-ko ainbat erri artu ebazan.

468ko urtean gaiñera, lur arteko itsasoan itsasoketazko salerosketetan Bandaloen ekin-tzak keiñatzaile agertzen ziran lez, Afrikako iparraldetik bandaloak botateko, Ekialdeko I Leon kaiserra Mendebaleko erromatar Antemio kaiserragaz bat eginda, ekialdetik Basilisko gudal nagusia ta mendebaletik Martzeliño gudal nagusia beren itsas gudalozteakaz bialdu ebezan.

Lenengotan, Jenseriko Bandalo erregearen aurkako erasoak itxaropenezkoak agertu arren, Jenserikok Kartagon, Basiliskoren itxas ontzidia ezereztu eban, eta ortik agertu jakien erromatarrai bialdu ebezan gudaloztearen ondamendi osoa, Martzeliño bera, Siziliako ugar-tean baten batek ilda.

Mendebaleko Prokopiotar Antemioren ustean barriz, zoritxar guzti onen ostean, bera baten batek sorginkerituta, gaxo aldi gogorrean sartu ebalako zala, gogoratzten asi zan, eta gizon aundi askorengatik ordainzkatu⁽²⁾ zan.

Dana dala, ondamendi onek dirutan 130.000 urrezko liberaren balioa euki eban, eta or asi zan erromatar Mendebaleko kaisertzaren ondamendia.

470eko urtean Rizimerotar gudal maisuak, gauza guzti onekaz gogaituta, Bandaloaren aurkarako zerrendatu ziran 6.000 gudari artuta, Milanetik asi zan gudan, Antemio Erroman egon zan bitartean.

Bost illabete beranduago amaitu zan mendebaleko Kaisertza, bere gudal nagusien arteko borroka au, Rizimerrek Erroman sartu eta Prokopiotar Antemio il ebanean.

(1) Prokopiotar Antemio = 420 urte inguruan jaió eta 472ko urtearen Uztaillaren 11n il, eta mendebaleko erromatar kaisar lez 467ko urtearen Jorraillako 12tik 472ko urtearen Uztaillako 11narte. (2) Ordainzkatu = vengar.

471ko urtean Ekialdeko kaisertzan, Aspar gudal nagusiaren izarra ostera dirdiratu zan, eta bere seme Patrizio I Leonen bigarren alabagaz ezkondu, bere izena zezarren izenburuagaz goraldtu eben, I Leon kaiserraren ondorengo lez geratuta.

Baiña Konstantinoplan laster agertu zan jermaniatarren aurkako mogimendu bat, eta I Leonek, Aspar eta bere seme Ardaburren eriotzak agindu ebazanean, Patrizio Asparren lenengo semea bere emaztearekin bananduta, ozta ozta eta larri zaurituta iges egin eban.

472ko urtearen Uztailako 11n il eban Rizimerrek, Prokopiotar Antemio kaiserra eta bere ondorengo lez Flabio ta Aniziotar Olibrio izendatu eban.

472ko urtearen Epailako 23an, Rizimero gudal maisuak, III In Balentinianoren alaba Plazidiagaz eta gero Lizinia Eudoxiarekin ezkondu egon zan Flabio ta Aniziotar Olibrio⁽¹⁾ ipini ebanean bere borondatearen aurka kaizertzazko aulkian, Ekialdeko erromatar I Leon Aundia⁽²⁾ traziatar kaiserrak, Prokopiotar Antemio eta bere aitagierraba Rizimero gudal maisuaren artean bitartekoak egiteko agindu eutson, eta garazketa orreitan ibili zanean bere leikide Prokopiotar Antemio il ebelako, amaitu jakozan aitzaki guztiak, eta kaisargotzaren jaurkintz ori artu bear izan eban.

472ko urtean Urrillaren 23an il zan Flabio ta Aniziotar Olibrio berezko gaitzaldi bategaz.

472ko urte onetan Euriko bisigodoa, Iruña kontrolatzeko alegiñetan asi zan, eta luzero ibili arren ez eben lortu.

473ko urtean Epailako 5ean igon eban Erromako kaisertzara Glizerio⁽³⁾, burgundioaren edo Borgoñako Gundebaldo printze edo erregearen laguntzagaz.

474ko urtean Urtarrillaren 18ko egunean il zan sabelberaren gaixoagaz Ekialdeko I Leon kaiserra 73 urte euki ebazala, kaisertzaren aulkian Zenon eta bere emazte Adriaren seme II In Leon ipinita.

474ko urtearen Bagillan, Nepotetar Juliok kendu eban Glizero mendebaleko kaisertzatik, eta Salonako gotzaia eginda gero, Milaneko gongotzai edo artxapezpikua izan zan.

474ko urtearen Dagonillako 26an II In Leon ekialdeko kaiserrak, Nepotetar Julio⁽⁴⁾ ipini eban mendebaleko erromatar kaisertzan, 474, 475eko urte bitartean jaurkitu ebena.

474ko urtearen Azaroaren lenengoetan gaixotuta il zan II In Leon, 10 illabetetan ekialdeko kaisertza jaurkitu eta gero, bere ondorengo lez, Isauriko Zenon⁽⁵⁾ igonda ekialdeko kaisertzaren aulkira.

475eko urtearen Dagonillako 28an Nepotetar Juliok, Orestes Atilaren gudal burua igon eban erromatar gudal maisutasunera⁽⁶⁾.

(1) *Flabio ta Aniziotar Olibrio = 3^o-472ko urtean Urrillaren 23ko urte bitartean bizi zana, eta kaisar lez, 472ko urtearen Epailako 23tik, 472ko urtearen Urrillako 23rarte. (2) I Leon Aundia Traziatarra = 400-474ko urte bitartean jaio ta bizi zan, eta Ekialdeko erromatar kaisertzaren agintari lez, 457-474ko urte bitartean. (3) Glizerio = 420ko urtean jaio ta 480 urtearen ostetik il zana. 473ko urtean goratu eben Kaisertzazko aulkira eta 474ko Bagillan Nepotetar Juliok kendu, Salonako gotzaia eta Milaneko artxapezpikua izan zan. (4) Nepotetar Julio = 430eko urte inguruan jaio, eta 480ko Bagillaren 22an Dalmaziako andikiak il eban, Orestes gudal nagusiak kaisertzatik kendu ta gero. (5) Zenon Isaurikoa = 426ko urtetik, 491ko urterarte bizi zan. I Leon ekialdeko kaiserraren billoba izan zan, eta Ostrgodoen erasoetatik askatu ebanean ekialdeko kaisertza, anai ta erlijoaren arteko gudak be bakeztu bear izan ebazan, eta osteko 482ko urtean "Henetericòn" edo Alkartasunezko Agiria azalkatu ondoren, agiri onek Erromarekin alderdikeri edo bereizkeria sortu ebena. Bere koinatu Basiliskok kendu eban kaisergotzatik, urte bi barru ostera berrezkuratu ebena. (6) Erromatar gudal-maisutasuna edo **Magister Militum** eko gudal agintari nagusitza.*

Eta Dagonillako 28an, erromatarren guda maisutasunera⁽¹⁾ igonda egon zan Orestes matxinatu ta Rabenako uriagaz jabetu ostetik, 475eko urtetik aurrera mendebaleko kaisertzagaz be jabetu zan, eta kendu eban kaisertzazko aulkitik Nepotetar Julio, Dalmaziara alde egin bear izanda.

Denbora onetan Orestes guda-maisuaren gora beran, ez da ulertzen zergaitik ezin eban berak erromatar kaisertzazko aulkian ezarri, erromatarra izanda, ez ebalako jermanotarren izaerazko arrastoetatik, Atilaren guda nagusia izan zana baiño besterik euki, eta bere seme Romulo Augustulo⁽²⁾ kaisertzazko aulki orretan ezarri zedin egin ebazan alegiñ guztiak.

475eko urtearen Urrillako 31n, ekialdeko kaiserra Zenonek, sekula ez ebena onartuko 15 urtekoa zan Romulo Augustulo, Flabio Orestesen semea mendebaleko kaisar lez, Orestes berak ipini eban semea kaisertzazko agintaritzaz orretan, Nepotetar Julio itsasoz Dalmaziara aldatuta, andik, geratzen jakozan kaisertzaren lurraldeak jaurkitzeko, 480ko urterarte.

Oso denbora naastuak izan ziran auek, guda lozteko indarrean makaltzen asi ezkerro, etsaiak indartu egiten ziralako, eta naiko zeregiñ euki eban Nepotetar Julio onek Euriko bisigodoen errege ta bandaloen Jenserikogaz, Orestes bere guda maisuenetik kanpo.

476ko urtean Iraillako 4an, Zenon Isaurikoa ekialdeko kaisertza jaurkitzen egoala, eta Orestes mendebaleko agintaritzan bere semearen gaiñetik dana kontrolatzen ebanai, erulo, esziro ta torlinjioaren leiñuak joan jakozan Italiaren erdiko lurak eskatzen, eurak elkartasun antzeko baten bertan bizitzeko.

Eta Orestesen ezetza entzun ostean, Eruloen guda nagusia zan Odroakok⁽³⁾, Rabenako uria erasotu, Iraillaren 28an Orestes il eta bere seme Romulo Augustulo kaisertzazko aulkitik kenduta, Zenon ekialdeko kaiserrari eskatu eutson, bere egoera, mendebaleko kaisertzaren patrizioa eta Zenonen ordezkari lez legezta egiala, eta olan egin eban Zenonek, baiña Nepotetar Julio mendebaleko kaisar lez onartzen baeben baldintzagaz. Eta Odroakok alan bete eban bere agintaritzaz, atara egiten ebazan diru txanponetan, Nepoteren aurpegiaraz argitaratuta.

Flabiotar Romulo Augustulo, Orestesen seme au, 511ko urteraiño bizi zala uste da.

Bisigodo onek emendik aurrera, erromatarak jaurkitzeko euki ebazan era ta lege guztiak ezereztuko ebazan.

479ko urtean Nepotetar Julio kaiserra, Odroakoren aurka asi zan, Italiako jaurkintzaren

Odroako aurrean eukela, Romulo Augustulok bere kaisertzazko koroia uztean. kontrola lortu gurean.



(1) Guda maisua = *magister militum*. (2) Romulo Augustulo = 461-3ko urte bitartean Rabenan jaio, eta 476ko urtearen Iraillaren 4an Napolezen il. (3) Odoakro Erromatar basati leiñuen guda nagusia = 434ko urtean Sziron jaioa eta 493ko urtean Rabenan ilda, 476-493eko urte bitartean Italiako errege, Romulo Augustulo kaisertzatik kendu ebanean, Erromatar mendebaleko kaisertza amaitu zan, eta bera 489-493ko urte bitartean ostrogodoen errege Teodorikogaitik Rabenan inguratuta, menpekotasunezko itun bat egin ondoren eta janketa baten egoala il eban.

480ko urtean Jorraillaren 25an Nepotetar Julio, Odroako erromatar guda nagusia bere errigurasordetasunezko lekutik kendu gurean ibilita, onek gudaloztearen gudariak zirikitu ta Nepote bera il eban.

Eta olan amaitu ziran Europaren Mendebaleko erromatar kaisertzak, 1.229ko urtetan, odoljariozko menperatzailetasunaren joputasunezko eran jaurkitu ostean.

481eko urtetik aurrera bisigodo oneik, erdi-ugarte au asi ziran menperatzen Euriko erregearen agindupean.

Euskalerrian, Godoekin ez zan gertatu erromatarren indar aundiakin gertatu zan beste, oraingoan eta ainbeste urtetan erromatarren gudalozteetan lerrokatuta zeozer ikasi gendulako, eta oneik erromatarren antzera guda indar aundiak euki arren, gure mendietan sekula ez ziran sartu, gure arbasoen sasi gudak, buruko miñ aundiak emoten eutsiezelako.

484ko urtean Euriko bisigodoaren erregea il zan, eta bere seme II In Alarikok⁽¹⁾ igon eban bisigodoaren erregetzazko aulkira.

489ko urtean, Odroakok bere errigurasordeko izenez gaiñ, Italiako errege lez be izendatu zan, ekialdeko Zenon keiserragaitik onartua izan zana.

493ko urtean baiña, Odroakok Konstantinoplarekin euki ebazan artu emon onak okertzen asi ziran eta Ekialdeko Zenon kaiserrak ostrogodoari lagunduta, Teodoriko Aundiaren

gudalozteak, Odroakoren erregetzan sartu ziran, eta Odroakoaren gudalozteak Rabenan menperatu ta bera atxilotuta, Teodorikok Odroako il ondoren, bera ezarri zan Italiako errege aulkian.

507ko urtean Frankoen errege I Klobisek il eban II In Alariko bisigodoa, eta Klobis edo Klodobeo ori izango zan Frankoaren erregetzazko sortzailea.

Ainbat erromatar gudalozteetan borrokatu ziran euskaldunak K.a. Igizalditik aurrera, eta euken leialtasunagaitik guda nagusien bizitzak zaintzeko ainbat taldetan be ibili, euskal koorte⁽²⁾ ta lejiorearen kanpo.

Ez zan egon beste biderik euskaltasuna aurrera eroateko eta burua guztiz makurtu bariarik, keltiar eta erromatarren artean banandu gintzazan, emaitzak euskaldunen artean geratu zitezzen.

Erromatarrek, euren laguntasunagaitik euskaldunai, "togati" esaten eutsen, eta orreri esker ez ziran egon erromatar gudalozterik, erdi ugarte onen iparraldeko euskal lurretan.

Baita goian K.a. 89ko urtean ikusi dogun lez, Ponpeiok Askoliko uria artu eutsenean euskaldunai, zelan emon eutson erromatarren erritargoa.

Lenengo denboretan euskal oiturazko izaeraren galbidea zana, arik eta mauritarrak agertu ziranean oker guzti orreik, zuzentasunezko bidean sartu ginduzenak, eta euskerazko iztegitzazko neurri baten latinetuta geratu arren, gaurko alegiñ apur bategaz geienak zuzendu leikezanak dira.

Ez gintzazan euskaldunak sekula menpetasunean bizitzekoak, Estrabonek, Augustoren denboran egin ebazan zeazkuntzatan esaten eban lez.

(1) II In Alariko = 484-507ko urte bitartean errege zana. (2) Koorte = erromatarren 3 zenturitik 6 zenturira euki zituzen gudalozteko taldeak.

Eta 310, 395eko urte bitartean, Paulino Nolak bere aolku emaille ta Decimo Magno Ausonionen artean idazten ebazan ezkutitzetan agertzen dan lez: euskaldunak, askatasunezkoak izanez gaiñ, “Ezi Eziñak edo Ezi Gaitzezko Arimak giñela” eta “sekula ez gintzazala erromatar menpekotasunean egon” gizakiak giñela esaten ebanean.

Badago Apiano erromatarrek esanda, beste ikutu bat ondo jakin bear doguna.

Apianok peninsula oneri Iberia lez aipatuta, esaten dauanean: Aundia dala lurraldez eta siñest eziñezkoa erri batena bakarrik izatea, bere zabaltasuna 10.000 jolastokiren neurrikoa dalako eta luzeetara, zabalerako beste ainbestekoa.

Erri batena esaten dauanean, norena dala esango ote dau?: Iberoena?, Keltiarena?, euskal Tartesoarena?, ala, Eskoziako Euskal Piktoaren ugarteetatik, Kadizerañoko Euskaldunenagaitik berba egiten dau?.

Bisigodoak be, 300 urte luzeetan ibili ziran ekintza gogorrean euskaldunen aurka, errege bakoitza bere kaisar aulkira igoten ebanean, guzur utsazko izan ziran “Et Domit Vascones” en esan bearreko berbakaz igonda, euren erregetzazko aulkira.

710,732ko urte bitartean eta Eudon Aundiaren Baskoniako erregetzan, Salduba edo Kaesaugusta izango zan bakarrik erromatarren legebidea babestuko ebena, IIn San Gregorio Aita Santuak Erromako errege lez esanda.

Eta ez gendulako ezer galdu gure Askatasunezko Demokraziaren izaeratik, beti gureganatu genduzan, euskaldun lez daukaguzan berezizko zentzuak, gaur ere egingo dogun antzera, askatasunezko demokraziaren Nortasunean lokaztu edo galdu doguzenak berrezkuratzeko.

10. Sueboen alderraiezko etorkizuna.

Sueboen izaerazko berezitasuna, Europaren iparraldeko jermaniar erribatekoa zan, euren leñuen leen Ekialdeko ezarpenaren zorotasunezko lurraldetatik igeska, Baltiko itsasoaren inguruan egokitzen dana, eta erromatarren gora beran *Mare Suebikum* lez agertzen dana.

Euren alderraiezko ibilbideetan, egoalde ta mendebalerantza bideratu ziran, Alemania-ko lurraldeetan geratuta.

Oraindiño daukie Alemanak antziñeko Wurtembergeneko erreñuan lurralde bat, Suabia deitzen dana, gaur Baden Wurtemberg-en alkartutako laterrian biurtuta dagoena, eta Babieraren egomendebaleko inguruagaz osotzen dana.

Galiziako Koruñan eta La Barkalan be, badagoz eleiza bi eta lau erri sueboen izenakaz, eta baita Asturiasen, Suebe mendikatea.



V-VIn gizaldietan, Sueboen erregetzazko mugak, eta erromatarren jabetzazko lurraldeak.

406ko urtearen Abenduan eta Ermerikoren agindupean, Alano, Bandalo, ta Abaroak batera, Magunziaren inguruan izoztuta egon zan Rin ibaia aldatu eben, Erromatarren kaisertzazko lurraldetan sartuta, ta urte bi inguru ibili ziran Galiako lurraldetatik, lapurrezko ebaskerian.

409ko urtean Sueboak, Bandaloak eta Alanoakaz batera, mendebaleko Auñamendiak aldatuz, erdi ugarte onetan sartu ziran, eta euren lapurketak eginez gaiñ, lurralde bat aurkitzen ibili ziran euren leiñuen bizitzak egokitzeko.

Eta 411ko urtean suebo ta asdingotar bandaloak, Galiziako lurraldetara joanda, erromatar Onorio kaiserragaz itzarren bat sinatu ondoren, Portugaleko Braga aukeratu eben euren erriko lurralde lez, bear ebezan jaurkintz politikuak egiteko.

Laster agertu ziran eztabaidak bandaloarekin, eta oneik Betika edo Kadizera joanda, Afrikako erromatarren lurraldeetara aldatu ziran.

Erregetzazko erea zan eurak euki eben jaurkintzazko eritzian, eta erri lez euren bizia Ermerikotik, Andekaren erregetzaraiño iraun eban, arik eta 585eko urtean Leobijildo

411-438 urte artean, Sueboen erregetzazko sorkuntza.

Erdi-ugarte onetan, Sueboaren erregetzazko lurraldeak ori-urdiñezko margo argitsuan.

Bisigodoak euren erreñuan sartu ta erria erraustu ondoren, Andeka arrapatu ta eleiztarrak ez ebelako aukerarik errege izateko, Leobijildok Andeka apaizgotzeko ulea koroï eran⁽¹⁾ moztu eutson, eta Portugaleko Baixo Alentejoko lurraldearen gotzai-barrutira⁽²⁾ bialdu eban bere zeregin barriagaz.

416ko urtean, erdi ugarte onetan bisigodoek egindako sarraldiagaz, Onorio erromatar kaiserrak, Bandalo ta Alanoen aurkako borrokak egitea agindu ebazan, Sueboen zabaltasuna eragin ebana, eta Galiziako erregetza ori Merida eta Sebillaraiño elduta, Sueboen leiñuak euren bizitzan eukan zabaltasun aundiena lortu eben.

418ko urtean Sueboak, Duero ibaiaren ao edo bokale⁽³⁾ eta Bigoko ugalde edo kresal obaiaren⁽⁴⁾ bitartean kokatuta egon ziranen, Bisigodoak alde egin eben erdi ugarte onetatik Akitianian ezartzeko, eta Bandaloak agertu jakiezan sueboai Nerbasoko mendietan borrokarako prest.



(1) Koroï eran ulea moztu = tonsura, o tonsurar. (2) Erromatar denboran Bejako Pax-Julia izan zana. (3) Ao edo bokale = desembocadura del rio Duero. (4) Bigoko Kresal-obai = ria de Vigo.

Bandaloak garaipendu ziran borroka orreitan, eta ez zan eldu Sueboen ondamendia, erromatarrek euki ebazalako euren alde.

Bandaloak, urten eben erdi ugarte onetatik Afrikan kokatzeko, eta Sueboak geratu ziran bakarrik erdi ugarte onen mendebalean, leiñu basati edo odolzale lez.

438ko urtean Ermerikok sueboren erregea ainbat borrokakaz gogaituta, bere seme Rekilari emon eutson erregetzaren ondorengotasuna, eta beragaz lortu eben sueboak euren zabaltasun aundiena.

441eko urtean Rekila Sueboen erregea, kristautasunera aldatu zan, eta lurralde batzuk erromatarrei kenduta, Sebilla aukeratu eban bere uri nagusi lez.

446ko urtean Rekilak bere indarrezko zabaltasunean, Portugaleko Bragan euki eban bere uri nagusia, lusitaniako Meridara aldatu eban, eta erromatar Bito gudal nagusiari irabazi eutson, onek euren zabaltasun ori, geratu gura ebelako.

448ko urtean il zan Rekila au, eta bere ondorengo lez bere seme Rekiariok igon eban Sueboaren erregetzazko aulkira, eta I Teodorikoren alabagaz ezkondu, bere erlijio lez besarkatu eban katolikotasuna.

453ko urtean Rekiariok, erromatarrekin sinatu ebezan bakeak Kartajineseko lurraldeak eurori emonda.

456ko urtearen Urrillan baiña, Rekiaro damutu egin zan kartajineseko lurraldeak erromatarrei emotezagaz eta ostera erasotzea erabagi eban.

456ko urtearen Urrillako 22an, erdi ugarte onetan Sueboek egindako triskantzak geiegizkoak zirala ta, II Teodorikoren bisigodoak sartu ziran erdian, eta Astorgaren uri.

Koinbrako uriaren armarría, eta Klodobeo⁽¹⁾ Frankotar erregearen aldaketa edo biurkera katolikotasunezko erlijioara.

Ondoan aldatzen dan Orbigo ibai inguruan, Rekiaroren sueboak menperatu ondoren, atzetik euren arrapaka joanda Braga uri nagusia saskildu eben, Rekiario bera be ilda.

Agiulfok artu eban Sueboen erregetzazko agintaritzá, eta lapurkerizko bideetan sartuta, ainbat indarkeriaren oldarkeriak eginda, euren anai arteko gudan sartuazo ebazan.

Urrengo urteetan, ainbat borroka egin ebezan euren artean erregetzazko aulkian ezarri naian, bisigodoak be artean zirala, eta Remismundo sueboen errege lez aukeratuta, lortu eban erregetza ori alkartzea erdi ugarte onen mendebaleko iparraldean, arrianismoaren erlijioa besarkatuta.

466ko urtean Sueboak, siñesgabe ta priszilianistas edo Prisziliano ziñausle buruaren⁽²⁾ jarraitzaileak izan ziran geien, arik eta Remismundo sueboaren erregeak, bisigodoen errege In Teodorikori eskatuta, onek Arian Ajax mixiolaria bialdu eban arte, ortik aurrera arrianismoaren jarraitzaile biurtu ebazalako.

469-558ko urte bitartean zeaztasuneko argibidearen eza aundia dago, Teodemundo erregearen izena bakarrik aurkituta.

559ko urtean Karriariko erregeak, katolikotasunezko eritzia sartu eban berriz Suebo errian⁽³⁾, berak oso makal euken seme baten bategaitik, Tourseko San Martiñeri eskatuz eta gaisotuta egon zan umeari San Martiñen ondar batzuk ekarrita, osatu zalako.

559ko urtean Sebillako gotzaia Isidoro Santuak⁽⁴⁾ esaten dau, Dumio gotzaiaren eragipenagaz, Teodomi⁽⁵⁾ sueboaren erregea izan zala lenengo errege katolikua, 561eko eleiz batzar nagusia batu ebena, eta bere bizitzaren askeneko urtetan, Leobijildoren⁽⁶⁾ eraso gogorrenak artu ebazana.

Vn gizaldiko amaieran eta VIn gizaldiko asieraren arteko urteetan, anglosajoiaren erasoagaitik eta Britaniatik iges etorritako keltiarak, Eo ibai eta Ferroleko kresal ibai artean Luzenzeko⁽⁷⁾ lurraldeetan asi ziran sartzen.

Keltiar oneik, Luzenze edo Lugoko lurraldean, Britonia edo Pastorizako errian dagon euren Bretoñako Santa Mariaren elizako lurretan antolatu ziran, euren bizitzak aurrera eroateko. Eta Suebon erregetzagaz euren artu emona ezagutzen dogu, Mailok keltiar gotzaia 561 eta 572ko urtetan, Bragako leen eta In eleiz batzar nagusietan egon zalako. 560ko urtean Teodomi⁽⁵⁾ sueboen erregeak, katolikotasunean ondo jabetuta egon zanean, lekaidetxe batzuk sortarazi ebazan, euren artean Braga ondoan dauan Dumiuñeko⁽⁸⁾ lekaretxea, bertakoa izanda ***“Sueboaren bidali edo apostolua”*** ezizenagaz ezagutzen zan Bragako San Martin gotzai ospatsua, Suebo guztien antzera, Panonia edo Germaniako Dazia, Mesia, Iliria ta Norikako lurraldetatik etorritakoa zana.

(1) Klodobeo = 466-511 urte bitartean bizi zana eta 481-511 urte bitartean Frankoen errege. Txildierikoren semea zan, Klotilde printzeagaz ezkondu zanean, katoliko biurtu ebana, 486ko urtean Frantziaren lurralde Soissons erromatarren aurka garaille urten ebana, gero Loira ibaitik gora dauan Britania edo Armonikako lurraldeak menperatu ebenak eta In Alarikori irabazita il ondoren. Akitaniako lurraldeak bereganatuta, Frantziko erregetzaren sortzailea izan zana. (2) Priszilianistas edo Prisziliano-ziñausle-buruaren jarraitzaileak = seguidores de Prisciliano el apóstata = renegado, hereje, prevaricador, perjuro, infractor de un juramento. (3) Tourseko Gregorio Santak esaten dauan lez. (4) Sebillako San Isidoro gotzaia = 560ko urtean Kartajenan jaio ta 636ko urtean Sebillan il. (5) Teodomi⁽⁵⁾ erregea = 570eko urtean il zana, eta baleiteke Tourseko Gregoriok esaten dauan Karriariko (559) erregea dala. (6) Leovijildo bisigodoaren erregea = 586ko urtean Toledon il zan, 568-573 urte artean bere anai Liubagaz errege izan zana, eta bakarrik 573-586ko urte bitartean. San Ermenejildo ta I Rekadoren aita eta ispaniako-godoaren erregetza sortu ebena. 572ko urtean Kordova kendu eutsen erromatarrei, eta Orense sueboari. Bere seme Ermenejildo il eban katolikotasunetik ez ebalako arrianismora aldatu, eta gero berak limurtu eban bere beste seme I Rekada, katolikotasunera aldatu dagian, ortik kanpo gatz izan zalako erdi-ugarte onen kaisertzaik osotu. (7) Luzenze = Lugo, Lugues. (8) Bragako Domiuñ = San Marti, sueboen edatzaile edo apostoluak Bragako lekaidetxea irasi ebena.

561eko urtean Teodomiro erregeak, Bragako I Eleiz-Batzar Nagusiak ospatu ebazan Prizialinismoaren ekanduzko arauak argitzeko, eta arrianismora euren bizitzak bideratzeko.

567ko urtean Teodomiro erregea Dumium lekaretzeko apaiz-buru zala, erregetzaren gotzai guztiak asi ziran bere izena aldarrikatzen, eta alan izendatu eben Bragako uri nagusiaren gotzai lez.

569ko urtean Teodomiro sueboen erregeak arrianismoa bideratu gurean, Lugoko II In Eleiz Batzar Nagusiak ospatu ebazan.

570ko urtean Leobijildo bisigodoaren erregeak, Sueboen aurka asi zan.

572-574ko urte artean Leobijildok, Dueroko ibarrak erasotu ebazan, Sueboak iparralderuntz bultzatuta. Batera Miro erregeak, Bragako II In Eleiz Batzarrak ospatu ebazan, erabagi artean eleiz geiago eraikitzeke aginduta.

Ortik argitzenda, zelan bisigodoen izenagaz dagozan eleiz asko, Sueboak egindakoak direla.

575eko urtean bisigodoen errege Leobijildoren gudalozteak Orenseko mendikateetik, suebo erregearen ardurazko lurraldeetan sartzen asi ziran, eta ango Araukonaren edo Arejenesaren⁽¹⁾ mendietan, Aspadius izena euki eben suebo jauntxoak bere sendi osoarekin atxilotuta, Miro Sueboen erregeak⁽²⁾, bakeak siñatu ebazan Leobijildorekin.

Eta 576ko urtean, Aspadius jauntxo ori askatzeko borrokan asi ziran leiñuak, bakea eskaiñi eutsoen Leobijildo bisigodoaren erregeari, eta Uelba ta Jaen bitartean dagozan Morena edo Mariana mendikatearen mendebaleko Orospeparen leiñuen nekazariak matxinatu ziralako, 577ko urtean Leobijildok sueboakaz siñatu ebazan bakeak, Miro sueboaren erregea bere gudalozteakaz, bisigodoen menpe geratzeko baldintzagaz siñatu ebazan.

Euskaldunen lurra erdi ugarte onetan.

Erdi ugarte onen Ekialdeko Sueboaren lurraldeak.

Bisigodoaren menpetasunezko lurraldeak.

Eta erromatarren lurra.

578ko urtean Miro sueboen erregeak, aitaren aurka ibili zan Leobijildoren seme Ermenejildori laguntzeko, Sebilara joan zan Leobijildo bisigodoaren aurka, Leobijildok baiña, Mirok eukezan gudalozteak inguratu ebazan, eta Miro sueboen erregea menpekotuta,

Leobijildori lagundu eutson Sebillako uria artzen, Ermenejildoaren aurka.

583ko urtean Sueboen Miro erregeak, Leobijildo bisigodo erregearen seme Ermenejildo katolikuari lagundu eutson berriz bere aitaren aurka, eta Leobijildo aitak, Ermenejildo semea atxilotu ostean, eukezan erregetzazko ondorengo guztiak kendu eutsozan.

583ko urtean Miro il edo erregetzaren aulkitik kanporatuta Eboriko bere semea egin eben sueboen errege, Leobijildogaz bakeak siñatuta.

(1) Araukoiak edo arenjenesak = giza-leiñuak emon eutsoen izena mendi arei. (2) Miro = ¿?-583ko urte bitartean bizi zana eta Sueboaren errege lez 570-583 urte bitartean, arik eta Sebillan, Ermenejildo, Leobijildo semesaren aurka ibilita Sebillan il zan arte. Tourseko Gregorio Santauak esaten dau, Miro erregea bere Galiziakoluraldeetara joan zala eta bertan il.

584ko urtean Eboriko sueboen erregea, bere koñatu Andekak⁽¹⁾ kendu eban errege aulkitik, eta Andekak, Eboriko lekaidetxe baten sartuta, Eborikoren arrebeagaz ez-konduta egon zanetik, Eborikoren emazte Sisegutia andreagaz ezkontzera aldatu zan.

585eko urtean Leobijildo bisigodoen erregeak, Frantziren Borgoñako lurraldean Borgoñesakin euki eban borrokan, bere seme I Rekaredoren arduratan itzita, bera Suebo erregetzaren aurkako erasora joan zan.

586ko urtean Leobijildok Sueboen erreinua erraustu ta menperatu ondoren, Andeka erregea arrapatu eban apaiztuteko, eta koroi eran ulia moztuta, Bejako Pax Julia lekaretxera bialdu eban, apaiztutako erregeak, ez ebelako errege izateko geiagoko aukerarik.

Leobijildok bide batez, Borgoñako Gontran itsaslariak salerosketarako euki ebazan itsasontzi guztiak urperatu ebazan, eta Sueboak euki ebazan lurra eta altxorrezko diruketa guztiak bisigodoaren eskuetara aldatuta, sueboen erreinua bisigodoaren lurralde bat izatera aldatu zan, Toledoko Bisigodoaren kaisertzazko menpe.

Teodomiro sueboaren erregeak, bere aita Miro erregearen denboran, sueboak katolikotasunera aldatuta euki ebazalako, Leobijildo bisigodoaren erregeak, arrianismoaren eritzia ezarri eban bisigodo ta sueboaren erlijio lez, eta ainbat arriano gotzai zabaldu ziran sueboen lurraldeetan.

586ko urtearen Jorraillako 13an Leobijildok, bere seme Ermenejildo Austrasiako Sigerto erregearen alaba Ingundagaz ezkontuta, eta San Leandroren eragipenagaz katolikotuta egon zanari, Leobijildo aitak, arrianismoaren eritzira aldatu egiala beren sinismena agindu eutson Ermenejildori, eta onek ez ebalako aldaketa ori egin, aitak bere erregetzazko ondorengoaren eskubidetik kenduaz, ainbat denboran aurkarituta egon zan aitagaz Ermenejildo, eta Leobijildok semeagaz euki eban azkeneko borrokan, semea menperatuz eta atxilotu ostean, onek ez ebelako arriano gotzaiaren eskuetatik Jau-narik artu gura, aitak, semearen lepoa moztuteko agindu eban. Ermenejildo santuaren eguna, Jorraillaren 13an ospatzen da.

587ko urtean, Leobijildok bere seme Ermenejildo katolikua il ondoren, eta bisigodoen kaisertza aurrera eroateko bere arrianoren erlijiozko eritzitik katolikotasunera aldatuta, bere beste seme I Rekaredori limurkeriz buruan sartu eutson, katolikotasunetik kanpo, gatz izango zala bisigodoaren kaisertza aurrera eroatea, eta I Rekaredok 589ko urtean Toledoko IIIIn eleiz batzar nagusiak ospatu ta arrianismoa sustraikatuz, katolikotasuna ezarri eban bisigodotarren erlijio lez, eta sueboaren arriano gotzai erdiak⁽²⁾, katolikotasunera aldatuta, danoen edo arriano ta katolikotasunaren arteko bizitza alkar eta bakez eroan eben.

Sueboek matxinatuta, zaldizko, mazal edo gizatsu⁽³⁾ izan zan Malariko jauna izendatu eben errege, an egon ziran bisigodoak baiña, laster bakeztu eben matxintasun ori, eta or amaitu ziran Sueboen erregetzazko aldiak.

586ko urte orretan eta bisigodoaren erregetzazko Toledoko urian il zan Leobijildo erregea, bere ondorengo lez I Rekaredo bisigot kaisertzazko aulki orreitara igonda.

(1) Andeka = Odiakka. (2) Lau gotzai esaten dabe, arrianismotik katolikotasunera aldatu ziralako. (3) Zaldizko, mazal edo gizatsu = caballero, noble, Hombre instruido.

11. Bandaloen alderraiezko etorkizuna.

Bandaloak, Europa erdiko Germaniar leiñu edo erri bat zan, K.o.Vn gizaldian Galiako lurraldeak igarota ta erdi ugarte onetan sartuta, Guadalkibirreko ibarretan kokatu ziranak, arik eta Jenserikok bideratuta, Afrikako iparraldearen gaur Tunez dan lekuan euren erregetza ezarri arte. 534ko urtean, erromatarrek ezereztu eben Bizanzioko kaisertza.

Bandaloen sortarazia.

Lugiotar edo Bandaloak, antziñako jermaniaren erri bat da, Itsas Baltzaren iparraldean dauan Azob itsasoaren bazterrekoak, gero Baltiko ingurutik, Bistula ibaiaren mendebalean ta Oder ibaiaren ondoan Boemiaren iparralderaiñoko lurraldetakoak.

Lugioak edo Bandaloen itzak, esangura bi daukoz:

Bandaloen itzak: a) *Aldatzen diranak*, eta b) *Trebe edo Esku Onekuak*.

Lugiotar itzak alderantziz: a) *Guzurtiak*, eta b) *Elkargo edo Elkartasunezkoak*.

Esan orreik berez agertzen dabe zer izan edo ainbateko leiñuaren elkarte zala, euren arteko izenak esaten dauan lez: *Silingo, Bandulio, Omano, Buro, Barino, Diduno, Elbekoiak, Ario, Txarino, Manimio, Elisio ta Narjabalarenak*. Gero, K.o.IIn gizaldian Bandaloen izenagaz batu zirenak.

Godoen agerketak bultzatu ebazan, eta bandaloak Itsas Baltzaren baztarrean kokatuta, godoakaz auzo eta geienetan eurakaz kide izanda, ermunduro⁽¹⁾ leiñuen laguntzagaz, K.o. 84ko urtetik Suebo ta Kuadoen aurka joanda, aldikada baterako menperatu ebazan oneik.

Eta geratzen zan gizaldi erdi onetan eta urrengokoan lugionesen leiñu batzuk alkartuta, talde aundiago bat sortu eben egitea, Bandaloen izenagaz ezagutu zana.

K.o.167ko urtean, Silingo, Lakringo, Biktobalak eta Asdingoak, Longobardo, Lakrino, eta Biktofaliarekin, Danubio ibaia aldatu eta Danubioren egoaldean ta Kroazia edo Alpes Karnikoseko bitartean, antziñako Europaren Germaniako Panonia edo, Dazia, Mesia, Iliria eta Norikako lurraldeetan kokatu ziran.

275eko urtetik aurrera, Godoen aurka asi ziran Asdingoak, Rumania ta Yugoslabia bitartean erromatarrek itzi ebazan Banatoko lurraldeakaz jabetzeko.

334ko urtean Bandaloak, beste jermaniar leiñuakaz alkartuta, erromatarren aurka joan ziran, Panoniako lurraldeetan ezarrira.

Wisumar asdingoaren erregeak, ekialdetik agertzen zan Jeseriko godotar erregearen aurka borrokatu zan, Wisumar asdingoaren erregea bertan ilda, eta godoen menpean ez ebenak bizi gura, ostera aldatu ziran Panoniako lurraldeetara Kuadoakaz batera.

406ko urtean Suebotarrek, Bandaloakaz batera Panoniako lurraldeak itzi ebezanean, erdi ugarte onetan erromatarrek euki eben jabetasunezko lurraldearen aurka etorri ziran, Galiano

lurraldeak erasotuta. Orren ostean kokatu ziran Galizian eta Andaluzian.

406ko urtean il zan Godegisel erregea, eta Alano ta Sueboak bat egin eben.

(1) *Ermunduroak = Itsas-Baltzaren inguruko leiñu bat.*

409ko urtean agertu ziran erdi ugarte onetan, elkarte batekoak izan baziran lez kokatuta. 425eko urtean, Kartagoko uria erasotu ta saskildu eben.

426ko urtean Gunderiko euren agintari zala, Ispalis edo Sebillan sartu ziran.

429ko udabarrian Bandalo oneik Jenserikoren agintaritzan, Afrikara aldatzea erabagi eben, eta itsasontzietan igonda, erromatar kaizertzapean Tanjer eta Zeutak nekazaritzarako edo lurgintzarako euki ebazan lur onenakaz geratzeko asmoagaz joan ziran.

428, 429ko urte artean, Jenserikok irasi eban Bandoleen erregetza ori baiña, zentzuzko antolamendu baten egokitu bear zan, erregetza orrek sendotasunezko aukera baten iraun egian aurrerantzean, eta elburu lez ipini eutsezan araubideakaz, gorutz egiteko beste, gainberan joateko be, erreztasun bardiñagaz irasi ebazan lege orreik, eta danok dakigu erregeak aldatzen diranean, danak ez dirala borondate, ulermen eta indar bardiñekoak.

Gitxiago, 429, 430eko urteetan, Afrikako lurraldeetan legez kentzen asi jakiezenean egon ziran andiki, eta eleiza katolikuari euki ebezan ardurazko jabetasunak, donatista ta arrianotarren eleizari emonda, ekintza orreik sortuko ebazan etsaiari bizirik itzi ezker, denboreagaz ondorengo lez agertuko ziran aldaketak, barre egitekoak izango ez ziranean.

439ko urtean, Afrikako ekialdera aldatu ziran eta erromatarrekin ainbat borroka egin ostean, Zerdeña ta Korzegako lurralde osoak, ta Sisiliako ugartearen zati baten lurraldeagaz jabetu ziran, Kartago euren erregetzazko uri nagusi lez ipinita.

442ko urtean bardiñ, Jenseriko berak, euken erregetzazko aukerean gauza guztien jabe izateko, bere erriko aundikiaren artean egin ebazan triskantzakaz, bandalo alanoren gorputza euki eben indarra ezereztu eban, eta erriko bizitzaren kontrola eukiteko, erlijio, gudalozte ta lurraldearen nekazaritzazko jaurkintzan bear ebazan agintaritzak, bere senide ta lagunuen artean banandu ebazan.

Ez zan gelditu eta erregetzaren jarraipenerako, *seniorato* edo *Tanistry*'ko eran antolatu eban, anai zarrenetatik asita, anaiak amaituta bakarrik aldatzen ziralako eskubide orreik seme edo bigarren ondorengotasunera, azken baten, euren amaiera aurreratu egingo ebena.

455eko urtean, Bandalo aukerromaren aurka joanda, erasotu eta saskildu eben au.

Jenserikok garaipenduta aurrera egin eban, eta Balear, Korzika, Zerdeña eta Siziliako ugartearen itsas kaiakaz jabetuz, lur arteko itsasoaren salerosketako nagusitasuna lortu eban.

461eko urtean, erromatarren mendebaleko Mayoriano kaiserrak, Kartagoko uriaren kaian batu ebazan 45 itsasontziak, urperatuta geratu ziran Bandaloakaz egin eben borrokan, eta bandaloen ekintza orregaz moztuta geratu jakien erromatarrai, ale, zitu edo laboreko mozkiñaren salerosketako aukereak ostera berrezkuratzeko.

Kartajenan egin zan itsas borroka orretan, geiago be sortu jakien erromatarrei, erromatarren itsas ontzidi edo guda ontzidi ori Bandaloak ezereztuta, itxaropen guztiak amaitu ziralako erromatarrentzat Afrikako lurak berriz berrezkuratzeko, eta gizaldi bat baiño geiago iraun eben Bandaloak Afrikako lurralde orreitan.

474ko urtearen udan, Jenserikok lortu eban bere erregetzaren goimailarik aundiena, Konstantinoplako erromatar kaisertzagaz betiko bakeak sinatu ebazanean, artean Afrikako lurraldeak, Balear, Sizilia, Korsika ta Zerdeñako ugartearen jabetasunak be lortu ebazalako.

477ko urtean il zan Jenseriko, eta bere seme Uneriko⁽¹⁾ Bandaloen erregetzazko aulkian ezarri ebenean, onek bere aitaren oituran iraun eta errigizartearen aundikien agintaritzak ezereztuteko alegiñetan sakondu zan, euren errege aunditasunezko agintaritzak, beko maillakoengandik bereizpendu zitezen, eta erregearen alosokerizko jaurkintzak iñoren eragozpenik bage, sasijainkoren agintaritzan agertu egiezen, sarri anditan erriko aundikien artean odoljariozko triskantza gogorrak egin ebazanak.

483ko urtean, Unerikoren sarraskiak geratzeko eta jaurkintzaren antolakuntzak askatasunaren erkidetasunezko jakintzan egin zitezen, Bandaloen gizarteko aundiki orreik, katolikotasunezko eleizaren laguntza billa asi ziran, Uneriko onek, danoen aurkako eragozle edo trabatzaillle asita.


484ko urtearen Otsaillan, Uneriko onen jarduera edo gizabide au ezinezkoa izanda, Kartagoko urian katoliko ta arrianoren gotzaiak eleiz batzar baten batu ziran, Uneriko erregeak, danak arrianismoko eritzira aldatu zediñ aginduta.

484ko urte onetan Uneriko il zanean, erria gose gogorrean sartuta egoan, eta ez zan txarrena ori, erriaren altxorrezko zerga arloak maldaberan ipinita, bandaloen erria erioztazko aukerean ezarrita geratu zalako.

484ko urtean Guntamundok igon eban Bandaloen erregetzazko aulkira, ta alperrik ibiliko zan bereber printzearen zabaltasunak geratzeko eta beren erregetza Konstantinoplako kaisar

Ⓕ

Godoen egizko edestia



Bizanzioko kaisertzaren bide ta errien mapa I Justiniano Aundiaren denboran, Aba-roen ezar-lekua erakutsita Itsas-Baltzaren Ipar-Ekialdeko baztarrean.

(1) Uneriko

Aurrean legeztuteko eleiza katolikuagaz arremanak lortzen, oneik, Unerikok len egin eutsenagaz erne egon ziralako, eta gitxiago, Zenonek mendebaleko katolikuakaz euki ebazan arremanak, apurtuta eukazalako.

496ko urtean il zan Guntamundo eta Bandaloen urrengo errege bere anai Trasmundo izan zan.

Onek, Bizanzio eta Ostrogodoaren errege Teodoriko⁽¹⁾ Aundiagaz gura eban alkartu, Teodorikoren arreba Amalafri dagaz ezkontzeko aleginduta, beren erregetza baiña ez zan izan, bere ariñauko errege bien antzekoa baiño.

523ko urtean il zan Trasmundo bandaloen erregea, eta bere ondorengo lez, Ilderiko bere loba ipini eben erregetzazko aulkian, baiña Ostrogodoaren erregetzazko amaieragaz sortu zan lez, Ekialdeko erromatar I Justiniano⁽²⁾ kaiserraren laguntza eske edo atzean asi zan, Afrikako katolikuekaz bakeak eginda, len kendu eutsoezan jabetasunak ostera emon edo itzuli ondoren.

530eko urtean bere ondokoak, bereberek in eukan porrota aitzaki lez artuta il eben Ilderiko au, bere jaurkintzazko ekintzak iñor ez ebelako poztuten, eta bere sendiko Jenserikoren billoba Gelimer egin eben errege.

534ko urtean Gelimer onek, Bandaloen beste erregetzazko leiñu bat irasteko ibili zan alperrik, aurrerantzakorik ez ebalako euki eta iñoren laguntza barik aukerak urriñ geratuta, I Justinianok, euren aurka bialdu ebazan Belisario gudal nagusiaren agintaritzan 15.000 gudariakaz amaitu ziran Bandaloen erregetzazko itxaropen guztiak. Ortik aurrera I Justinianok, geratzen ziran bandaloak, Persiako gudatara bialtzen ebazan gudari lez.

12. Godoen sorkuntza, Ostrogodoak eta Bisigodoaren aldia Europa onetan.

Godoen sortarazia, Jermaniar leiñuetatik ondo ez dan ezagutzen lurraldekoak dira, nai euren asiera Götaland edo ta Skandzako lurraldeetatik⁽³⁾ emon.

K.a., Bistula ibaia⁽⁴⁾ eta Baltiko itsasoaren bazterretan egon ziran kokatuta, ta K.o. 200eko urtetan Egoalderantza aldatuta, Danubioren ugaldean⁽⁵⁾ eta Itsas Baltzaren izparterretan⁽⁶⁾ kokatu ziran, Dazia ta Moesiako⁽⁷⁾ erromatar lurraldeetan indarka be sartuta.

Erromatarrentzat Godo oneik, biotz gogorreko jermaniar edo ta Basatiak ziran, eta ainbat lerrokatu ziran erromatar gudalozteetan, Sasanidasen aurka borrokatzeko.

214ko urtean Erromatarren Karakalla⁽⁸⁾ kaiserrak menderatu ebazan.

(1) Teodoriko ostrogodoen erregea = 455-526eko urte bitartean bizi zana. (2) I Justiniano = 483, 565eko urte bitartean bizi zana, Konstantinoplan il zan arte. (3) Skandza = Sueziaren Ego-aldea. (4) Bistula ibaia = 1.014km. daukazenak luzeeran, Karpatozeko mendi kateetan jaioten danetik, Barsobia ta Toruneko errietatik aldatuta, Baltikoaren itsasoan eta Gdansk'eko errian bere urak itsasoratuta. (5) Ugalde edo itsas-adarra = desembocadura del rio Danubio. (6) Izparterrek = costas del mar. (7) Dazia ta Moesia = Rumania eta Bulgaria. (8) Marko Aurelio Antoniotar Karakalla erromatar kaiserra = 186-217 urte bitartean bizi zan eta kaisar lez 211-217 urte bitartean. Gizon au bere ingurukoak il eban, baiña berak be beren mendeku edo mendekaldiekaz 20.000 baiño geigo gizon-emakume ilda gero. Artean bere anaia zala.

Urte oneitan baiña godoen ugaritasunagaitik, erromatarren mugaldeen agertu ziran larrialdiko estukuntzak, erromatarren indarrak gora baiño berantza egiten ebalako, ta laster ikusiko doguz godoak, erromatarren artean jabetzen.

250ko urtean Godo oneik, erromatar gudalozteak azpiratu ebezan.

251kako urtean eta Godoek Zniba ¹k⁽¹⁾ bideratuta, Attrioko borrokan Dezio kaiserra il ondoren, erromatar gudalozteak menperatu ebazan.

262ko urtean Godoek, Atenas menperatu eben.

Denbora onetan Godoak, Balkanenesetik Bizanziorako sarraldiak asi ebezan egiten alde batetik eta bestetik Italia eta Panonian.

Denbora onetako Godoak, erromatar Marko Aureliotar IIIn Klaudio, “**Gotikoa**”⁽²⁾ esaten eutsenai, Aurelianoen⁽³⁾ aurkako borrokak euki ebezan.

270eko urte inguruan Daziako lurraldetik alde egin eben erromatarrek.

272ko urtean erromatarrek, Daziako lurraldeak emon eutsezan godoei.

291ko urtean agertzen da lenengoz argibidetuta Godoen banaketa, terbinjioak⁽⁴⁾ Rusiako Karpatos mendikateetan jaioten dan Ukrainiako Dniester ibaiaren mendebalean kokatuta, eta greutungo edo ostrogodoak⁽⁵⁾, Ekialdean.

Godo oneik aurrerantzean, IIIn Konstantinogaz alkartuko ziran, Ulfilas⁽⁶⁾ gotzaiñak Biblia, euren izkuntzara itzuli ebenean, Kristautasunera aldatuta euren erlijioa.

300eko urtetan Godoek, Daziako lurraldeak menperatzen asi ziran.

348ko urtean Ulfilas gotzaiñak, Danubioko iparraldean egon ziran godoak, Danubio ibaiaren beste alderantza, Nikopolisen ondora bideratu ebazan, I Atanariko⁽⁷⁾ godoak, kristauen aurka egiten ebazan sarrasketatik babesteko.

350eko urtean, Ermanariko erregeak bideratuta, ainbat leiñu alkartu jakiezan godoei, eta Itsas Baltikotik Itsas Baltzeraiño zabaltzen asi ziran euren erregetza, eslabo, ugrofinesak eta iranioak menperatu ostean.

370eko urtean Unoak, Ermanariko grutungoaren erregetzazko lurraldeetan sartu ta danak saskildu ebazan, terbinjioak Danubio ibaia aldatuta erromatarren babesera joateko.

375eko urtean Godoak, Zabaltasun geiago artzeko naian, erdibitu egin ziran, Ostrogodo edo Dniester Ekialdeko godoak, Itsas Baltzaren izparterretan ta Deniester ibaiaren Ekialdean kokatu ondoren Unoagaitik menperatuta geratu ziranak, eta Terbinjio Bisigodoak edo Menbaleko godoak, Dazian eta Danubio ibaiaren urbazterretan kokatuta geratu ziranak.

Bisigodo oneik baiña, Unoren keiñada edo zemauntzari bildur, ortik be alde egin bear izan eben, eta erdi ugarte onen lurretan sartuz, Toledon ain zuzen, euren Bisigodo kaisar erregetza ezarri eben.

(1) Zniba = Cniva. (2) Marko Aureliotar IIIn Klaudio Gotikoa = 214-270 urte bitartean bizi zana. Senatuak igon eban kaisertzara eta borroka aundiak irabazi ebazan Italian Alamanniaren aurka ta Mesian Godoen aurka, Panonian il zan elderiagaz izurrite denboran. (3) Luzio Domiziotar Aureliano = 212-275ko urte bitartean bizi zan eta kaisar lez 270-275 urte bitartean, Erromatar kaiserraren berritzaillea esaten eutsenai. (4) Terbinjioak = Bisigodoak. (5) Greutungoak = Ostrogodoak. (6) Ulfilas edo Wulfila gotzaiña, Godoak azpiratu ebazan kristauen semea zan eta euri kristau bideak zabaldu eutsen gizona, Biblia be euren izkuntzara itzulita = 311-382eko urte bitartean bizi zana. (7) I Atanariko = godoen erregea 300eko urte inguruetan.

376ko urtean asita godoen anai arteko borrokak, 382ko urterarte iraun eben, Bisigodoak kanporatuta euren lurraldeetatik eta Danubioren ibarretara aldatuta, ainbat bisigodo leiñu on artu ziran Moesiako lurraldetan.

378ko Dagonillaren 9an, Unoek Adrianopoliseko borrokan, erromatar Balente kaiserra il eta bere gudalozteak menperatu ebezan, aldi bateko bakeak lortuta.

381eko urtean, I Teodosio Aundiak⁽¹⁾ aldikada baten unoakaz borrokan, bakeak sinatu bear izan ebazan eurokin, eta erromatar kaisertzazko gudalozteetan garrantzi aundia-goko zeregiñetan unoen guda nagusiak ipini, bakeak iraun egien.

388ko urtean bisigodoak, artu emon aundia euki eben erromatarren anai arteko gudan, Klementetar Maximo *Aundi* kaiserraren aurka.

Eta 394ko urtean, Eujenio Sinisgogorraren aurka.

395eko urtean I Alariko bisigodoa erromatarren aurka matxinatuta, Italiara joateko ibilbidea asi eban.

395eko urtean Urtarrillaren 17an I Teodosio Aundia il zanean, erromatarren kaisertza erdibitu zan bere seme bien artean, ekialdeko kaisertza Arkadiorentzat eta mendebalekoa Onoriorrentzat. Onorio onek, 9 urtegaz igon eban mendebaleko erromatar kaisertzazko aulkira, Estilikon bandaloaren guda nagusien gurasordetasunean.

395-396ko urte oneitan I Alarikok, Konstantinopla erasotu ta Greziara joanda erraustu ondoren, Estilikon erromatar guda nagusia Greziatik botatea lortu eban, baiña erromatar kaisertzaren ingurukoak Estilikon artzen egon zan almenagaz bildur, eta 391ko urtean jaio zan Gala Plazidia I Teodosioren alaba, Estilikon seme bategaz ezkontzeko aginduta egon zan lez, I Alariko izendatu eben Iliriako guda jaurlari, eta ekintza orregaz lortu ziran 396, 401eko urte bitartean, bost urteko bakeak.

401eko urtean I Alarikoren indarrak sartu ziran Italiako Iparraldean.

402ko urtean Jorraillaren 6an Estilikon, Bisigodoak menperatu ebazan Pollienzako lurretan, eta gero Beronako lurraldeetan.

406ko urtean I Alarikok, Erroma menperatu gurean, Atalo bere ordezkari lez ipini eban Erromako jaurlari, eta Estilikon semeak Gala Plazidiagaz ezkontzeko euken itza apurtu eban.

406ko urtean Abenduaren 31n Flabiotar Onorio erromatarra egon zala ekialdeko kaisar lez, germaniar Alano, Suebo ta Bandaloen silingos eta asdingozen taldeetan bananduta egon ziran leiñuak, euren Renaniako lurraldeetatik urtenda eta Rin ibaia aldatu ostean, gure añaamendietararte etorri ziran gelditu ezinezko joera baten, franko ta erromatar gudalozteai irabazita.

408ko urtean Dagonillaren 23an I Alarikogaz arremantetan ibilteagaitik, Estilikon guda nagusia salatu eben erromatar abertzaleak, euren ustez, erromatar kaisertza berak agindu naian ibili zalako, eta euren zalakuntza egizkoa izan ediñ, azpi joko bat antolatu eben aberkide oneik matxintasan bat sortuz.

Estilikon eraso ortatik ostonduteko, eleiz baten barruan sartu zan, eta kanpoan egon zirenak aske itziko ebala eskeintza egin ondoren, Estilikon Olinpoko atletik kalera

(1) I Teodosio Aundia = 346-395 urte bitartean bizi zana eta erromatar laisar lez 379-395eko urte bitartean.

urtetan egoala, kanpoan itxaroten egon ziranak oratu ta Onorio kaiserraren aginduz il eben.

I Alarikok bitartean Erroma saskiltzen ibilita, Onorio Rabenan ondo bizi zan.

409ko urtean, Italiara itzuli zan I Alariko eta Rabenan kokatuta egon zan Onorioren aldetik eskubide barriak artu ostean, alde egin eban.

Onoriok ez eban bete emoneko berbea, eta bisigodoek Erromaren aurka joanda, Prisko Atalo lapurrari lagundu eutsoen Erromatarren erregetzazko aulkian ezarri ediñ, onek I Alarikori, guda maisu edo *Magister Militum*’eko guda mailla aundiagaz izenduta.

Atalok baiña, ez eban bete I Alarikori esikaiñi eutsona, eta I Alarikok ostera artu eban Erromako bidea.

Onoriok, Flabius Konstantinegaz banakatuta jaurkitu eban erromatar kaisertza, eta onek Europako errigizarteen leiñuakaz borrokatu ostean, laterri batzuk galdu ebazan.

410 urteko Dagonillaren 24an sartu zan I Alariko⁽¹⁾ Erroman, eta iru egunaren etenbageko sarrasketetan ibili ta erraustu ondoren, guda lapurketetan artu ebazan ordaiñezko sariak, erromatar kaisertzazko aulkitik Priskotar Atalo kentzea eta Onorioren arreba Gala Plazida I Teodosioren alaba, beragaz eroategaz bete ziran.

410eko urtean Onorio erromatar kaiserrak, Akitaniako lurraldeak emon eutsezan Bisigodoei, eta onek bandaloen aurka asita, denboregaz, erdi ugarte onen lurraldeakaz nagusitu ziran.

I Alariko Siziliara joan zan ugarte orregaz jabetzeko, eta erromatarrik Afrikatik euki eben labore, zitu edo janarizko altxorrek kontroletako joan zanean, Tirreno itsasoaren baztarrean eta Kalabriako lurraldean Konsenzako uria inguratzen egoala, orma orreitan il zan I Alariko.

412ko urtean bakeagaitik itzi ebezan Ataulforen⁽²⁾ bisigodoek Italiako lurraldeak, Galiako lurraldearen truke, eta len galiako lurraldearen erdiko ta egoaldearen lurraldeetara joanda, gero erdi ugarte onen iparraldean agertu ziran.

414ko urtean, I Alarikoren ondorengo bere kuñatu Ataulfo izan zanak, ez eban artu I Alarikok artu eban janarizko bidea eta Iparraldera joan zan Onoriogaz elkargo bat egitera, ia Galiako lurraldeak izten baetsezan jaurkitzen.

Narbonan ezkondu zan, atxilotuta euken Onorioren arreba, Gala Plazidiagaz.

Denbora oneitan, IIn Teodosio⁽³⁾ Arkadioren semea izan zanak, I Konstantinok bere asierako kaisartzatik agertu ebazan erispen⁽⁴⁾ edo lege guztiak batuta eta Justinianoren lege bildumagaz osotuta, Teodosioren lege sorta deituko ziranak argituko ebazan.

415eko urtean sartu ziran bisigodoak erdi ugarte onetan, eta beren lurraldeak menperatu ondoren, Tarrakonenseko lurraldetara joan ziran.

Urte onetan il eben Ataulfo Bartzelonako urian.

Inguruko denbora oneri *“antziñ arotik erdimendera”*ren aldaketa dala esaten jako.

418ko urtean Walia Ataulforen ondorengoak, Afrikara eroan gura ebazan bere bisigodoak, baiña itsasketa batek ondatu ebazan bere asmoak.

(1) I Alariko Aundia = 370–410 urte bitartean izan zana bisibodoaren erege. (2) Ataulfo = 410, 415eko urte bitartean bizi zana eta Ataulforen koñatua. (3) IIn Teodosio 401–450eko urte bitartean bizi zana. (4) Erispen = constitucion.

Bisigodoak jatekoaren ezean, Onorio erromatar kaiserrarengana joan ziran janari eske, eta onek, erdi ugarte onetan egon ziran Bandalo, Suebo, Alano, Asdingo, Silingoaren aurka egitearren, ta baita Gala Plazidaren truke, berak janaria emongo eutsoela agindu eutsoen bisigodoai, alan Betikako Bandalo, Silingo, eta Lusitaniako Alanoak ezereztuta, berari arnas aundiak emoten eutsozalako, baiña Onoriok antolaketa orreik aldatuta, Galiako lurraldetan kokatu ebazan ostera bisigodoak.

13. Bisigodoak Akitaniaren Tolosako erregetzan eta erdi-ugarte onetan.

Erromatarren kaisar maldaberagaz, eta euren menperatasunezko bizitzan nastu ebanekin, berakada aundiagoak agertu ziran eskubideko arloetan.

Ekialdeko menpetasunetik alde egiten ebenak alderrai eta Europaren erdira etorten ziranak, indarrez alegintzen ziran, norkeriaren agintaritzazko gozoki orretatik euren jabetasunezko zatiekaz geratzen.

Eta danok jaiotzatik ekarten doguzan berezko eskubideak konpondu baiño, geiago zikindu ziran, elkarkizunaren ordezkariatzazko artu emon, nortasun eta izkuntzazko izate guztiak, geiago zirriborrotu egingo ziranak, Europa, Asia ta Afrikako lurraldeak Omosapienseko gizakien odolagaz margoztuta.

Eta arrigarriena da, danak eta bakotzari Jainkoak emoneko aginduagaz gaurko lez egiten ebela.

Euskaldunak orregaitik, naikoa egin dau, Jainkoa berak gaiari oiñarrituta ipini eutsozan legeakaz, Paleolitiko Neolitiko denboran konturatuta zeintzuk ziran lege orreik eta askatasunezko demokraziaren buruz lortu eben jendekuntz aundi ori, gaurko egunerarte ekarri, danari erakusteko zeintzuk diran Jainkoaren aginduak gure egipideko lanetan.

Arritzeko ta parebageko irakaspena⁽¹⁾ ikusten da, Europaren Mendebaleko zabalkuntza andianean: euskal nortasunaren zabalkuntza Atlant Itsasotik Alemania erdirarte, eta Eskoziatik Kadizerarteko lur zabaletatik izanda, gaur zazpi lurralde txiki onetan geratu arren, gaurko egunerarte ekartea askatasunezko demokraziaren ikasketa areik, eta gaur bertan ikusten dogu, a zelango amurruagaz dabizen oraindiño, danok Jainkoaren berezkotasunetik daukaguzan baitaren aolkularitzak, kendu edo zirriborrotzen, mundu onen gizarteakaz ugazaba eta morroitasunezko jokoetan jolasteko.

Gaurko gizartearen jakinezko baitan, nork eta nori sartuko ote dautso iñork, porru edo maltzurutasunezko guzur zikiñ ori ?.

Batzuk esaten dabe, gaurko Omosapiens “adimendun eta jakitun aundikoa dala”.

Baiña nik jakintsu oneri esango neuskie, gauzaren eta izaeraren ekintzak nortasun eta norkerizko izaeratan biurtzen diran lez, “ulermendunak” ere bai ?.

Noz lortuko ete dogu, Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu ziran bereztasunezko eskubideetan jendekuntz aundiak ?.

Godok, naita erromatarren kaisertzazko indar guztiagaz aldia artu, ez eben denbora eta gitxiago zentzunik euki, Europan euren arriano ta katolikotar⁽²⁾ batzangotasuna-

(1)Parebageko irakaspena = lección incomparable. (2) Iñork ez dau esango emen egon zala erlijio edo ta Jainkoaren agindurik, dan guztia egiten zalako sasi-jainkotasunezko norkeriagaitik.

ren menperatzailletasunezko asmakuntzak ezartzeko, Mauritarrak agertu ziranean ez ebelako indarrrik euki oneik geratzeko.

Eta goian esan dogun lez, erromatar kaisertzaren agintaritzazko maldabera orreitan, aukerak zabaldu jakiezalako franko eta bisigodoaren aginduzko zalekeriai, Frantziko lurretan erantzun lez, Baskoniako Dukateria sortu zan, garrantzi aundikoa dana euskaldunentzat.

Goazan zer egin eben jakitera, leen, Euskaldunentzat oso adierazgarria dalako, eta bigarren, menperatzailletasunezko guzurak, euren agerpenean ikusi daiguzan, baita berez, zelan joaten diran euren leen norkerizko asmakizunaren sorburuetara.

410eko urtearen Dagonillako 24an I Alarikok Iru bider inguratuta euki eban Erromako uria, eta Mazedonia, Trazia, Tesalia ta Greziako urietatik arrapaka ibili ondoren, urte onetan saskildu eban Erroma.

410ko urtean, I Alarikoren ondorengoa bere kuñatu Ataulfo⁽¹⁾ izan zan errege, eta onek ezaban artu I Alarikok artu eban janarizko bidea eta Iparraldera joan zan Onorriogaz elkargo bat egitera, beren aginduan iraunda, ia Galiako lurraldeak izten baetuzen jaurkituten, eta Narbonan ezkondu zan, atxilotuta euken Onorrioren arreba, Gala Plazidiagaz.

415eko urtean il eben Ataulfo Bartzelonako urian.

415eko urtean Ataulforen ondorengoa Sijeriko⁽²⁾ izan zan, onek bere anaiaren ilketa mendekatzeko, Ataulforen ilketan eskuartze euki eban, eta errege izendatu ondoren, bere urrengoa izango zan errege Waliak zirikatuta, matxinatu ta il eben bere agindupekoak.

Errege izendatu ta gero, zortzi egun iraun eban bere agintaritzan.

415eko urtean Walia⁽³⁾ izendatu eben errege, onek Suebo, Bandalo ta Alanoak menperatu ondoren, Galiziako Sueboak baztertu ebazan.

418ko urtean ezarri ziran bisigodoak Akitaniako lurraldeetan.

Denbora aietan euskaldun lurak, gaur baiño bederatzi bider aundiagoak izan ziran Frantzi aldean, Auñamendietatik Andorrraraiño, Garona ibaiaren goitik ia Loiraraiño izan ziralako, ondo antolatutako gudalozteakaz Frankoen aurka borrokatzeko geien, eta Karlomagnoren aurka bereziki, berak saskildu ebalako euskaldunen Dukateria, Frantziko lurraldeetan, katolikotasunezko kaisertzan ezarri egiazan batzango zaleak.

Emendik aurrera eta iru gizaldi aldiko urteetan, frankoek eta bisigodoek euskaldunekin euki ebezan artu emonak ez ziran onak, biak alkartuta etenbageko borrokak euki ebezalako ia euskaldunak menperatzen ebazan. Adibidez:

448-456ko urte bitartean sueboaren errege Rekiariok bisigodoarekin alkar, *“Vasconias depraedatur”*⁽⁴⁾, ortik aurrera bisigodo errege guztiak bardiñ esanda euren erregetzazko aulkira igoten ebanean.

Suintilaren⁽⁵⁾ erregetzako 621-631ko urte bitartean, adibidez: *“Vascones devicit”*.

(1) Ataulfo = I Alarikoren kuñatua eta 410-415eko urte bitartean bisigodoaren errege izan zana. (2) Sijeriko = 38-415 urte bitartean Tolosako errege. (3) Walia = 415-419ko urte bitartean Tolosako bisigodoaren errege. (4) *Vasconias depraedatur* = Euskal lurra erraustu ebalako. (5) *Suintila erregetzan 621-631 urte bitartean = “Vascones devicit”, euskaldunak menperatu ebazala esangura dauana (derrotar a los vascones).*

672-680ko urte bitartean Wanbaren esanak: *“prius feroces Vascones in finibus Cantabrie perdomuit”* eta ainbat *“Domuit Vascones”*⁽¹⁾, esango eben emendik aurera, guzur utsa izan zana, sekula ez zalako sortu alakorik.

418ko urtean I Teodoro⁽²⁾ bisigodoak, Rodano ibaiaren lurraldeetara zabaldu ebazan bere jabetzak, ta erromatar Onoriorerkin alkarte bat egin ostean, Galiako egoaldean Akitania Sekundako lurraldetan kokatu ziran, eta lortu eben euren erregetza ezartzea, Tolosako⁽³⁾ urian.

427ko urtean eta erromatarren agindutara sartu zan I Teodoro, erdi ugarte onen lurraldeetara, eta Sueboak Galizian bazturturik, Alanoak ezereztu ebazan.

429ko urtean I Teodoro erregeak, Bandaloak be Afrikaraiño bultzatu ebazan.

438ko urtean II In Teodosiok Ekialdean, eta III In Balentinianok⁽⁴⁾ Mendebalean, batera argitu ebazan II In Teodosioren lege sorta orreik, arik eta Ekialdean Justinianoren lege sortagaitik eta Mendebalean Godoen legeagaitik aldatu arte.

451ko urtean Tolosako bisigodoaren errege I Teodoro il zan Katalaunikoseko zelaietan, Atila uno erregearen gudalozteakaz borrokan egoala.

451ko urtean Bagillaren 20an I Teoredoren semea Turismundo⁽⁵⁾ egin eben Tolosako errege, eta bera be egon zan Troyesen ondoan Katalaunikoseko Zelaiaren Txalonsko borrokan Atilaren aurka, onen 160.000 gudari il eta Aezio erromatar gudal nagusiari be irabazita.

453ko urtean Tolosako errege Turismundo, II In Teodoriko bere anaiak il eban.

453ko urtean ta bere anaia il ondoren, II In Teodorikok⁽⁶⁾ igon eban Tolosako bisigodoaren erregetzara ta Frantziko egoaldean, Langedok, Rodano ta Garona ibaiaren bitartean dagoena eta len Toulouseko uri nagusia izenekoa, Auñamendiak eta Lurrarteko Itsasoaren bitartean aurkitzen diran Roselloneko lurraldeak eskuratu ebazan.

453ko urterarte II In Teodoriko bisigoak, erdi ugarte onen leiñu basati orreik ezereztu edo ta kanpora bilduarte ibili ziran erromatarerkin alkartuta, urte onetan eta Katalaunikosen Zelaietako borrokan, Unoak menperatuta.

454ko urte inguruan Unoak menperatu ebazan Teodomiroren Ostrogodoak, Nedako borrokan.

466ko urtean Eurikok, bere anai II In Teodoriko Tolosako bisigodoaren erregea, il eban.

466ko urtean Eurikok⁽⁷⁾ igon eban Tolosako erregetzaren aulkira, eta Galiako lurraldeak menperatuta Loira ibairarteraño, bestetik Rodano ibaia, Lurrarteko Itsaso, ta Italiako bitartean dagozan Probenzako lurraldeak menperatu ebazan.

(1) Wanbaren esanak 672-680ko urte bitartean = *“prius feroces Vascones in finibus Cantabrie perdomuit”* = Kantabriako lurraldeetan leen egin ebana, euskaldunak menperatzea izan zala. Eta *“Et Domuit Vascones”* euskaldunak menperatu ebazala esangura dauana. (2) I Teodoro Tolosako bisigodoaren errege = 418-451ko urte bitartean errege izan zana. (3) Frantziko lurraldeetan Gaurko Toulouseko uria dana. (4) III In Balentiniano = 419-455 urte bitartean bizi zana. (5) Turismundo bisigodoa Tolosako errege = 451-453ko urte bitartean Tolosako Bisigodoaren errege. (6) II In Teodoriko erregea = 453-466ko urte bitartean Tolosako errege. (7) Euriko bisigodoaren errege = 466-484 urte bitartean.

Arriano eritziko erlijioara aldatu zan, eta Bisigodoaren lenengo lege sorta antolatu eban.

Euriko bisigodoaren erregetzazko 466, 484ko urte bitarte onetan, erdi ugarte onen basati leiñuak menperatzeagaz, lortu eben euren zabaltasun aundiena, Galizia izan ezik.

475ko urterako bisigodo oneik bandaloak menperatu eta erdi ugarte onen lurralde geienak menperatu ondoren, euren Toledoko erregetzan kokatu ziran, 711kako urte-raiño iraun ebena mauritarrak etorri ziran arte.

476ko urtean Iraillaren 4an amaitutzat emoten jako Europako mendebal onetan erro-matar kaisertzari.

481eko urtetik aurrera bisigodoak, Eurikogaz asten dira erdi ugarte onen lurraldeak menperatzen, eta beste erri batzuen artean Iruñako uria menperatzen dabe, Tarrakonense lurraldeakaz batera.

484ko urtean il zan Euriko Tolosako erregea, eta bere seme In Alariko⁽¹⁾ igon eban Tolosako erregetzaren aulkira, Auñamendiko aldebietan ezarri gurean euren jabetza.

486ko urtean Klodobeo⁽²⁾ frankoen erregeak, erromatarrak menperatu ebazan Sois-sonseko borrokan, eta bisigodoen aurka asi zan.

488ko urtetik asita Teodoriko Aundiak Italiako lurraldeak menperatu ebazan.

Eta 493ko urtean amaitu eben godo orreik Italiako menpekotasuna.

506ko urtean In Alarikok⁽³⁾, bere errege aulkia Iparraldeko Tolosan kokatuta, Romana Bisigotorun legearen laburpena argitaratu eban Mendebaleko Bisigodoentzat⁽⁴⁾.

Urte onetan frankoak, alemanaren aurka ibili ziran, eta auek bisigodoari Tolbiakeko lurraldeetan, astinketa ona emon eutsoen.

507ko urtean, Bouilleko⁽⁵⁾ lurraldean frankoen errege Klodobeok, Alariko bisigodoen aurka egin eben borrokan frankoak garaipenduta, bisigodoaren Tolosako erregetza ezereztu eben eta Bisigodoak betirako aldatu ziran erdi ugarte onetara.

507ko urtean In Alariko bisigodoak, I Klodobeo franko erregearen gudalozteekaz Frantziko Bienne erri inguruan, Bouilleko zelaietetan borrokatuta, frankoak menperatu eben In Alariko, eta Alariko ilda, bisigodoek Septimania edo Galia Narbonenseko lurraldeak izan ezik, Auñamediko iparraldean euki ebazan jabetasunak galdu ebazalako, frankoak bisigodoei Auñamendiak aldatuazo ta Frantzitik bialdu ebazan.

507ko urte onetan In Alarikoren seme Jesaleiko⁽⁶⁾ ezarri zan bisigodoen erregetzako aulkian, eta bere anai orde Amalarikoren aldekoek il eben lez, Amalariko bera ezarri eben errege aulkian.

511ko urtean Jesaleiko il ondoren, Amalariko⁽⁷⁾ In Alarikoren semeak igon eban Tolosako errege aulkira.

(1) In Alariko 484-507n urte bitartean izan zan Bisigodoen errege eta brebiario de Anniano o código de la lex Romana Visigothorum argitaratu eban Mendebaleko bisigodo guztientzat. (2) Klodobeo frankoen erregea = 466-511 urte bitartean bizi zan, eta frankoen errege lez = 481-511 urte bitartean. I Txildarikoren semea zan eta berak irasi eban franko edo frantzesaren errege-leiñua, eta Klotildegaz ezkondu, onek Klodobeo kristau biurtzea lortu eban. (3) In Alariko = 484-507 urte artean bisigodoaren errege izan zana. (4) Brebiario de Anniano, o código de la lex Romana Visigothorum. (5) Bouille edo Vouillé = Frantzian, Vieneko erri-aldea, eta batzuen usteetan, antziñako Vocladis dala esaten dabe. (6) Jesaleiko, In Alarikoren semea = 507-511ko urte bitartean ezarri zana Tolosako bisigodoaren erregetzan. (7) Amalariko = 502-531eko urte bitartean bizi eta 511-531ko urte bitartean bisigodoaren errege izan zana.

526ko urtean Bizanzioko erromatar kaiserrak, euren Mendebaleko kaisartzapean gura ebezalako euki Italiako lurraldeak, Belisario gudal nagusiaren agindupean bialdu ebezan euren gudalozteak Italiako lurraldeetara, godoen artean erregetzazko arazoetan bakeak lortzekoaren aitzakiagaz, amaibako gudan iraunda ortik aurrera.

531ko urteko Orrillan, Amalarikok bere erregetzan, Ostrogodoaren agindupetik urtenda, berak birreskuratu eban bisigodoen askatasuna ta Narbona ezarri eben euren Uri Nagusi lez, arik eta frankoak narbonenseko lurraldetan sartuta, Amalarikok Bartzelonara iges egin arte.

Amalarikok, Toledoko IIIn eleiz batzar nagusia ospatuta, bere emazte Klotilde beartzen ibili zan Arrianoren erlijiozko eritzira aldatu egian, eta Klotildek ez ebelako aldaketarik egin, borrokan asita, bere koñatu Txilderbertok menperatu eban Amalariko Narbonaren inguruan, eta bere gudaloztearen gudariak Bartzelonan il eben.

Urte onetan frankoek, Alemania erdian egon zan turinjioeren erregetza menperatu eben.

531ko urtean Teudis⁽¹⁾ igon eban Tolosako erregetzaren aulkira, eta frankoak menperatu ondoren il eben 548ko urtean.

534ko urtean frankoek, burgundioaren⁽²⁾ erregetza menderatu eben Pomeraniako⁽³⁾ lurraldeetan, eta orren ondorioz frankoen erregetza irasi eban I Klotariok⁽⁴⁾ Mantxako lurraldeetatik Danubio erdirarte, ta Saaletik Auñamendiko kateerarte. Guztiz egia ez da, Akitania ta Baskoniako Dukaterri euskaldunak beti izan diralako buruko miñ aundi bat eurentzat. Karlomajno berak be, ez ebana bere naierara ibili.

548ko urtean igon eban Teudiselok⁽⁵⁾ bisgodoaren errege aulkira, 549an Sebillan il ebena.

549ko urtean Ajila⁽⁶⁾ igon eban bisigodoaren erregetzazko aulkira, eta bisigodoen sendian anai arteko guda sortuta, Atanajildok bideratzen ebazan gudariak, Justinianoren laguntzagaz menperatu ebazan Ajilak.

552ko urtean erromatarren guda ekintzagaitik ezereztu egin ziran ostrogodoak Italia-ko lurretan, lonbardoak sartuta Italiako iparraldean.

Eta 553ko urterarte iraun eban ostrogodoen erregetza Bizanzioko kaisertzaren babesean, Teya erregearen agindutara.

553ko urtean Justinianok⁽⁷⁾ Bijilio Aita-Santuagaz⁽⁸⁾ Konstantinoplako IIIn eleiz batzar nagusiak ospatu ebazan.

554ko urtean, beren gudariak il eben Sebillako uri ondoan Ajila erregea.

Azkeneko lau errege oneik, anaïen artean eraïldakoak izan ziran.

(1) Teudis bisigodoaren errege = 531-548 urte bitartean bisigodoaren errege. (2) Burgundioak = Pomeraniako germanikotar erria, Vn gizaldian Galiaseko lurraldeetan indarka sartu ondoren Rodanoko ibai-arruan kokatu ziranak. (3) Pomerania = Itsas-Baltikoaren baztarrean Stralsund eta Bistula ibai artean dauan lurraldea. (4) I Klotario = Klodobeoren laugarren semea, bere anai Klodomiroren semeak il zituzenak Frankoen erregetza osoagaz geratzeko 588ko urtean. (5) Teudiselo = 548-549ko urte bitartean bisigodoen errege bere kideak il eben arte. (6) Ajila = 549-554ko urte bitartean Tolosako errege. (7) Justiniano = 483-565eko urte artean bizi zana eta errege lez 527-565eko urte bitartean. (8) Bijilio Aita-Santua = 537-555eko urte artean Erromako Aita Santua izan zana.

554ko urtean igon eban Atanajildo⁽¹⁾ Tolosako bisigodoen aulkira, Justiniano erromatar kaiserraren laguntzagaz, eta Ajila menperatu ebanean, *Toledora aldatu eban bisigodoen erregetzazko aulkia*, erromatar Bizanzioko kaisertzari orde, Betikako zati bat emonda.

14. Toledoko kaizartza edo Toledoren kaizarkeria aipatu bear dogu emen.

Espainiarrak antza, daukien fazistaren aberritasunezko katolikotasun ori, naiz ta erromatar katoliko asmakuntzatic etorri, PPko alderdiaren Kospedaltar andreak euren gazteai telebistan esan eutsen lez, eurak badaukiela uri edo toki sakratu bat, aztu bear ez dabena: *“Toledoko Kaizartza” edo “Kaizertzazko Toledo”*.

Toledo, erromatarrengandik izan zan ardurazko Uria, bere inguruko errixoen artean.

Garrantzi aundikoa, Leobijildok bisigodo erregetzaren uri nagusi lez izendatu ebantik aurrera, eta 589an I Rekaredok IIIIn eleiz batzar nagusia ospatu ebanean, erreñu lez izendatuta geratu zan Toledo.

Edestian aldatu diran jendekuntz guztiak itzi dabez erri ortan, euren etxegintz lanak.

Orregaitik da etxe bikain askogaz beteta dagoen uria, eta baleiteke, beste alango uririk munduan ez egotea.

Bisigodoek, ainbat eleiz batzar nagusi ospatu ebezan uri orretan, 932ko urtean IIIIn Abderramanek menperatuarte, eta 1.085ean VIIn Alfonsok moruengandik askatu eban denboretatik, ostera iraun eban bere erregetzazko nagusitasunean.

17 izan ziran Toledon ospatu ziran eleiz batzar nagusiak, erromatar denboran asita 400eko urtetik, 527ko urte bitartetan katolikotasunaren aberritasunezko eleizarenak bakarrik izanda, eta 589ko urtearen irugarrenetik aurrera, garrantzi aundiagokoak kaisertzazko arlo orretan.

1.520, 1.522ko urte bitartean, Toledo izan zan I Karlosen aurka, erkidegoaren gudak⁽²⁾ bideratu ebazan.

Eta I Karlosek arrezkerotzik, Toledo ia bere bizi guztian euki eban espainiar kaizartzaren uri nagusi lez, bere maldabera, espainiar gorteakoak Madrillera aldatu ziran asita.

Orregaitik, naita norkeriaren batzangotasunezko asmakuntz orreik arberatutako⁽³⁾ izatasunean egon arren, ñorentzat ez zan arritzekoa izan bear, bisigodoen eleiza katolikuaren bidetik aria artuta, gaurko espainiarrak batzangotasunaren menpeko irudi ori Toledon eukitea, euki eben kaisertzazko edesti itsuagaz gaur be, 325eko urtean Nizean egin ziran eleiz batzarretan eta munduko gizarteak katolikotuteko artu ziran erabagiaz dabilako, sasijainko lez bizi gura daben guzti orreik.

Eta naita frantziar eta espainiarrak euren hurraldeak dirala esan arren, or erdian daukie Euskalerrria, bere eskubideak aldarrikatuz gain, bere jabetasunagaz begirunea eukitea eskatzen dauana, “Euskalerrria eskubidearen jableduna dalako, euren naikeriaren aurka”.

(1) Atanajildo = 551-567ko urte artean bisigodoaren Tolosa eta Toledoko erregea. (2) Erkidegoaren gudak = gerra de la comuidades, o, de los comuneros. (3) Arberatutako = agusanizado.

Laster izango dana, giza bizitza amiltegiaren ertz edo ta leze bazterrean kokatu egin ondoren, gure mundu onetako eginkizunak beartuta agertzen diralako aldaketa sakonak egitera, ertz edo leze bazter orretatik urruntzea gura badogu.

Eta "bereztasun" orretara itzultzeagaz, gizaren eskubideetara itzultzea esan gura dauan lez, adi egonda, or berrezkuratu daiguzan ostera, gure berezko eskubideak.

Espainiar eta merkantilerisiko mundu katoliko orrek, edesti bidez eta zuzendu barik, ekarten dabezan ainbat maltzurrezko guzur lodi orreik, urriñetik be arnas artu ezinanean, nazkagarritzko kirats inguru baten zartzen gaitu.

Arritzekoa da, mundu onen jakintsu guztaiak, "norkerizko ameskeri zital bat baiño besterik ez dala jakin arren, guzur orreitan irautea, berezko gizarteak ainbeste nekaldizko oñazean sartuz".

Omosapiens jakintsua ote da ?

625eko urterarte iraun eban, erdi ugarte onen ego/ekialdean Atanajildoren erregetzan ezarri ziran Bizanziotarrak, arik eta Suintila erregeak bota ebazan arte.

Eta Justinianorekin egin eban bakezko itzarmenagaz, Betikako zati bat, Bizanzioaren menpean itxita jaio zan Spainiako Bizanzioaren lurraldea, gero Espainian biurtuko zana.

Justiniano indar asko egin eban mendebal ta ekialdea Lurrarteko itsaso guztiaren inguruagaz, ostera erromatar kaisertzaren agindupean ezartzeko. Lortu ebazan guda garaipenak baiña, bere biziaren denbora be ez eban iraun.

A ta guzti, betirako lortu eban garaipena, erromatarren legeak bildumatuteagaz lortu eban, gaurko legeak, lege orreitan oiñarrirituta dagozelako.

568ko urtean, I Liubagaz igon eban Leobijildok Toledoko bisigodoaren erregetzazko aulkira 568, 573ko urte bitartean, gero bera bakarrik eginda 586ko urterarte.

Leobijildo onek irasi eban godoispanikoen erregetza, erromatarrak Kordoba, eta Sueboak Orense uri nagusi lez artuta eukiela.

Leobijildo erregea, Ermenejildo Santuaren eta I Rekaredoren aita izan zan.

Arrianoren ikasbidekoak izan ziran Bisigodo errege guztiak onarte, eta Leobijildok bere semea Ermenejildo il eban: Ermenejildoren emazte ta San Leandro gotzaiaren katolikotasun aolkularitzagaz len, Ermenejildok arrianismoaren siniskera ezetzatu edo ukatu ebalako katoliko biurtuta, eta aitarekin borrokan asita, aita menpean artu eta atxilotu ebanean, Ermenejildo ez ebalako arrianotar gotzain baten eskutik Jauna artu nai, Leobijildok il eban bere semea. Katolikuak santu eginda, Jorraillaren 13an ospatzen dabena.

568ko urtean Lonbardoak sartu ziran Italiako lurraldeetan eta or amaitu ziran godoen eragipenak Europa Erdiko lurraldeetan, Krimeako godoak izanaz geien iraun ebanak, arik eta 1.475ko urtean Turkoak menperatu arte.

572ko urtean il zan I Liuba⁽¹⁾ eta beragaz batera zuzendu ebena Toledoko erregetza, bere anai Leobijildo⁽²⁾ ezarri zan bisigodoaren erregetzazko aulkian.

Jesaleikotik Leobijildoraiño, danak izan ziran Arrianoren eritzizko erlijioñoak, eta Leobijildoaren erregetzan sendotu zan bisigodoen Toledoko erregetza, Sueboen erregetza eurokaz alkartu zanean.

(1) I Liuba = 567-572ko urte bitartean bisigot errege izan zana bere Leobijildo anaiagaz batera.

(2) Leobijildo bisigodoen erregea = 568-573ko urte bitartean bere anai I Liubagaz jaurkitu ebena Toledoko erregetza eta 573-586ko urte bitartean bakarrik. Ermenejildo eta I Rekaredoren aita.

581eko urtean Leobijildok, gaur Bitorianoko erritxoak kokatuta dauan lurretan eta Zuiako taldean esan leike “*Vitoriacum*” erria irasi ebal.

583ko urtean Sueboren errege Miro il zan, ta Galiziako sueboen errege aulkira bere seme Eborikok igon ebanean, bere koñatu Andekak bota eban errege aulkitik, eta Andeka Miro erregearen Siseguntia alarguna eta Eborikoren amagaz ezkondu zan, bere erregetza egi edo zentzunean sendotzen ibili zalako. Guzti au Leobijildoren ikuspen onarekin, beren begiak erreñu orretan be egon ziralako, arik eta bisigodoen arteko eztabaidak bakeztu ta gero, bere txanda agertu arte.

584ko urteetan Leobijildo erdi ugarte onen lurraldean porrot egin eban guztiz, arriaren erlijiozko arloetan bat egiteko, bere seme Ermenejildo emaztearen alegiñakin katolikotuta, aurka euki ebalako Sebillako lurraldeetatik, arik eta Leobijildo aitak, semea menperatu ebanean il eban arte.

585eko urtean Leobijildok, Ermenejildo semea il ondoren, Galiziara joan zan lurralde orreik ostera berrezkuratzeko eta Andeka atxilotu, bere ulea koroi eran moztu, ta lekaidetxe batera sartu ondoren, Leobijildok, Sueboak euki eben diru ta errege altxorakaz geratuta, Sueboen erregetza ezereztu eban, bisigodoen lurralde bat lez geratuta.

Malariko sueboek egin ebezan alegin batzuk, baiña danak alperrezkoak izan ziran.

586ko urte onetan il zan Leobijildo Bisigodoa, eta beste errege bisigodoaren oituran bezela, erromatarren jaurkintzazko legean egokituta egon, lege orreik denbora guztian euren gogamenera eratu edo ta aldatzen ibili ondoren, Leobijildo berak, beren semeagaz euki ebazan arazo gogorakaz, sinismeneko eritziaren zalegi edo itsutasun guztien gaiñetik, laster

Ⓔ

Bisigodoaren Toledoko erregetza.

I Rekaredoren Arrianismotik katolikotasunaren itzulketa Degraintar Muñoz margolariak eginda.

Konturatu zan, Konstantinoren katolikotasuna zala bidea, kaizartzaren batzangotasunezko ametsak garaitzeko, eta bide ori artu eban.

Orregaitik Leobijildok bere eriotzaren aurretik, beste seme I Rekaredo⁽¹⁾ limurtu eban arrianismoa baztatu egian, eta Katolikotasuna besarkatu, kaisertza sendotzeko.

I Rekaredok leen egin ebena, bere Ermenejildo anaiaren iltzaillea Sijberto aurkitu ta il eban, ortik aurrera katolikoan lagunaza, bere aldera aldatuta.

587ko urtean I Rekaredok bere ama ordezkoko lez Goswinta artuta eta bere emazte Badagaz arrianismoa alboratu eta katolikotasunera otsandi, ospe edo eta andimandikerian aldatzeko apaintzen asi zan.

(1) I Rekaredo = 516-601eko urte bitartean bizi zana eta 586-601eko urterarte Toledoko leen errege katolikua.

Erriak ez eban onartu aldaketa ori, erlijioaren aldakuntza bat, ez dalako alkondara bat aldatzea lez, eta I Rekaredo eta Masona gotzaia Meridako zaldun nagusi batzuk euren lekuetatik kentzeko alegiñean, auek matxinatuta, erromatar sorburutik etorten zan Lusitaniako Klaudius Dukea sartu bear izan eban erdian, eztabaida orreik bakeztuteko, eta Toledoko IIIIn eleiz batzar nausien antolaketakaz asi ziran, aurkako eritzi orreik bakean sendotzeko.

588ko urtean I Klotariok, bere anai Klodomiroren semeak il ebazan, Frankoen erregeztazko lurralde osoakaz geratzeko.

589ko urtean Loraillaren 8an ospatu ebazan I Rekaredok IIIIn Toledoko eleiz batzar nagusiak, eta ortxe emoten jako ostera be indarra, I Konstantino ta I Silbestre Aita Santuak 325eko urtean asmatu ebenai: *“mundu onen gizarte gustia, norkeriaren katolikotasunezko siñezkintzan jaurkitzeko”*.

Iruñako gotzaiña aipatzenda birriten Toledoko batzar orreitan, leenengoa emen izanda. Ortik aurrera datoz zoritxarrez Toledoko menperatzaille eleiz batzar nagusi orreik, katolikotasunezko abertzaletasunean zaldikatuta⁽¹⁾.

15. Oar-txiki bat emen.

Emen ikusten doguna argitasun guxtiagaz, “katolikotasunezko ezarpen au, irabazkizunean⁽²⁾ antolatutako gauza zala.

Eztabaidakatu egiten zana, ez zala gure arimak bear eben ekanduzko jokaera edo jarduera, gaiezko irabazki ta agintaritzak izan zirelako emen odoljarioz jokatu zirenak iru gizaldietan, etenbageko borrokaren oituran, gaur arte iraun dabenak.

Jainkoarengandik guk ezer jakin bage, arrokeri ta maixukeri guxtiagaz irukoiztu gendun, batzuen egintaritza Berarengandik datorrela esateko.

Eta argi dago, gu ez garela berezetasun onetara sasijainkoarenak egiteko etorri, bereztutako bizitz onetara danok bardiñ jaiio, eta askatasunaren zorreskubideko ordezkaritzaren ardurak, Jaungoikuak gai oneri bereztu ta oiñarritu eutsoezan lege edo arau bidetik, bakotza zor dabezana gaiezko arlo oneik bideratuz, daukagun baitaren aolkularitzan bakotza ikertzen asten garanean, gaiak erakusten dauan eran aurrera egiteko baiño ez garelako etorri.

Sekula ez, Jaungoikoak bereztutako Izadi onen gaiak oiñarrituta daukazan legeen gaiñetik, eta lege orreikaz baldintzatuta gaiak erakusten dauan denboraren aurretik, gaur egiten dogun antzera⁽³⁾.

Bestela goazan ikertzen katolikotasunak zer esangura dauan eta zertarako balio dauan bakarrik: Jaungoikuaren legeen aurka eta Jaungoikuaren zeregiñetan begirunebageko norkeriz sartuta, guzurra egiztu gura danean, maltzurutasunaren guzur ori elikatzeke, guzura baiño besterik ez dabelako balio, Euskalerriko edesti onetan argi ikusiko doguna.

Baten batek esango daust, zer egiten ote dogu guk, Jainkoaren gauzatan sartuta, Berak gai oneri bereztu eutsozan legeari jaramonik egin bage ?.

(1) Katolikotasunezko abertzaletasunean zaldikatuta = cabalgando en el fascista nacional-katolicismo impositor. (2) Irabazkizunean antolatutako gauza = cosa de lucro, idea ganancial, producto de un egoismo lucrativo. (3) Gure berezko azturaren oituran = gaiak erakusten dabezana lege.bidetik baiño besteri ez.

I Rekaredo izan zan Toledoko erregetzan leenengo errege, abade baten eskutik katolikotu egin zana, eginkizun orregaz erritarrak be katoliko eritzian sartuta, eta arrianotar gotzaiari ezkongetasuna⁽¹⁾ bakarrik eskatuta, arrianismoaren erliki, liburu eta gurketa-rako euki zituzen gauzai, Jainkoaren epaiketa⁽²⁾ bat egin eutsoen.

I Rekaredo izan zan Gotran frankoaren erregea menperatu ebena, eta Karkasona, Audeko lurraldean Karkasona ibaiaren ondoan dagon uria bereganatu ondoren *“arrazoiz jaurkitu ebala”*⁽³⁾ diño e batzuk, arik eta 601eko urtean Toledon il zan arte.

Leobijildogaz, erdi ugarte onen lurraldeakaz bat egitea lortu egin zala esaten dabe, I Rekaredorekin erlijioaren bat egitea, ta baita gero Rezesbintorekin lege agintean bat egitea.

Gura bai, baiña eurak be ez dabe sinisten ori, gaur be orduko arazo bardiñakaz gabizelako.

601eko urtean I Rekaredo il zan orduko damu arrunt⁽⁴⁾ bat egin eutsoen, abadeak azken igurtzia emonda, eta bere ondorengo II n Liuba⁽⁵⁾ I Rekaredoren sasisemeak, Toledoko bisigodoen erregetzazko aulkira igon eban 603ko urtean, bere inguruko Biterikok il ebena.

603ko urtean, Biteriko⁽⁶⁾ igon eban Toledoko bisigodoaren erregetzazko aulkira, eta arrianismoaren eritziko erlijioa berrezkuratu gurean, bere ingurukoak bazkari baten il eban, bere gorpua Toledoko kaleetatik narrazka ibilita.

609ko urtean, Gundemarotar Flabiok⁽⁷⁾ igon ebanean Toledoko erregetzaren aulkira, euskaldunakin eta erdi ugarte onen bizanziotarrakin borroka gogorrek euki zituzen.

610eko urtean Gundamarotar Flabio onek, Toledoko eleiz batzar nagusiak ospatu ebazan, eta Biterikok berrezkuratu gura ebazan arrianismoaren eritziak, baztertu ebazan.

Gundemarok, Betika, Lusitania eta Septimaniako gotzaiñengaitik siñatuta egon zan agiri bat zabaldu eban, andik aurrera, Toledo zala agintean gotzaingo guztien gaiñetik nagusia esaten ebana.

612ko urtean il zan Gundemarotar Flabio au, eta bere ondorengo lez ***Sisebuto***⁽⁸⁾ ***Jakintzua*** esaten eutsoenai igon eban Toledoko erregetzaren aulkira.

613ko urtean Sisebutok, Iliberis, Jaen, Korduba, eta abarreko gotzaiñari emon eutsen agindua, juduak bateatzeko legedi bat egien, eta bateatzen ez ziranak erbesteratzeko keiñadakin egiela agiria.

Diru ta iltzeko zigor aundiekaz agertu zan agiri ori, eta Toledoko IV n eleiz batzar nagusiak izan ba ziran lege orreik erabagitzeko, eleiz batzar orreitan ez ziran kontuan artu, gotzain legegilleak agindu ebena, legedi sorta ori geratuta.

Sisebutok euki ebazan borrokak ugariak ziran, eta lenengoz agindu zan itxas ontzidi bat egitea, Bizanziotar eta euskaldunaren aurka borrokatzeko.

(1) Ezkongetasuna = celibato. (2) Jaungoikuaren epaiketa = ordalia o juicio de dios. (3) Ikerketan azten garanean Nor, zein edo noren arrazoiarekin ?, Danok eta “Berezitutako Izadi” onek daukaguzan orrazoiarekin ?. (4) Damu-arrun bat, edo ta azken-igurtzia = promovido por la iglesia bisigoda como penitencia pública donde el obispo de Toledo le administra extrema unción. Y si el rey sobrevivia a esa extrema unción, dejaba de ser rey. (5) II n Liuba = I Rekaredoren semea 601–603ko urte bitartean bisigodoaren erregea eta bere ondorengoa Biterikok il ebana. (6) Biteriko = 603–609ko urte bitartean bisigodoaren errege izan zana, bere ariñauko I Rekaredo il eban ostetik, eta arrianismoa oster euren artean sartu gurean ibilita il ebena eta beren gorpua kaleetaik narraz ibili ebena. (7) Gundemarotar Flabio = 609–612ko urte bitartean Toledoko errege izan zana bere ondorengoa Sisebuto izan zan. (8) Sisebuto Jakintzu bisigodoa = 612–621eko urte bitartean bisigodoaren errege izan zana.

Astur euskaldunen matxintasuna sortu zan, Rikila eta Suintilatar dukeak bakeztu ebena eta frankoak menderatuta euki eben Kantabria be berrezkuratuta.

Euren esanetan izan bear dauana, nik ez dodazelako ikusten Asturias, Bizkaia eta Kantabriako euskaldunak euren agindupean. Eurak ango jabetasuna gure naian korrika ibili zirala bai, sua leku guztietatik piztu egiten zaizkielako, baiña ori bakarrik.

619ko urtean, eta jakiteko 325ean Nizeako batzarrean sortu ziran erromatar katolikotasunezko eleiztarrak izan zirala nagusiak inkisizio edo fede zaindi lez, errigizarteak kontrolatuta eukiteko, itxas ontzidi onegaz, Malaga ta Kartajena be menderatu ebazan Sisebutok, lurralde bi orreitan beste guztietan lez gotzaindegiak irasita, gero lurralde bakoitz orreitan eleiz nagusiak jasotzeko, gotzaiñak errialde edo lurralde bakotzean eleiz batzar nagusiak ospatzeko euki egien aukerea, eta eleiz nagusi onen artean ospatuen, Santa Leokadiaren izenean, Toledon eraiki zana izan zan.

621eko urtean, sendagailu lar artuta il zan Sisebutu Jakintsu au, eta ondorengo lez bere seme IIn Rekaredok⁽¹⁾ igon eban Toledoko errege aulkira.

IIn Rekaredo au baiña, egun bakar batzuen ostean il zan, eta bizanzio ta euskaldunen aurka gudarien artean garrantziduna Suintila gudari burua izan zan lez, bera igon eben Toledoko erregetzaren aulkira.

621eko urtean igon eban Suintila⁽²⁾ gudal nagusia Toledoko erregetzaren aulkira eta 621, 631ko urte artean erdi ugarte onetatik Bizanziotarrak bota ostean, Toledoko erregetzaren eragipena, peninsula onen lurralde osoan zabaldu zan euren ustez.

625eko urtean, Ebro ibaiaren ibarretan matxintasun gogor bat sortu zan, Suintilak bakeztu ebena, Braulio Santuaren esanetan. Egia baiña, Oliten euskaldunen eraso aundiak euki ebazala da, Oligikus guda uria irasi bear izanda, euskaldunen aurka egiteko.

631ko urtean Suintila erregeari, Sisenandok bideratzen ebazan zaldunak edo aundikiak matxinatu jakozan, frankoen errege I Dagobertoren⁽³⁾ laguntzagaz. Eta Sisenandok, Suintila kendu eban erregetzazko aulkitik, bere anai Jeila edo Iundila be aurka euki ebako erdi ugarte onen egoaldean, Suintilaren baimenik bage dirua be egiten ebanak.

631ko urtean igon eban Sisenandok⁽⁴⁾ Toledoko bisigodoaren erregetzazko aulkira.

633ko urtean Sisenandok guztiz menperatu ebazan Suintilaren gudalozteak eta bere agintaritzza sendotu naian, Toledoko IVn eleiz batzar nagusiak bildu ebazan, juduentzat ertsabideko⁽⁵⁾ lege barriak atarata.

Orretarako, San Isidororen eskutik agertu ziran erregearen birtute edo onbideak izendegi edo errolda baten idatzita, euren izatasun sakratuak ikutu ezinezkoak izan zitezen:

a).-Erri bateko jaurkintzak, sekula ez dira izan bear naierazkoak, ez alditsuak be.

b).-Beti egongo dira eskubideari lotuta.

d) .-Aukeratu egiten diran erregeak, eleizagaitik igurtziak⁽⁶⁾ izan bear dira, eta ortik aurrera iñork ezin dau beren aurka ezeren gauzarik egin ***“Jainkoak aukeratutakoak diralako”***.

(1) IIn Rekaredo = 621-621eko urtean egun batzuk baiño ez eginda errege lez il zan. (2) Suintila gudal nagusia = 621-631ko urte artean Toledoko bisigodoaren erregetzazko aulkira igon ebana. (3) Frankoe errege I Dagoberto = 600-638ko urte artean bizi zana eta Frantziko IIn Klotaroren semea. (4) Sisenando = 631-636ko urte bitartean Toledoko bisigodoaren errege izan zana. (5) Ertsa-bideko lege barriak = *leyes represivas contra los judios*. (6) Igortzi sakratua = *unción sacra*.

Begitu, zelan ikusten dogun katolikotasuna indartzen, euren antolamenduzko gauzak sakratuzko neurritan ezartzen diranetik.

Sisenandok, Suintilaren aurka egitearren, frankoaren errege I Dagobertori eskatu eutsen, urregorritzko eta urrezuri edo zillarrezko azpillak⁽¹⁾ pitxiakaz beteta.

Frankoek baiña, Salduba edo Zaragoza inguratu eben, eta askenez Sisenandok, 200.000 sueldo edo orduko denboraren diru metakaz egokitu bear izan eban.

Sisenando au, beti egon zan eleiztarren eragipenean, orregaz ***pairatsu edo gibel aundita ortodoxu edo siñiste zuzeneko gizona***”ren ez izenak ipini eutsoen.

635eko urtean I Dagobertok burgundioekin eginda gudalozte bat, euskal lurraldetara joan zan auek menperatzen, alperrik baiña, oneik benetako amaren semeak izan zirala erakutsi eutsoelako.

636ko urtean baiña, beste eraso aldi gogor bategaz lortu eben, euskaldunak on artzea Burdeoseko Aijina dukearen agindutara egotea.

636ko urtean il ziran Sisenando au eta Isidoro Santua, bere ondorengo lez Txintila igonda Toledoren erregetzazko aulkira.

636ko urtean Txintilak⁽²⁾, Sisenando il zan egunean eta gotzaiñak egin eutsen igurtzi sakratuagaz igon eban Toledoko erregetzaren aulkira, iru egun beranduago Vn Toledoko eleiz batzar nagusiak ospatuta Santa Leokadiaren eleizan, eta erregetzaren ondorengo arazoak aurkeztu ondoren, sendi aundikien zerrenda bat egin eben, euren semeak erregetzazko zerrenda orreitan ezartzeko.

Eta emen ikusten da argitasun guztiagaz, eleiztar oneik ez ebela izten ezertxo be kontuan artubage, iñor ez zediñ iñundik iñora sartu euren eritzizko izaeratik kanpo erregezko antolamendu orreitan. Ipinten ebazan ate orreik, sakratuzko ziñeskintzakaz itxita.

638ko urte onetan il zan I Dagoberto errege merobinjioa, eta franko erregetzaren indarrak makaltzen asi ziranean, euskaldunenak asi ziran indartzen Akitanian, euren gizarteko guda antolakuntzak sendotzen arduratu ziranetik.

638ko urtean Txintila errege onek VI Toledoko eleiz batzar nagusia ospatu eban Santa Eulaliako eleizan, erdi ugarte onen erdialdiko gotzai gitxien batzaldiaz.

Bertan egon zan San Braulio gotzaiña, eta eleizaren ikasbidea erabagitu, ilketaren zigorra kendu, ta erregesemearen onuratsuak baikuntzatuta, arrazoi zerrenda bat aurkeztu eben eleiz maikideak baldintzapetuta, erregearen aginteak ezereztu edo ta debekatu egiten ebazanak, gotzaien baimenetik kanpo ibiltzen ziranerako.

Diru mordoak artzen ebazan erregeak, juduak katolikotasunezko erlijioara biurtzeakaz, eta itzultzearen agiriak sinatuazo ta asko erbesteratu arren, judu geienak izan ziran erdi ugarte onetan geratzen ziranak katolikotasunezko erlijioa besarkatu barik.

639ko urtean il zan Txintila, eta ondorengo lez, bere seme Tulgak igon eban bisigodoen Toledoko errege aulkira.

Tulga⁽³⁾ gaztea zala eta Txindasbinto Iruñatik matxinatuta, aundiki edo zaldunak izendatu eban errege, eta Toledon igurtzi sakratuagaz koroatu eban.

(1) Azpil = bandeja. (2) Txintila = 636-639ko urte bitartean Toledoko bisigodoaren erregea. (3) Tulga = Txintilaren semea eta 639-642ko urte bitartean Toledoko bisigodoaren errege izan zana.

641eko urtean il zan Suintila errege izan zana, eta berak errege izaneko denboran irabasi ebazanak, Toledoko erregetzaren altxor tokira itzuli ebazan.

642ko urtean Txindasbinto⁽¹⁾ Tulga erregearen aurka matxinatuta, 79 urte euki ebazanean igon eban bisigodoaren aulkira, indar andiko gizon au, Leobijildoren erregetzan garrantzi aundieneko ekintzatatik, guda ta matxintasun guztietan egonekoa izan zan.

Rezesbinto⁽²⁾ semeekin jaurkitu ebazan bere erregetzaren askeneko bost urteak, ondorengo lez izendatuta gero.

642ko urtean Txindasbintok, Txintilako erregetzatik berari eginekoakaz, bereizpeneko lege bat atara eban, erri, aberri edo bere erregetzaren aurkako zelatan ibili zirenak zigortzeko.

Eta beren aurka ibili ziranai, iltzera zigortuz gainera, euren ondasunak legez kenduta, bizi gura ebenai, iltasunezko zigor ori beste zigor bategaitik truk edo aldaketa egin ezkerro, begi biak utsunduta, itzutasunezko zigorra euki eben orde.

Zigor onein eragimena indartzeko, gotzai eta jauregiko jaurkintzan ibili ziran aundi-kieri, ziñez itz emotera beartu ebazan.

Eta legegintza onein eragiteak indartu edo ziurtzeko, Toledoko VIIIn eleiz batzar nagusiak ospatzea agindu ebazan, artean beste ainbeste antzeko astokeri baimentzeko, nai eleiztarrentzat, nai jaurkintzan ibili ziranentzat.

Txindasbintok, zaldun edo andiki eta erdiko maillatik il ebezanak, 700reunetik gora dirala esaten dabe. 200 andiki eta 500 baiño geiago erdi maillakoetatik.

642ko urte onetan euskaldunen laguntzagaz, Froja deitzen zan buruzagi aundi bat asi jakien erasoan tarrakonenseko lurraldean, Oppila ongi ikasiko gazte bat ilda, euskaldunak gainera, Salduba edo Zaragoza ille batzuk ingurututa euki ondoren, frankoak bialdutako gizon ordari talde bat be atxilotu eben, frankoak bisigodoakin euki ebazan artu emonak estutasunezko larri alditan sartuta.

Txindasbintok baiña, bere seme Rezesbinto bialdu eban gudalozte indartsu bategaz Zaragozan inguratuta egon ziranak askatzeko, eta euskaldunak menperatuz ta Froja il ostean, inguratuta egon zirenak, askatu ebazan.

649ko urtean naita euren legearen aurkakoa izan, euskal erasoko ekintza orreri begira, garrantzidunezko bide bat sortu zan bisigodoaren politikan, Txindasbintoren erregetzazko aldakuntza bakez egiteko.

Salduba edo Zaragozako gotzaitegiko Braulio Santua, Tarazonako gotzai Eutropio, eta Ebro erdiaren kokatuta egon zan gizartearen barrutiko Zelso jaurlari edo agintariak izan ziran eritzi onen sortzilleak.

646ko urtean Epailaren 26ko egunean il zan San Isidororen ikasle ta Saldubako artxapezpikua izan zan Braulio Santua.

649ko urtearen Urtarrillako 29an, Irurak ariñautik egineko eskutitz bat bialdu eutsoen Txindasbintori esanez, bere seme Rezesbinto artu egiala beragaz batera Toledoko erregetza jaurkitzeko, gero bera izango ezanean, ezeren eragozpenik bage ondorengo lez errege izendatzeko, eta on artu eban egun onetan esaten eutsena irukote orrek, Rezesbinto erregetzazko lanetara kidetuta.

(1) Txindasbinto = Tulgaren aurka matxinatuta, 642-653 urte bitartean izan zan hereje, eta berak ospatu ebazan VIIIn Toledoko heléis batzararak. (2) Rezesbinto = Txindasbintoren semea eta bere aitagaz 649- 653ko urte bitartean jaurkitu ebana, 653-672ko urte bitartean bakarrik.

651eko urtean Salduba edo Zaragozako San Leandro gotzaia il zan, bere ordez Tajon eta Bragako San Frutuoso igonda Saldubako gongotzai barrutiaren agindutara.

653ko urtean il zan Txindasbinto erregea eta bere ondorengo lez Rezesbintok igon eban Toledoko errege aulkira.

Rezesbinto onen denboran asten da politikaren gesaltzea, 672ko urterarte iraungo ebana, Rezesbintok bakeak billatzen asi zalako beren aitak zigortu ebezanen artean, eta orretarako Toledoko VIIIIn eleiz batzar nagusiak ospatuko eban, garrantzi aundikoa izanda Rezesbintok arlo onetan egin ebana, bere erregetzan ispainia edo Toledoko erregetzak atsedean aundi edo arnas sakonak artu egiazan, esaten dabenez.

653ko urtean Abenduko 16an, Santa Leokadia eta Pedro ta Paulo eleiz nagusietan egin ziran VIIIIn batzar nagusiak, lurraren jabetasunak egokitzeko, Rezesbinto berak, Suintila erregearen legetaraiño atzeratuta agiri bat sinatu eban, bera eta ez beren semeak be, ez ebela ondorez artuko, euren aita jabetu zan lurrakaz.

Batzarraren beste zeaztasun artean, bera ez ebela igurtzi errege lez agertu eban, eta bertan egin ziran eleizkizun orreik.

Juduaren erlijioa be ikutu eben, eta katolikotasunaren batzagotasun osoak gure eban lez, onek beti agertzen ziran ondo zigortuta.

Baiña zigor aundienak, Toledoko erregetzaren aurka agertuko ziranentzat agindu ebazan.

654ko urtean Eleizak, baimena emon eutsen Rezesbintori bere aita Txindasbintok asi eban "*Liber Iodiciorum*" argitaratzeko.

655eko urtean Rezesbintok, IXn eleiz batzar nagusiak ospatu ebazan, Toledoko IIIn Eujenio artxapezpikua maiburu zala.

656ko urtean Rezesbintok eskatuta, Toledoko Xn eleiz batzar nagusiak ospatu ziran.

657ko urtean Rezesbintoren emazte Reziberga il zan, emendik aurrera ezkundugabe geratuta, eta Palenziako lurraldeetan San Juan de Bañoseko eleiza irasi ebanean, Jainkoari eskaiñi eutsen bere koroatzean ibili eban ziñez itzezko koroia "*Guarazar'eko*"⁽¹⁾ gorde leku ospatsuan itzi ebana.

666ko urtean Meridako eleiz batzarrak ospatu ziran, euskaldunen aurka borroka batzuk eukinda, eta sueboaren eskuetan egon ziran Lusitaniako lurraldearen gotzai barruti batzuk be berrezkuratu ebazan Rezezbtintok.

672ko urteko Iraillaren 1ean, Rezesbinto Toledotik urriñ egon zala, Salamankako lurraldearen Gertikos'eko errian il zan.

Eta bertan egon zirala, naita adiñ askokoa izan, Bamba⁽²⁾ aukeratu eben Toledoko bisigodoen erregetzarako, ta Bambak onartu eban beren koroatzea, igurtzi ostean, Toledon oiuka aukeratu⁽³⁾ ta koroatu egiten ba eutsoen baldintzagaz.

Gertikoseko urian, Rezesbintoren eriotzean egon ziranak, indartsu ta bereizgarritasuneko gizona zalako aukeratu eben Banba, berak an bertan egon zirenari, baten batek beren aurka zeozter eukiten ba eukan an bertan esan egiela eskatuz, eta naita an egon ziranak ezer esan ez arren, laster asiko ziran matxintasunak bere aurka.

Eta emen esan leike asten dala bisigodoen maldabera, bisigodoaren aundienetariko sendi bien artean asten diralako borroka gogorrak.

(1) Ziñez itz emoteko ibili eban corroia = korona votiva. Guarazar = ZAR orrek, euskal zentzuzkoa da.

(2) Wanba = 672, 680ko urte bitartean Toledoko bisigodoaren errege izan zana. (3) Toledon oiuka aukeratu eta koroatu = después de ungrle en la ciudad Gérticos, si en Toledo proclamaban su elección.

673ko urtearen udabarrian Banba, Toledotik urtetan egoala euskaldunen aurka joateko, Ilderiko kondea, Gumildo gotzaia eta Ramiro abataren matxintasuna adierazi eutsoen, Wanbak, Paulo dukea bialduta matxintasun ori bakezteko.

Matxintasunaren aitzaki, arrazoa edo ta atsekabea, Toledotik bialdutako jaurkintzazko ardura geiena, ispanien⁽¹⁾ eskuetan egon zalako zan, erriko abadeak esku aundia artuta matxintasun orreitan.

Banbak, Paulo duke ispanoa bialdu eban Septimaniako matxintasuna bakezteko, au bertara eldu zanean baiña, matxinatuen nagusi biurto zan, eta Narbonara eldu zanean Tarrakonenseko dukeagaz alkartu ta Toledoko jaurkintzaren aurka aurkeztuz, zabaltsun aundiak artu ebazan matxintasun orrek.

Matxinatutakoak batzar baten egon zirala, Paulo dukeak, errege barria aukeratu bear zala ta asi zan, eta bera aukeratu eben errege, bertan koroatuta igurtzitu ostean.

Paulok, eskutitz bat bialdu eutson Banbari, egoaldeko errege zala adierazten, Paulo ekialdeko erregetzagaz geratuta.

Paulok, eleiza guztiak euki ebezan diru ta urrezko altxorrek batu ebazan, errege guztiak lez, berak be, altxor edo diruzka orreik, bear ebenean eskuz eukiteko.

Paulo, Franko, euskaldun ta saioiaren laguntza eskatzen ausartu zan, Banbak baiña, euskaldunai irabazita, Narbonara⁽²⁾ bideratu zan bere gudalozteakaz.

Banba Narbonara eldu zanean, iru zatitan banandu eban bere gudalozte aundi ori, ta Tarrakonenseko lurraldeakaz jabe, Bartzelona ta Jerona menperatu eta Auñamendiak igaro ondoren, Narbona menperatu ta saskildu eban. Gero, Beziers, Ajde ta Nimesen Paulo dukea babestuta egon zan lekura joanda, menperatu ebazan mantxintasun orreik, Paulo kondea bertan atxilotuta.

Banbak, Paulo eta beste 53 gudal nagusi epaitu ebazan aukeratutako IVn eleiz batzarrean Txindasbintoren legeakin, **eta atxilotutako guztiak eleizaren aldetik kanpoan edo exkomunikatuta, eriotzera zigortu ebazan laikotasun aldetik.**

Banbak, eriotzezko zigorrak parkatu eutsezan guztieri, oneik lapurtu ebezan diruzko altxor guztiak euren jabeari itzulita, eta jaurkintzazko arduradunak aldatu ta matxinotutako kideakaz egon ziran juduak erbesterratu ebazanean, Toledora joan zan sei illabete geroago, matxinatutako buruen uleak moztu ta arrain ezurra euren buru gainean ipinita euki ebala.

675eko urtean Toledoko Santa Maria eleizan XIn eleiz batzar nagusiak ospatu ziran, Banbak bertan beste gauzaren artean, lekaide ta abadeai, gudarako izkilluak artzera beartuta.

680ko urtean Urrillaren 14an Banba, bere ezauntza bage edo inor ezagutzeko utsunean⁽³⁾ agertu zan, eta bertan egon ziranak oliodura edo azkeneko igurtzia⁽⁴⁾ emon, eta ulea koroï⁽⁵⁾ eran moztu eutsoenean, azken igurtzia artu ta gero ezin ebalako ostera erregetzazko lanean jarraitu, bere erregetzazko almenak moztu eutsoen.

(1) (Spanien) Septimaniako biztanleri **GALI** esaten eutsoen. (2) Narbona = Frantziko lurraldean Robine errekaen ondoan len erromatarren galia-narbonense zana, eta gero bisigodoaren erregetza kokatuta egon zan uria, 1.507ko urtean Frantziako koroara alkartuta geratu zana. (3) Ezaumen bage = sin conocimiento, o, con la facultad cognoscitiva perdida, edo inor ezagutzeko utsunean = inconsciente, no consciente, con la facultad de conocer perdida. (4) Azken igurtzia = extrema unción, o acción de untar. Gracia y comunicación especial del Espíritu Santo, que mueve a la virtud y perfección. Última unción sacramental que consiste en la unción con óleo sagrado, que el sacerdote administra al que está en peligro inminente de muerte por el perdón de sus pecados a modo de penitencia. ("Nor ote gara gu Jaungoikuaren gauzatian sartzeko"). (5) Ulea, koroï itxuran moztu = tonsurar.

Banbak ostera bere ezautzera eldu zanean, aurrerantzean errege izatea amaitu jakola konturatu zan, eta agiri guztiak siñatu ebazan Erbijio⁽¹⁾ errege izan zedin.

680ko urtean Urrillaren 15ean Erbijio izendatu eban errege eta Urrillaren 21eko egunean Toledoko Julian gotzai buruak, bekokian olioagaz igurtzi ondoren koroatu eban.

Ez ote izango azpikeri bat izan, Bambari, Erbijio berak edo ta Toledoko Julian gotzai buruak, zeozer emonda ezauntza galduazo ta ulea aiñ arin koroiaeren eran ebagitzea ?.

Gogorrezko zigor lez artu bear izan eben apaizak edo eleiztarrak, Banbak 675eko urtean, gudaren zorigaitzezko uneak agertzen ziranean, beartu ebazanean izkilluak artzera.

681eko urtearen Urtarrillan ospatu ziran Erbijio agindutako Toledoko XIIIn eleiz batzar nagusiak, ta bertan ziurtatu egin zan, Banbak zelán artu eban lekaidetzazko jazkera, ta siñatu ebazan agiriak Erbijio errege iza zedin.

Erbijio, Toledoko XIIIIn eleiz batzar nagusiak ospatu ebazan, eta bere alaba ta Banbaren loba Fisido, Erbijioaren suin Ejika eukén izenagaz ezkontzeko baimendu ta iztundu ziran eleiz batzar orreitan.

Erbijio onek, XIVn Toledoko eleiz batzarrak be egin ebazan.

687ko urtean Azaroaren 14an Erbijio ilkizun gaisotu zan, eta 15ean asken igurtzi edo zigorra⁽²⁾ artu ostean, bere suiñ Ejika⁽³⁾ izendatu eben ondorengo lez.

688ko urtean Loraillaren 11n, politikazko arloetan erregearengandik asita, bata besteari zer kendu, norbera danen gaiñean agertzeko jokuan ibili ziran, eta artu emon orreik estutu egin ziran lez, zorigaitzoko une orreitora eltzen ziranean, ***irtenbide bakarra, eleiz batzar bat egitea izaten zan, askabide bakar orregaz.***

Ejikkak orregaitik eta Erbijiori egin eutson ziñizpenetik askatzeko, Toledoko XVn eleiz batzar nagusiak batu ebazan, eztaibada orreik argitu egiezen.

Ez ziran konpontzen euren artean, eta 693ko loraillan Ejika berak egindu ebazan Toledoko XVIIn eta 694ko urtean Santa Leokadiaren eleizan XVIIIn eleiz batzar nagusiak ospatzea, azken baten juduaren aurka erabagi gogorrak artuta.

Eleizaren gorengo aitaren ustez, uts edo pekatu gogorra izaten zan Toledoko bisigodo erregeen aurka edozelako azpijoko bat ikusi ezker, olan izan balitz, bisigodoaren katolikotasunezko erlijioaren aurka joatea lez izaten zalako, ta beti agertzen ziran eginkizun orreik pekatu aundi lez, baten aurka joan ezker, bestearen aurka joatea lez izaten zalako.

Mendeku orreik ez ziran egingo Narbonako juduaren aurka, frankoen aurka joaten ziranean, oneik diru asko emoten eutsoelako bisigodoi, baita erritar geienak juduak ziralako, baiña juduaren aurkako gauza guzti oneik izan ziran naikoak, mauritarrak agertu ziranean, juduak eurekin lagun izateko.

694ko urtean Suniefredok, bisigodoen erregetza berentzat eta bere sendiarentzat gura ebelako, erregetzazko arazoak aundigotzen asi ziran, Ejikkak bere seme Bitiza alkarganaturata erregetzaren jaurkintzagaz.

(1) Erbijio = 680-687ko urte bitartean Toledoko bisigodoaren errege izan zana. (2) Zigorra = *unciòn penitenciaría que da el cura para el perdòn de los pecados.* (3) Ejika = 687-701eko urte bitartean Toledoko bisigodo-erreñuaren errege.

700eko urtean Azaroaren 15ean Ejikak, euren erregetza ziurtatzeko, bere seme Bitiza igon eban erregetzaren aulkira burua igurtzi ta gero, eta biok eroan ebezan ortik aurrera Toledoko erregetzaren zeregiñak.

701eko urtean, oso zalapartari edo nastuak izan ziran erregetzazko denbora orreik Bizanzioko kaisertza ta bisigodoaren artean borrokak sortuta, baita euren arazoan gainetik izurri denborak be euki ebezalako, Ejika beren sendi guztiagaz Toledotik alde egin bear izanda.

Apsimanosen aurka borrokatu ziran Bizanzioko Leonzio eta IIIIn Tiberioren kaisertzak, Afrikako lurraldeagaitik, eta erdi ugarte edo peninsula onen egoaldea Bizanzioko itxas ontzidiak erasotu ebenean, Oriuelako Teodomiro kondeak aurka urtenda, bota ebazan andik. Oso dardartiak⁽¹⁾ izan ziran euren kaisertzak.

Teodomiro Oriuelako konde onek, Balentziaren zati bat eta Murtzia jaurkitzen eban, 713ko urtean mauritarren Muza erregearen seme Abdelazisekin antolamendu bat eginga Oriuelako errege lez geratuta, moruek indar aundia artu arte.

703ko urtean il zan Ejika, ortik aurrera bere seme Bitiza⁽²⁾ jaurkituta errege bakarti lez.

703ko urtean Bitiza erregeak Toledoko XVIIIIn eleiz batzar nagusiak ospatzeko dei egin eban, eta eleiztarrak beartuta ezkondu egiezen, gero, IIIIn Alfonso´ren kondairan agertzen da zelan erromatar katolikotasunezko eleizak ezereztu egin eban erabagi ori.

707-709ko urte bitartean, uzta-biltze⁽³⁾ txar eta ainbat goze bitartean, izurri denborak be izan ziran, estutasun aundiekaz urtenda egoera ortatik.

Bitizak bere ondorengotasuna ziurtzeko, bere seme Akila be alkartu eban erregetzaren jaurkintzazko lanetara, baiña alperrik izan zan, Rodrigok ezereztu ebazalako antolamendu orreik.

710, 711ko urtean il zan Bitiza, edo Rodrigok toledoko bisigodoaren erregetzagaz egin zanean il eban zaldun batzuen laguntzagaz, eta emen asten da bisigodoaren askeneko aldia, emendik aurrera, mauritarrak artzen dabelako aitzindaritzaren⁽⁴⁾ txanda.

711ko urtean Rodrigo jaunak, IIIn Ajila izango zan urrengo erregea baiño geiago zalakoan, zaldun⁽⁵⁾ batzuen laguntzarekin Bitizaren seme Ajilari lapurtu eutsen erregetza, eta bere lagunakaz alkartuta, anaiarteko guda sortu ebalako diño, Mauritarraren sarrera erreztu ebana.

Edestiko kondairak baiña: Erregeak, Zeutako gobernari edo guda jaurlari Julian kondearen alaba Florinda⁽⁶⁾ bortxatu egin ebalako, onek gaztelua Mauritarraren eskuetan itxi ebalako, gero IIIn Ajilagaz batera Mauritarrak lagunduta erdi ugarte oneitan sartu daitezen.

711ko urtean Uztaillaren 19an Tarik Ibn Ziyad`en Mauritarrak, Rodrigo jaun godoaren gudalozteak ezereztu ebazan, Medina Sidoniako inguruaren Guadalete ibaian.

Gaurko edestilari batzuk esaten dabe, Barbateko ibai inguruan egin zala borroka ori eta kondairak Guadaleteko ibai inguruan.

Dana dala, Kadizeko lurraldean dagoz biak, leenengoa auntzen mendietatik jαιο eta beren urak Atlant Itsasora botaten dabezanak, eta bigarrena Mugado Jerezen⁽⁷⁾ ondolik joan ta bere urak Kadizeko urgolkoan botaten dabena.

(1) Oso dardartiak izan ziran euren erregetza orreik = fueron muy convulsos sus reinados. (2) Witiza edo euskeraz Bitiza = 694-703ko urte bitartean, bere aita Ejikagaz jaurkitu eban Toledoko erregetza, eta 703-710eko urte bitartean bakarrik. (3) Uzta-biltze = recogida de cosechas de que se siembran en la tierra. (4) Aitzindaritzza = guionage, oficio de guia. (5) Zaldun = nobles. (6) La Caba deitzen eutsienari. (7) Mugado Jerez = Jerez de la frontera.

Aienatu egin ziran godoak ortik aurrera, baiña ez ziran aienatu 325eko urtean Nizean, Mundu onen berezko aberri edo gizarteak indarrez batzangotuta, katolikotasunezko erlijioan jaurkitzeko asmoak.

Konstantino 325eko urtean Nizeako batzarrean eta I Rekaredo, 589ko urte ezkeroztik Toledotik bideratuta godo legebilduma orreik, 711n Pelayo jaun godoak, erromatar-godo eta katolikotasunezko sasilegedi *rex gratia dei* guzti orreikaz kokatu zalako Asturiasen.

Alan esan leike izan zala, Pelayok baiña, ez eban euki indarrik erregetza ori antolatzeko, erromatar katolikotasuna ez bazan egon zaiñ, nundik artu ostera munduaren jaurkintzazko aria.

718ko urtean erromatar-godoak moruen aurka porrot eginda, Asturiaseko Europa deritson mendikateetan, Dobra ta Kareseko erreka bitartean dauan Kobadongako gudan agertuko jakiezan aukera barriak errigizartearen batu zale menperatzaileai, katolikotasunaren eritiziko kaizertzan ostera jaurkitzen asteko erdi ugarte onetan.

-Pelayok 10.000 asturiarrekin, Alkamak bideratutako 20.000 gudarien aurka mauritarrai irabazita, erromatar katoliko menperatzaile eritizikoak, Obiedon sortuko zan Asturiaseko erregetza barri orregaz jabetu ziranean.

-I Alfonso erregearen bidez ezarri ziralako peninsula edo erdi ugarte onetako Asturiasen ostera, erromatar eta godoen norkerizko lege bilduma orreik, 768ko urtetik aurrera, Karlomajno ta Aita Santuaren ekintzagaz, Europatik zabaltzen joango ziranak.

737ko urtean il zan Pelayo, eta urrengo errege, bere suin I Alfonso katolikua izanda, or asten da ostera be, batzangotasunezko menperatzaile ari ori indarra artzen.

Franko ta Asturiasen aldiko erregeek ortik aurrera, eleiztar katolikuaren aolkuzko aginduz bideratuta, ez eben eukingo iñungo errukirik, Jaungoikuak bereztu ebazan legeen aurka joateko, eta ez berezko ta sinismen aundiko kristau erri zintzoen izkuntz ta aberriak sarraskitzeko, nai erri iltzaillezkoetan⁽¹⁾ biurtu arren, Jainkoaren ordezkotzan ezarri ziralako.

Nondik nora ezkondu ote leikez, Kristautasun eta katolikotasunezko ekanduak ?.

Gure arimak ez dira gizatzen mundu onetan, *joputzaren morroi* izateko, *nor* izateko baizik.

Eta egunen baten danok batzangotzen bagara, danon borondatezko sinistek alan eskatzen daualako izango da, gauza orreik, egiten doguzan gauza guzti on bezela, gizakiren berezko eskubideak ondo zaindu ta obeto ordezkotuta gero, berez agertzen diralako ondorio on lez:

“Jainkoak gai-giza onetan bereztu ebazan askatasunezko legeakaz, edo ta errigizartearen legeakaz, nortasunezko zentzu aundian ordezkotuta jokatu ezkerro, alkartasun aundienak lortzen diralako”.

16. Zer izan zan Euskalerrria ta euskaldunarentzat godoen etorrera ?.

Orduko euskaldunentzat, etenbageko borroka baiño besterik ez.

415eko urtetik aurrera Godoak, guda sutsuan borrokatu ziran Ugarte erdi onetan erromatarren kaisar jauntza euren agindupean eukiteko.

(1) *Erri-iltzailleak = genocidas.*

476ko urtetik aurrera godoak, ezereztu eben erromatar jaurkilaritza, baiña ez euren jaurkintzarako euki ebazan legeak, erlijiozko katolikotasunean esku aldaketa bat baiño ez zalako izan, eta 481etik aurrera Eurikogaz asita, erdi ugarte onen menperatasun billa asi ziran.

Euskalerrian godoekin ez zan gertatu erromatarren aurka gertatu zana, ez da antzekorik be.

Erromatarrakaz 600 urteko bizitza batera eginda eta euren gudari taldeetan denbora guztian lerrokatuta, ainbat gudaren amarrukeri edo trebetasunak ikasita egon ziran orduko euskaldunak, eta beti aurka egin geuntson, oneik erromatarren antzera gudarako antolamendu aundia euki arren, gure mendietan sekula be ez ziralako sartu.

Bai alderantsiz buruko min aundiak artu gure arbasoak bertatik sasigudan egiten ebeanean, Auñamendiko mendikateak euren etxea lez euki ebazalako.

Errege aulkian ezartzen ziranean euren nagusi guztiak, *et domuit baskones* esaten ebe-la, esaten dabe edestilariak, baiña danak esan bardiñekaz beartuta egon ba ziran, bere esangure orrek bakarrik argitzen dau, guzur utsa izan zala.

Orregaitik godo ta bisigodo aiek Afrikan, Europan eta erdi ugarte onetan ainbat gutatoki eukinda zabalik, eta batera ta bestera ibilteko denboraren ezean egoteagaitik, gure artean 300 urte egon arren, ez eben ezeren aukerarik euki, gure arbasoen aurka.

Gaiñera, 300 urte orreitan euren katolikotasunezko zaletasunagaz beti borrokan ibili eta guk ia erromatartuta egon arren, lege zarraren oitura euskerazko nortasunean euki gendun elburu beti, eta bereala berrezkurutzen gendun gure euskal nortasuna arlo guztietan, aukerea edo gure txanda agertzen zanean.

Txarragoa izango da gero ikusiko doguna, erdi Ugarte edo peninsula onetan eta Europa osoan antolatu egingo ziran jaurkintzako egitamu guztiak, erromatar katolikotasunaren aolkuzko agindu bidetik, ostera be betiko iru baldintza madarikatuen artean jausi bear izan genuelako, *“aurrerakuntzazko Greziaren jakiturian, menperatzailetasunezko erromatar legeetan eta judu katolikotasunezko batzangotasunaren abertzale-tasunezko oinpean”*.

Nork ulertuko ote dau, *Greziako askatasunaren demokrazizko jakituria, erromatar legegaz eta katolikotasunezko burutapen edo eritziekin naastekatu leikela ?*

Jainkoaren legez kanpoko batzango zale orreik, nai Maltzur ostondukerazko azpikaritzan agertu arren, beti salatuta agertzen dira daukien fazistar kirats usaiagaz egiten dabezan ekintza guztietan, eurak daukielako mundu onetan dauan fazistaren erpe sakan ta zabalena.

Ortik gaur arte gure bizitzak, ia urten ezindako odoljariozko lokatzartean sartuta geratu dira.

Argi ikusten da emen, Euskaldunak naita naiez, oso ezagunak izan bear giñela Europa guztian. Batez be, gure orduko lurak, askoz zabalagoak izan ziralako.

17. Oar-txiki bat emen.

Naiko argi geratu dala uste dot, Europaren mendelako lurralde au, Omosapiensien giza Paleolítico baiño ariñautik zabaltzen asi ta milla urte azkotan belaunez belauneko bizitzaren ekintzak oituratzen etenbageko azturán, eta Auñamendiak ardatz lez eukinda, Eskoziatik asi ta Kadizeraiño, eta Atlant itsasotik Alemaniako lurraldearen erdiraiño,

Europako mendebal onen zabalkuntza osoan, lurralde oneik Neolitikoan euskerearen nortasunezko ekandu eder baten agertu arte.

Eta iñoren sarrerarik ez gendulako euki 20.000 urte baiño geiagoetan arik eta K.a. 2.000n urtean keltiarrak Alemanian; K.a. 1.250eko urtean fenizioak Libanoko mendikateetan eta Lurrarteko Itsasoaren baztarretan gero beste uri askoren artean Kadizen be kokatuta; K.a. 753ko urtean Etruskoaren bidez Erroma Kuadrataren jaiotasuna; eta K.o. Vn gizaldian leiñu ezberdiñen sarrerak asi ziranetik agertzen, apur apurka euskerearen eragipenezko lurrak asi gintzazan galtzen gaur gagozan lurralde txiki onetan geratu arte, baiña ***Paleolítico Neolítico aldiaren aitor lez, euskerearen laguntzagaz lortu genduzan askatasunezko demokrazi ederrean ezer galdu bage, agertzen garan lez.***

K.a. 2.000 urte inguru zelan keltiarrak, Alemania erdigune lez artuta, Europako Ekialde guztian euren leiñuzko auzoetan laterrituta ezarri zirala.

Eta keltiarren lenengo aldakuntzak, 1.800-1.600 urte inguruetan, Britaniako ugarteetara eginda, asi ziran zabaltzen.

1.250eko urtean Fenizioak Libanoko mendikateetan eta Lurrarteko Itsasoaren artean kokatuta gero, Kadiz, eta Afrikako Iparraldean Utika ta Kartagon kokatuta.

1.200-800 urte bitartean Galia edo Frantziaren Britaniako lurraldeetara zabaldu ziran keltiarrak, Loira ibai gaiñetik eta Britaniaren itsas bazterreko bitartean Frankoak kokatuta.

K.a. 900-500 urte bitartean, burdiñezko asieran, Austriako Iparraldean Hallstatter ur geldi inguruan, Hallstarrt burdiñaren jendekuntzazko tokian ta Alemaniako ego aldean Renaniako luraldetan kokatuta egon ziranean, Keltiarren giza, Europaren Sarkaldetik zabaltzeko atondu edo prestatzen asi zan.

K.a.230eko urtean, zelan Asdrúbal Kartagoko gudal nagusiak Kartajenako uria irasi eban. Eta VI-In Mende artean, keltiarren Tene deritxon goimailazko aldi, keltiar leiñuak zabaldu zirala Europako lurralde guztietara.

Britanoak Inglaterrara joanda, Goibeloak bota ebezan.

Akitaniatik Iberiako Erdi Ugarte onetara aldatu ziran, keltieuskal errigizartea sortuta. Keltiarrak indartsuak izan arren eta euren azturan naita asko ikusikoak izan, orduko menderatzailearen denboretan ez eben garrantzi aundirik euki.

-Jendekuntzazko jakiturian be maillakoak izan edo ta neurri aundi baten askatasunezkoak izan ziralako, euren oldozmeneko asmakizunetan ez ziran eltzen besteak morroitasunera menperatzen.

-Eta orduko denboratan, zalantza orreitan kokatuta egon ezker, erromatarren antzera, menderatzaile azkar ziranagaitik bultzatuta, ia aienatu ziran Europa guztian, euskaldunaren berezko leiñutarteetan.

Euskalerriko lur zabaltasunari, zelan ortik aurrera asi jakozan murrizketak, bere lurraldea Frantziko Loira ibaitik, erdi ugarte onen erdi ingururaino, eta Atlant itsasotik Akitania osotzen ebanagaz mugatuta geratu zalako.

Zelan denbora onetan eta K.a.753ko urtean ain zuzen, Etruskoak Italiako lurraldeetan Arno ta Tiber ibai bitartean kokatuta egon ziranak, espartatar guda antolamenduan erromatarrek sortu ebezala, eta oraingoan zelan Europaren barnetik asten diran menperatzailetasunezko larri aldiak.

Erromatarrak len zentzuz ondo bideratuta egon ziralakoan euren ustez, emen asmatu ebezan benetan, gaur oraindiño norkerizko eritzian dagozan zorigaiztoko batzangotatasun gogo orreik, Munduko errigizarte guztiak, fazizta antolamendu barri onen mendean ondo zuzenduta egon gindezan.

Guda antolamendu ondoren, Latiña be sortu eben, norkeri orren mende batzangotuta izkuntz bakar orregaz bizi gindezan, gure gaurko egunerarte.

Zelan erromatarrak, gudarari edo borrokalari aundiak izan arren, sekula ez zirala izan erri bat eskolatzeko gai.

Eta ibili ziran lurraldeetatik ikutu eben guztia batzangotu baiño, erritarrak auzotasunean euki eben elkartasunezko batasunetik asita, milla zati geiagotan banandu ebezala, izkuntz ta senitasunean.

Geiago, K.a. 240garren urte inguruan norkeri bidez, euren maldaberazko arazoak asi ziraretik.

Denbora onetan, erromatar erritaren bemaillako sendi aberats batzuk, beste erritarrak jaurkintzatik bastartzeko eta euren diru zaletasunak gaintzeko, erri gurasoen sendiakaz alkartu zirala.

Eta alkartasun orren ostean jaurkintasunezko lege guztiak euren eskuetan egonda, batzuen aberastasuna, andi mandikeria, apainkeria ta kirkilleriak zelan goralduta ezin besterarte, kaizartza sortu ebenean, berau be goralduta euki ebazan sasi jainkoen maillara.

Zelan sasi legeekin berezko baserritarren antolakuntza ezereztu ondoren, menpetasunezko joputasun antolakuntzan, lur zabaleko etxagun aundiak agertu zirala.

Eta euren arbasoagandik goi maillako jakintzan lortuta eukezan ekanduzko oiturak, ortik aurrera, zelan neurri audienean galdu ebezan.

Jesus gurutzatu ebenetik, Kristau ekanduzko erlijio indartsu ta guztiz ederra be sortu ta zabalduta zala, baiña dana alperrik, norkerizko eritzi zikin orren mendean geratu zalako.

Zelan I Konstantino erromatarren kaizerrak ikusita, eurak maldabera audienean sartuta egon zirala, eta kristautasunaren sinismena orduko errigizarteetan indartsu ta zabalkuntz aundia artzen egoala oartzuz, beragaz bat egin gura ebela, eta eurak orduan jaurkintzaren buruz euki ebezan zentzuak indartu eta irudizko eran, berritzeko naian ibili zirala.

Orregaitik K.o.311n ta 313an Kristautasuna legeztu ta euren jaiak ospatzeko baimendu ondoren, zelan I Silbestre Aita santuagaz alkartu zala euki ebezan batzangotzeko asmakuntz orreik, bion artean lortzeko.

Ortik aurrera, K.o. 325ean I Konstantino, I Silbestre aita Santuagaz batera, Nizeako Eleiz batzar nagusia batzeko agindu ebela,

-Eta erromatar goitik berako araudian, Kristautasunaren katolikotasuna sortu ta alderdikedetu ebenean.

-Munduan norkeriz egin dan lapurkeri audienea egin ebela, erromatar kaisertza sakratuzko neurritan goralduta eta Aita Santuaren uts ezintasunak dogmaren arauz, mendeko eritziak bear dauzan osagarritzko siniskai legeakaz ezarri ebela, Jainkoak Ludi oneri, bereztu ta oiñarritu eutsozan lege guztiaren aurka.

Orregaitik munduko errigizarteak kontrolpean batzangotzeko kaizar edo Aita Santuaren mende, bizitzeko bear doguzan on guztiaren kontrola bear izan dabe, gaur sortzen dan lez.

Eta ziñezkintza edo dogmatika bidez olan egin ebenetik, mundu onen merkantillezko norkeri edo diru zalekeriaren fazizmoari, zelan zabaldu eutsezan ate guztiak, dogmaren arauz munduko gizartearen jakintsu geienak norkerira bideratuz, Jesusek, bereztasunaren buruz emon euskuzan aolku guztien gaiñetik.

Orregaitik ez gara arritu bear gaurko mercantilismo eta diruaren sasijainkotasunagaz, munduko errigizarte guztia mendeko asmakizun orren kontrolpean eukiaz, eurak jabetu ziralako antolakuntzazko tresneri guzti orrekin.

Eta eurekin arpel arri edo arri-zapaltzeko gailluakin izan balitz bezela, beti etorri dira gudu indar bidez Jainkoaren berezko legeak ta gizaren eskubideak zapaltzen, munduko gizon emakume geienak bizitza onen samintasunezko aldi gogorrenera bideratuta, batzuk sasijainko lez iraun egien.

Edestian zear, zelan Jainkoak ipinitako legearen aurka egin diran borroka nagusi baikoitzaren ostean eta ikusita zelako sarraski edo odoljariozko triskantzak egin ziran damu, agintarien *baítak* zuritu edo garbitu naian, beti artu dirala zentzunezko erabagi gogorrak gizartearen zor eskubideari begira.

Antza baiña, danak itxurazkoak izan direnak, urrengo egunean ostera itzultzen diralako norkeriaren lapurrezko bide zikiñ orreitar.

Eta guztiz arrigarria dana, ortik aurrera egiten daben guztia, *askatasunaren* izenean egiten dabela, da.

Baiña, nundik nora askatasuna ta menpea guztiz aurkakoak izan da, batera eroan ?.

Almen ori, Jainkoaren almena da bakarrik. Berak bereztutako gai onetara, zor eskubideko ordezkartzaren eragille lez bialtzen gaituelako.

Zelan nastatu Bere agindua, guk neurtu edo ta mugatuta daukaguzan almenakin ?.

Gure ekintza bizitz onetan uste dot, beste gauza baterako dauela antolatuta.

Jainkoari begira, nire bizitzako gazte denboratik ona, beti entzun dot mundu onetan *pekatua* dala gauzarik txar edo okerrena, eta damu ori zuritu naian, edo ta nabarkeriz danak ikusi egien, ukabillagaz bularra joten dabe.

Baiña Jainkoaren beldurrik ote dabe ?.

Antza, zeozer oker daukie sermoigintza edo irakas aldi orreitan.

Jesus, farisaukeriaren aurka borrokatu zan euken indar guztiegaz. Gaur, eta andik ona, norekin gagoz ?.

Dana dala, Vn gizaldian Suebo, Alano, Bandalo ta Unoak agertu ziran eta 410ean Erroma saskildu ondoren, I Alarikogaz asita, godoak sartzen dira erromako kaizar-gotzaren jokoa, eta Europako lurralde zabalak oso nastekatuta ta borroka ugaritan agertu ziran, euskaldunen lurraldeak batez be.

Oraiñ, eleiza katolikuaren batzangotasunezko nagusitasunak zer ekarri euskun ikusiko dogu, emendik aurrera eta mauritarrak sartu ziranetik erdi ugarte onetan, berezko erriak, erri lez alkartasun edo demokrasiaren bidetik jaurkitzeko aukerean agertuta, eraiki eba-

zan errege jauntzazko antolamendu guztiak, erlijio bidez zelan jaioten diran, Foru lege edo berezko erriaren oiturazko batzar legearen kanpotik, goitik berako aginduan eginda dagozan erroma-gotikotar-katolikotasunezko lege faziztaren menpe, indarrez batzangotzeko sare arteko txebera orreitatik, ez gendulako alde egiteko aukierarik euki.

Goiko Jainkoak Izadi oneri ipini eutsoezan legearen aurkakoa dana, ta edestian ainbat oiñaze, odolkerizko sarrasketa, nekagirot, alperkeri, morroitasunezko joputasuna, jator-tasunaren aurkako egarria, endakerizko zaletasuna, sasijainkotasunak ta ainbat zikin-keri ekarri dozkunagaz, egiztu egiten dauana, ekanduzko oker bidetik joanda, zelan gaur amiltegiaren ertzean kokatuta geratu garela, giza eskubide, ordezkari-tasuneko antolamendu ta gizaren ardurazko maila guztiak zentzunbagetasunean erabilia, gizaren eskubide, aize, lur eta ur guztiak, ikaragarritzko lokatzarte baten zingoratu doguzelako.

Godoak ezereztu eben Vn gizaldian erromatar kaizartzaren agintaritza Europako Sartalde onetan, eta 1.453ko urtean ekialdeko kaizartza Turkoak menperatu.

-Orren ostean European, beste baten izan-gaitasun bagean, Aita Santua bere ezuskortasun edo uts ezintasunezko siniskai izaera bidetik, mundua betiko erromatar asmakizunean batu ta katoliko alderdikidetzeko agertu zan errege, edo ta aolkulari nagusi lez danon gaiñetik buru, errigizarteak katolikotasunean alkarganatu ta jendekuntzatzeko, Jaungoikoak bizitz onetarako bereztu ta oiñarritu euskuzan legeak kontuan artu bage.

Eta 325eko urtean Nizeako eleiz batzarrean, norkeriaren lapurkeriz eta katolikotasunezko elburuagaz asmatu zan aberritzko alderdikeri orren arau zentzuan iraun dau Europako edesti gutzia, iru baldintza oneikaz gaurko egunerarte:

-Aurrerakuntzazko Greziaren askatasunezko jakituria.

-Menperatzailetasunezko erromatar legeak.

-Eta munduko giza, judu kristau Katoliko aberkoi batzangotzeko asmotan, alderdikeri orreitan ezartzen diran arauak.

Nork ulertuko leike, Greziak, bere askatasunezko ta demokrazizko oituran baitu eban jakiturizko eritziak, nastekatu leikezala mendetasunezko katoliko eta erromatar legeak, naita igarri ezin dan azpikaritzaren itxuran mozorrotuta etorri arren ?.

Bereztasunezko baitaren ekanduan, ulermendu ezin diran batzangotasunezko nastetasun orreik izan dira beti, gure arazoaren oiñarrizko sorburuak, Europa ta munduan ez gindezan konpondu.

Katoliko, erromatar, edo ta edozein norkeriaren menpeko lege guztiak, euren batzango asmakizunak lortzeko, bizitzarako bear doguzan arau ta mozkin guztiaren kontrola bear dabe.

Eta mudu fisiko onetan, guztiok kontuan artu bear dogu, menpeko norkerian asmatzen direzan guzur eta lapurtza orreik, Jaungoikuak bereztuta daukazan lege guztien aurka direla, eta ordezkari-tasuneko bear diran egiz edo guzurrezko diruak, ezartzen diran legegen arauzko almenaren eskutik beti oratuta joan bear diran lez, norkerizko guzurakin elikatu bear dira, egizko gauzatan guzurak, ez dabelako lekuri aurkitzen, eta eztanda egiten dabelako atomosko lerkai bat lez, Jaungoikoaren legeak alkartu gura ezkeru.

Errigizartearen jabetasunezko eragiletasunean diru ta arauzko legeak, askatasunaren demokrazizko arduraren jokatzeko, argi da danoen zor eskubideko tresneri bardiñean izan bear dirala.

Ala bizitz au, batzuenak bakarrik ote da ?.

Sekula baiña ez da gertatu ori, norkeriaren batzangotasunezko asmo orreik beti garai-
pendu diralako, eta Jainkoak ipinitako legearen aurka irauten dogulako, beren ondorioz
beti agertu jakuz okerreko sei gauza txarrenetarikoak:

*-Jainkoak Ludi oneri bereztuta ipini eutsozan lege guztitik kanpo ibiliz, beti norkeriz-
ko lapurketan eta borrokan etorri garela.*

*-Gaiak orekatuta daukazan legeak, eta gure gaitutako arimak nortasunduta daukazan
eskubideak, edestian zear beti, zirriborrotuta ekartea.*

-Dirua, indarra ta bizitzeko bear doguzan treneri guztiak, esku bakarretan egotea.

*-Aberri lez, gudu indarraren keiñu gogorraz, eta beste aberritar batzuekin nastuta
atxilotu lez, guztiz urduri egotea.*

-Maltzurrezko aize beltz barru orren indarretik urten ezinik, nor beren baitan bizi eziña.

-Munduaren orokorrezko gizarteetan, "Bakez bizi eziña".

Eta konturatzeko zelango aginte nagusia izango zan Aita Santuak euki ebena, oartu
besterik baiña ez daukagu, Europako erregeen artean gudarako indar geiago eukiten
ebanari, berak izendatzen ebezala erromako kaiserraren dedu-domiñagaz⁽¹⁾.

Erregearen iraspeneko araudiaren jabetasuna beren erabakitasunean egon dalako Ni-
zeako batzar nagusitik gaur arte.

Nizeako eleiz batzar nagusian, Europa eta gero mundu osoa katoliko erlijioan batzeko
artu ziran erabagi orreik.

Eta nai ta batzangotasunezko katoliko asmakizun orreik sortu ziranetik iru gizaldi ge-
roago, Afrika ta Europa artean Islanagaz lenengo banaketa aundia euki arren, eta gero
Europa barruan ainbeste banaketa, erri ta errigizartearen berezko eskubidearen gaiñe-
tik etorri dira gaurko egunerarte, ezer aldatu barik.

Orain goazen jakitera, zelan eragozpendu zan geiago Europaren berezko erritar bizi-
tza, frankoen erregetzak, Akitaniako jabetza eta Baskoniako dukerriaren antolamen-
duak aurkeztuta, gero erdiugarte onetan sortuko ziran erregetzak zelango eskubideekin
sortu ziran, eta zelango begirunez geratu ziran Euskalerrriaren askatasunezko jabetasu-
naren antolamenduak European egin ziranen aurrean.

18. Zer ziran frankoak gurentzat mauritarrak etorri ziran arte.

Frankoa, germaniaren aberritasunezko frank izenetik datorren itza da, eta ezeren era-
gozpenik bage, askatasunezko gizon edo erria esangura dau, nai egia izan ez arren,
eurak beti izan diralako goitik berako agintaritzaren jaurkintzazkoak.

K.a. 600 urte inguru keltiarrak Alemaniako lurraldeetatik Europa guztira zabaldu
ziranen, Loira ibai gaiñetik Frantziaren iparraldeko Britaniaren lurraldeak eta K.a.
121eko urtean erromatarrak ego-ekialdeko inguruari deitu eutsoen Galia Narbonen-
seko lurraldeetan ezarri ziran.

Guk orain baiña K.o. Vn gizaldian eta erromatarren maldabera gogorrean, frankoen
erregetzagaitik berba egin bear dogu, orduan Europak artu ebazan eraso ugari aldiaren

(1) Dedu = fama, gloria, reputación. Domiña = insignia, medalla.

sorrerari esaten jakon garaian, erromatarren Galiako mugak aldatu ebezanagaitik berba egin bear dogulako.

Sartu ziran leiñu guztienetatik, Salioagaitik berba egin bear dogu, I Klobisegaitik bideratuta leiaketa guztietatik eurak garaille geratuta merobinjioaren leiñua irasi ebenak ziralako.

Loira ibai gaiñean bretañako lurraldeetatik zabaldua, erromatar gotzai barruti geienetatik zabaldu ziran, len germaniar Tolosako bisigodoen erregetza ta burgundioaren errege leiñuak botata.

K.o. 406ko urtean Abenduaren 31n, erromatar Flabiotar Onorio egon zala ekialdeko kaisar lez, Alano, Suebo ta Bandaloen silingos eta asdingozen leiñuzko taldetan bananduta egon ziran germaniarrak, Rin ibaiaren aldaketa eginda, franko ta erromatarren gudalozteai irabazi eutsoen, Renaniaren lurraldeetatik urtenda gure auñamendietaraño, gelditu ezinezko eraso baten eginda.

481-511ko urte artean, I Txilderiko franko-Salio erregearen seme Klodobeo⁽¹⁾ izan zan Tournaiko⁽²⁾ lurraldeetan lenengo erregea.

Klodobeo erregetzara eldu zanean egon ziran politikako banaketak

Burgundioen errege II n Txilperikoren alaba Santa Klotilde⁽³⁾ printzeagaz ezkondu zan eta au kristau katolikua izan zan lez, Klodobeo katoliko biurtu eban erromatar katolikotasun indartsuagaz indarra artzeko. Reimseko gotzai San Remijiok bateatu ta bere gudalozteak, eukezan gudal nagusi guztiekaz batera.

Rin eta Meno ibai arteko franko guztien leiñuak menperatu ebazan, baita Galian zabaldua egon ziran Bayeuxko saioi, Armonikako alano, eta Poitouko taifalak.

486ko urtean Klodobeok, Somme ta Loira ibai bitarteko lurraldean, Siagriro erromatarrak

Dux'en izenarekin jaurkitzen ebazan azkeneko erromatar lurraldeetara joanda, Soissonseko zelaietan Siagrioren⁽⁴⁾ erromatar gudalozteak menperatu ebazan ta Armonikako lurraldeakaz jabetu ondoren, Akitanian II n Alarikori irabazi eutson, eta bertan ilbe egin eban.

496ko urtean Elba ta Mai ibaiaren luzeetara egon ziran Alaman leiñuak menperatu ebazan.

(1) Klodobeo = 466-511 urte artean bici zana, eta frankoen errege 481-511ko urte bitartean. (2) Tournai = Beljikan, Hainaut'eko erri-aldean eta Eskalda ibaiaren ertzean dagoena. (3) Santa Klotilde = 475-545eko urte bitartean bizi zana, bere satutasunezko jai eguna Bagillaren 3an ospatzen da. (4) Siagriro = 430-486eko urte bitartean bici zana. Erromatar Galiaseko kaisertzaren askeneko jaurlari 464-486 urte bitartean izan zana. Klodobeok Soissons'en menderatuta, Siagriro Alarikonera joan zan babesten, baiña onek ostera emonda Klodobeori, or amaitu zan erromatarren kaisertzazko ekimena.

507ko urtean I Klodobeok, Loira ibaiaren azpian egon ziran Bisigodoak menperatu ebazan Bouilleko zelaietan, eta Auñamendiak igaroazota, erdi ugarte onetara bialdu ebazan, batzuk Lurrarteko itsasoaren Septimania eta Probenzako errenkadaren lurraldeetan geratuta.

Eta 507ko urte onetan I Klodobeok, Pariseko uria izendatu eban frankoren erregetzazko uri nagusi lez, naita eurak ezeren baketazko jaurkintzarik euki ez.

Franko erreñuaren banaketak

Eta I Klodobeo au izan zan merobinjioaren erregetzazko leiñua edo Frantziako errege leiñua irasi ebana, bere Merobeo aititeren izenagaz.

511ko urtean I Klodobeo il zanean, erregetza bere lau seme nagusiaren artean banandu zan.

Danak ipar mendebalaren franko Salioaren lurraldeetan, I Teodorikok Reimsean, I klodomirok Orleansen, I Txilderbertok Parisen eta I Klotariok Soissons.

524ko urtean I Klodomiro il zanean, I Klotariok bere anai Klodomiroren seme biak il zituzen frankoen laterriekaz⁽¹⁾ geratzeko errege bakar lez, eta irugarren seme Klodoaldo santuak sarraski ortatik iges egitea lortuta, Klodomiroren erregetza, I Klotario ta I Txilderbertoren artean banandu zan.

532ko urtean turinjioak, 534ko urtean burgundioak eta 560 urtean saioi eta frisoiak frankoen erregetzara aldatu ziran, naita indar asko egin bear euren askatasunaren billa.

534ko urtean il zan I Teodoriko, eta I Teodoberto bere semea naikoa izan zan erregetza babesteko bere osaba I Klotariok egiten eutson eriotzezko erasoetatik, bera izanda bakarrik Bizanzitarren menpetik askatzea lortu ebana.

535-554ko urte bitartean, ostrogodoen erregetzagaz amaitu eban I Teodeberto onek, Italiako guda gotikoetan be ibili zan, ordurarte erromatar Retia, Noriko eta Beteniako lurraldeak izan ziranetik zati bat artuta, Teodebaldo bere seme ta ondorengoak ezin ebazanak eutsi, eta bere eriotzean erregetzazko jabetasun guztiori, bere osaba-aitite izan zan I Klotarioren eskuetara aldatu zan.

558ko urtean I Txilderbertoren eriotzagaz, frankoen erregetza guztiak aldatu ziran I Klotarioren eskuetara.

561eko urtean il zan I Klotario⁽²⁾, eta bigarrenez banatzen da frankoen erregetza bere lau semeen artean.

I Karibertok, Paris euki eban uri nagusi lez eta mendebaleko Galia jaurkitu eban.

(1)Laterriak = los diferentes estados de los francos. (2) I Klotario = 497-561eko urte bitartean bizi zana.

I Gontranek Borgoñako erreñu zarra, Orleans uri nagusi lez eukela eta Probenzako zati aundienagaz geratu zan.

I Sijebertok, Probenzatic geratzen zan zatiagaz, Aubernia, ekialdeko Akitania eta Austrasiako Reims ta Metz uri nagusiakaz geratu zan.

Eta I Txilperiko anai gazteenai, Soissonseko erregetza, gero Neustrian biurtuko zana. Bereala asi ziran lau anaiok euren arteko ilketetan ezeren begirune barik, bata bestearen erregetzagaz geratzeko.

587ko urtean Andeloten elkargoagaz, Brunejilda Austrasiaren ordezeko erregeñ alarguna eta Borgoñako errege I Gontranek, Frantziko erregetza osoa lez agertzen dabe ararteko frankoen erregetza.

Franko lurraldeen jaurkintza aldi onetan, irukoitzaren jaurkin izakera artuko eban, Austrasia ta Neustriaren nagusitasunezko borroketatik, irugarren lez Borgoña agertu zalako bere artekaritzaren bidetik, eta bere edesti guztian iraungo eban artekaritz orregaz.

592ko urtean I Gontran ondorengobage il zanean, Borgoñako erregetza osoa, Austrasiako II In Txilderberto erregearen eskuetara joan zan.

595eko urtean il zan II In Txildeberto, eta frankoen erregetza ori bere seme bi nagusien artean banandu zan, II In Teodobertok Austrasia, ta II In Txilderbertok Akitaniari kendu eutson zatiagaz Austrasiako erregetzakin osotu zedin geratu zan, II In Teodoriko anai txikerrak, Borgoña eta I Gontranek Akitaniari kendu eutson beste zatiagaz geratuta.

Anai biak alkartu ziran euren lengusu II In Klotario Neustriako erregeari kentzeko beren jabetasuna, eta nai Neustriako lur geienakaz jabetu, ez eben II In Klotario arrapau.

599ko urtean anai biak, Dormelles edo Eskalda ibai arru edo Salioen lurraldeetara joanda, Dentelineko dukaterria menderatu eben, bien artean baiña euren amama Brunejildak zirikatuta, sinisgaitz edo bata bestearen gibel beldurrean sartuta⁽¹⁾, bien arteko borrokan asi ziran, amama onek asarre agertu zalako II In Teodobertoren jauregitik bota eben orduan, eta amamak II In Teoderiko⁽²⁾ eskuratuta, alegin guztiak egin ebazan Austrasiako erregetzagaz geratu zedin, II In Teodorberto il ondoren.

602ko urtean eta euren erregetza denboratan, II In Teodeberto ta II In Teoderikok euskaldunen aurka borrokatu eben, Gaskuñako lurraldeetan, bertan Baskoniako Dukaterria irasita, merobinjioaren menpetasuna nabaritzeko.

Euren franko edestilarien esanetan, euskaldunen aurka ibili ziranean, Auñamendiak aldatuta Bizkaia, Araba, Nabarra ta Gipuzkoa be menderatu ebezala esaten eben. Egia ez dana, 612ko urtean bisigodoaren eskuetara aldatu ziralako.

Egia ote da baiña, euskaldunak franko ta bisigoaren menpean bizi giñela ?.

610eko urtean II In Teodebertok, II In Teoderikori kendu eutson Alsasiako Dukaterria, ortik aurrera ainbat borroka bizi bien artean eukinda, Alsasiako lurraldeak nungo erregetzari egokitu bear jakozan, Borgoñakoari ala Austrasiakoari, VII In gizaldiko amaierararte iraungo ebena.

(1) Bata bestearen gibel beldurrean sartuta = introducidos en la total desconfianza entre ambos. (2) Thierry rdo Thierry = Teoderiko.

612ko urtean II In Teodorikok, II In Teodoberto Toul eta Tulbiakaren borrokatan menperatu eban Loira eta Senako ibai arteko lurraldeak kenduta, eta II In Teodeberto ta bere semea il egiezen agindua emonda, II In Teodorikok bere aita II In Txildebertok lez, bakarrik bideratu eban erregetza guztia ortik aurrera. Denbora gitxi baten beintzat.

613ko urtean II In Teodoriko, bere aita II In Txildeberto il zan antzera, bera be II In Klotarioren aurka gud-aldi bat antolatzen egon zanean Metz'en il zan, ondorengo lez bere seme II In Sijeberto ipinita.

613ko urte onetan eta merobinjioaren erregetzan, Austrasia, Borgoña eta Akitaniako jaurkintza, bere birramama Brunejildaren ordezkio erregetzan, II In Sijebertoren eskue-tara jausi zanean, jaurkintzazko neurri aundiko ardura aundiak artuta egon ziran Borgoña ta Austrasiako Barnakario, Rado eta Landeneko Pipino etxezaiñak zaldunaren laguntzagaz mai inguru baten batzartu ziranetik, Neustrasiagaz alkartzeko eta II In Klotariori almen guztia emoteko.

Eta II In Klotariok garaipen ori lortuta, iru erregetza orreik errege batek eroan dagiezan, Brunejilda birramama eta bere 10 urteko billoba II In Sijeberto il ebazanean, garrantzi aundiagoa artu eben iru etxezaiñ orreik, bakoitza beren erregetzazko jauregiaren etxezain izendatu ebazanetik aurrera.

614ko urtean eta lortutako garaipenaren ostean II In Klotariok, Pariseko agindua argitaratu eban, jaurkintzazko zuzenbidearen usteltasunak garbitzeko eta Austrasia, Borgoña ta Neustriaren arteko artu emonak argitzeko.

623ko urtean Austrasiako errigizarteak, errege bat eskatzen eben eurentzat, II In Klotario beti erregetzatik kanpo ibilita, ia atzerritar baten antzera euki ebelako, eta II In Klotariok egoera ori ikusi ondoren, bere seme I Dagoberto ondorengotu eban erregetzara Austrasiako errege lez, on artua izan zana gudaloztearen aldetik, euren erredolako babes tresnakin⁽¹⁾ gora ta berako aizatu ostean.

Eritarrak, II In Klotario Metzeko erregetzan kanpotar bat lez euki ba eben, bere ariñauko Neustriaren erregetzazko jaurkintzan euken azkuntzagaz ez ebelako bat egiten izan zan.

A ta guzti II In Klotariok, iru erregetza orren askeneko bazterreraiñoko kontrola eroaten eban.

Merobinjioaren erregetzka

628ko urtean Akitaniako frankoaren erregetzan, Tolosa euki eben uri nagusi lez Gaskuñagaz batera, gero Akitaniako Dukerria deituko zana.

Urte onetan il zan II In Klotario, eta bere seme I Dagobertok, erregetegi antzeko bat emon eutson bere anai-orde II In Karibertori, eta oneri deitu jakon Akitaniako Dukerria.

(1)Erredolako babes tresnakin = escudos para la defensa personal.

Akitaniaren beste garrantzi aundiko uriak Kaors, Ajen, Perigueoux, Burdeos eta Sain-tes ziran, Baskoniako Dukerriaren zati bategaz.

632ko urtean II In Kariberto garaipen batzuk lortu ebazan euskaldunaren aurka, baiña oneik ostera jabetu ziran euren lurraldeakaz bera il zan ostean.

Urte onetan I Dagobertok, II In Karibertoren ondorengoa zan Txildetikoren umea il eban, lurralde guztiak bere zainpean eukiteko.

Zalduba edo Zaragozatik be egin eban ostera bat beren gudalozteakaz, Suintillaren aurka matxinatu zan Sisenandori laguntzeko.

633ko urtean eta Txildetikoren umea il ostetik, Austrasiako aundikiak beartu eutsoen I Dagobertori, bere seme III In Sijeberto bialdu egiela euren artera errege lez, Austrasiatarak askatasun geiago gure ebelako, Neustriarren jaurkintzazko kontrolpetik urteteko.

635eko urtean, Bretoiaren Judikael agintaria matxinatu zan, frankoaren zaindaritzape-
tik urteteko, I Dagobertok baiña gudaloztearen keiñada egin ondoren, bretoiak euren lepoan euki zituzen zergak ordaindu ebazan.

Urte onetan I Dagobertok gudaloste bat bialdu eban euskaldunen aurka, garaipentsu edestilariak diñoen lez.

635eko urtean I Dagoberto burgundioakaz eginda gudalozte bat, euskal lurraldetara joan zan auk menperatzera, alperrik baiña, oneik benetako amaren semeak izan zirala erakutsi eutsoelako.

636ko urtean baiña, beste eraso aldi gogor bategaz lortu eban, euskaldunak on artesa, Burdeoseko Aijina dukearen agindutara egotea.

636ko urtean il ziran Sisenando au eta Isidoro Santua, bere ondorengo lez Txintila igonda Toledoren erregetzazko aulkira.

636ko urtean Txintilak⁽¹⁾, Sisenando il zan egunean igon eban Toledoko erregetzaren aulkira, egin eutsoen igurtzi sakratuagaz, eta iru egun beranduago Vn Toledoko eleiz batzar nagusiak ospatu ziran Santa Leokadiaren eleiza orreitan, erregetzaren ondorengotasunezko arazoak aurkeztu ondoren, sendi aundikien zerrenda bat eginda, euren semeak erregetzazko zerrenda orreitan ezartzeko.

638ko urte onetan il zan I Dagoberto errege merobinjioa, ondorengo lez bere seme III In Sijeberto ipinita, eta franko erregetzaren indarrak makaltzen asita, euskaldunak euren antolakuntzak sendotzen asi ebenetik aurrera, indarra artzen asi ziran Akitanian.

639ko urtean eta frankoen erregeak alperkeri edo nagikerian sartuta egon zirala, III In Sijeberto semerik euki ez eben errege gaztea, Austrasiako jauregiaren etxezain I Gri-moaldo zarrak, limurtu edo eskuratu eban bere semea ondorengo lez artu egian, Txil-deberto izenarekin beren eriotzaren osterako.

Eta 639ko urte orreitan III In Sijeberto erregeari, Turinjiako Radulfo dukea matxinatu jakon, bera be errege gura izan ebalako.

640ko urtean Radulfo duke orrek alegin guztiak egin ebazan errege izateko, III In Si-jeberto onek Austrasiako nagusiaren ezean egonda, ez zalako gai izan euren leiñuzko

(1) Txintila bisigodoa ta Sisenandoren semea = 636-639 urte bitartean bizi zana. Berak batu ebazan Toledoko Vn eleiz batzar nagusiak.

uste osoa eskuratzeko, eta IIIIn Sijeberto menderatuteagaz, agertu ziran orduko erregearen gai-eza erria aurrera atarateko.

Frankoen errege leiñuan IIIIn Sijiberto erregeari ortik agertuta: *leenengo alper edo nagikerizko erregearen izena ipini eutsoen.*

Santu egin ondoren, bere eguna Otsaillaren 1ean ospatzen da

I Dagobertoren ondorengoa IIIn Klodobeok, Neustria ta Borgoñako erregetzak batera euki arren, bakoitza bere gorteko gizonakin zuzendu ebazan bere umetasunezko errege denbora guztian, bere ama Natilde, eta Neustriako erregetzaren Erkionaldo etxezaiñaren errege ordezkotzan.

Eta Neustriako etxezaiñaren Erkionaldoren ondorengoa Ebroinok, beren naierara zuzendu eban lez erregetza ori urrengo 15 urtetan, etenbageko anai-guda baten iraun eban orren erregetzazko denbora guztia.

656ko urtean IIIIn Sijiberto il zanean, Austrasiako erregetzaren Grimaldo etxezaiñak, Irlandara kanporatu eban IIIIn Sijibertoren odolesko seme IIIn Dogoberto, Austrasian bien bitartez, Sijibertok bere erregetzara len ondoregotu eban Grimaldoren seme Txildeberto, erregetzazko aulkian ezartzen eben artean.

661eko urtean, Neustriako jauregiaren etxezain Ebrinok, merobinjioaren erregetzak batu ebazan, IIIn Klodobeoren urrengoa, IIIIn Klotario ipinteko IIIIn Sijibertoko erregetzan ondore lez, eta lortu eban IIIIn Klotario ondoretu, Grimaldo ta bere seme Txildeberto il ebazanean.

Austrasiarrak, IIIIn Klotario errege egin ebenetik, euren jaurkintzarako errege bat izendatzea eskatzen eutsoen, eta IIIIn Klotariok bere anai txikerra IIIn Txilderiko bialdu eutsoen errege lez.

Arnúlfidas eta Karolinjioaren igoera

Eristaltar Pipino

Akitaniako Dukaterria oriz margoztuta

IIIIn Klotarioren errege denboran frankoak, Italiako Ipar-mendebala erasotu eben, eta Lonbardoaren errege Grimoaldok Ribolinen irabazita, Turiñen ondotik bota ebazan.

672ko urtean Frankoak, euren aurka beti ibili zan Toulouseko Felix errigurasoi emon eutsoen Akitaniako jaurkintza Auñamendietaraiño, eta oso bitxia⁽¹⁾ izan zalako, bere ondorengo Lupo´k eroan eban aurrera Eudesegaz amaitu arte, onek erregetzaren izena ipintea lortu ebalako Galiaren egoalde oneri.

673ko urtean il zan IIIIn Klotario eta Neustria ta Borgoñako nagusi batzuk ots egin eutsoen IIIn Txilderikori euren errege izateko, frankoen erregetza guztiak esku baten osterata batzeko.

(1) *Bitxia = original, extravagante. Oitura-Bitxiak = de costumbres curiosas.*

675eko urtean baiña, Borgoña ta Neustriar nagusi orreik II n Txilderikoren jaurkintzagaz aspergarrituta, il eben.

Frankoen erregeak alperrak zirala, etenbageko borrokak euki zituzen etxezaiñak lar sartzen ziralakoa jauregiko jaurkintzan, Eristal'tar Pipino erregetzazko etxezaiña nagusitu zan arte.

687ko urtean Tertryko borrokan, menperatuta geratu ziran Neustriarrak, eta III n Teodorikok, Arnulfidatar Eristaleko Pipino, frankoren erregetza osoaren etxezain nagusia izendatzera beartuta, *dux et princeps Francorum* lez, au da, franko guztien Duke ta Printzearen izen buruagaz izendatuta geratu zan. Eta ortik aurrera etxe zaiñaren azpian geratu ziran merobinjio erregeak, Pipino berak eroaten ebalako franko guztien jaurkintza.

689ko urtean Eristaltar Pipinok, menperatasunezko antolakuntzak asi ebazan Frisiaren mendebaldeko Fli ibaiaren lurraldean, Rin ibaiaren bokale edo ibai ondoko Dores-tad'eko borrokan frisiaren errege Roadbod menperatuta, Eskalda ta Fli ibai arteko lurraldeak, frankoen egipidera aldatuta.

690eko urtean Pipinok, Frisiaren erdialdean Fli eta Ems ibaiaren arteko lurraldeak erasotu ebazan eta Utretxt'ekin geratu zan.

695eko urtean Eristaltar Pipinok, Utretxt'eko gotzai barrutia irasten lagundu eban, eta frisiaren Willibrord gotzai santuaren eskutik, frisiaren katolikotasunezko erlijioara aldatzea lortu ostean, ekialdeko Frisia, frankoen babeskanpo geratu zan.

Pipinok, ainbat garaipen lortuta Austrasiako iparraldean frisiaren aurka, egoaldera aldatu zan Alamanaren aurka borrokatzeko.

709ko urtean Eristaltar Pipinok, Billeari⁽¹⁾ Ortenauko dukearen aurka borrokatu zan Gotfridoren seme gazteak, dukaterri orren agintaritzazko aulkian ezarri egiezen, beste baten agintaritzan eskua sartzearen baiña, borroka geiago sortu ebazan.

691 eta 711ren urte arteko IV n Clodoveo ta III n Txilderbertoren erregetzak, *alperrezko erregearen* itxura guztia euki arren, Txildeberto bere erregetzazko epailari nagusi lez, euren ugazaba senditzen ziran Arnulfidasen aurkako epaiketa gogorak euki ebazan

711ko urtean Uztaillaren 19an Tarik Ibn Ziyad'en Mauritarrak, Rodrigo jaunaren godo gudalozteak ezereztu ebazan Guadalete ibaian, Medina Sidonia inguruan.

Godoak, ortik aurrera aienatu ziran, baiña ez ziran aienatu 325eko urtean Nizean, Mundu au jaurkitzeko katolikotasunezko erlijioan batzangotutako asmaoak.

Godo, bisigodo edo ta ostrogodoak, Euskaldunak menperatzen ebezala esaten dabe.

Iñundik iñora baiña begituta be, ez da egia, euskaldunak euren Paleolitiko Neolitiko eragipenetik, iñork menperatzera joan ez arren eta K. a. 2.000 urtetik ona ainbeste gizarren sarreragaitik bata bestearen bultzada bidez lekua aurkitzen edo menperatzen ibili ziranen artean ainbat lur galdu arren, Paleolitiko-Neolitiko aldiko baitan lortu eben askatasunezko demokraziaren jendekuntzazko ederrenetik ez dabelako galdu ezer.

Paleolitiko Neolitiko jendekutz ederraren "Aitorle" agertzen gara euskaldunak, gaur iñork ezin dabena esan edo azterketa sakonak egin ondoren argitu leikezanak, naita 325eko urtean Nizean artu ziran menperatasunaren joputasunezko erabagietatik urten egin bear lenengo.

(1) Billeari = Willbeari, ortenau'eko Dukea.

712ko urtean, Pipinok beste borroka bat euki eban alamanakin eta irabazi ondoren, alamanak frankoen jaurkintzazko agindutara geratu ziran.

Arnulfidaren eragipenean ez ziran egon Galiaren ego aldeko lurraldeetan baiña, estutu egiten ziran lurralde arteko arremanak askatasun geiagoa eukiteagaitik, Auxerretar Sabariko Borgoñako gotzaia, Probenzako Antenor, ta Akitaniako Eudesez zirikatuta.

713ko urtean, Ebro ibaiaren erdi aldeko Kasi bisigodoaren konderrian agertu ziran mauritarrak, onek Omeyako Kalifatoaren alde kokatuta eta islaneko erlijioa besarkatu ondoren, Banu Qasiren leiñuari asiera emon eutson, bera lurralde orren jaurleri lez geratuta.

714ko urtean Eristaltar Pipino il zanean, Akitaniako Dukateria frankoen erregetzara lotuta egon zan, eta bakezko itzura emoten ba eben jaurkintz orreik, laster biurtu ziran euren arremanak anai arteko guda zitaletan, mugaldeko lurraldeak, pipinidasen eragipenetik alde eginda.

Pipinok, Teudoaldo euki eban etxezain lez ondorengotuta bere Plektrudis alargunaren agindupean, IIIn Dogoberto erregearen aurka agertu zana, Dogobertok, Rajenfrido izendatu gura ebalako etxezain lez merobinjioaren errege guztientzat.

Laster agertu zan irugarren leiakidea Eristaltar Pepino erregearen sasiseme eldua izan zan Marteltar Karlosegaz⁽¹⁾ Austrasiako etxe zaintza eroateko.

Plektrudis ta Teudoaldo biak baiña, IIIn Txilperiko Merobinjioaren errege ta bere etxezain Rajenfridogaitik menperatuta, Marteltar Karlosek IIIn Txilperikoren aurka kokatuta, bere Merobinjio erregea IVn Klotario igon eban erregetzara.

716ko urtean Iruña mauritarragaitik menperatuta egon zan, euskaldunen alegiñak oso zitalak izanda.

718ko urtean asken baten, Marteltar Karlosek Soissons' eneko borrokan bere etsai guztiak menperatuta, beartu ebazan euki zituzen ardurak bertan izteari, berak on artuta aldi baterako beintzat Txilperikoren etorkizuna errege lez, bere aita Pipinok euki ebazan ardura nagusiak frankoen erregetza guztietan truke artuta, Merobinjioaren errege leiñuak amaitu ebena, eta Martel ta bere ondorengo karolinjioak jaurkitu ebazan ortik aurrera frankoen erregetzak etxezain lez, naita erregeak izan ez arren.

Urte onetatik aurrera Martelek, frankoen nagusitasunezko eragipena idartzeko, borrokan asi zan Europako mendebal onetan

718ko urte onetan Karlosek, matxinatutako saioiengandik asi zan Eroparen mendebal onetatik indarkeriz.

718ko urte onetan be, Iruñako urian sartu ziran mauritarrak eta beartuta geratu ziran Iruñarrak zergak ordaintzera mauritar jaurlariai.

719ko urtean Marteltar Karlos, Frisiako mendebalaren lurraldeetatik ibili zan.

720ko urtean IIIn Txilperiko il zanean, Marteltar Karlosek IVn Teodoriko ipini eban errege lez, au baiña ez zan panpabixi bat baiño besterik, bere eskuetan.

720ko urte onetan, Mauritarrak peninsula onen jabetasun osoa lortu eben, eta Galiasetan aurkako *razzias* edo, azkartasunezko eraso alditan asita, Toulouserri eraso eutsoen.

Eudes Aundiak, bere ardurazko lurraldea babestearren, erdiugarte onen iparraldeko mauritarren Emirra Abinessa zanaren alabeagaz ezkondu zan.

(1) Marteltar Karlos = "maillua" izen-goiti lez euki ebena, eta 689-741 urte bitartean bizi zana.

Abd-el-Ramanek baiña, Abinessa baztatu ta Auñamendietatik aldatuta, Autx eta Eauze menperatzera joan zan.

Mauritarrak, Autx ta Eauzen ikaragarritzko zarraskiak egin eta gero, Toursera joan ziran, erregetzaren zilborra zalako.

723ko urtean, Marteltar Karlosek ostera, matxinatu ziran saioaren aurka joan zan.

724ko urtean Martelek, Neustriaren ariñauko etxezaiña Rajenfrido eta beragaz matxinatu ziranak menperatu ebazan, euki eben anai guda zital ori amaituta.

725eko urtean mauritarrek, Frantziaren Audeko lurraldean eta Karkasonako ibai ondoan dauan Karkasonako uria artu eutsoen bisigodoari.

725-726ko urte bitartean eta guda amaituta, Babierako Ujberto babaroen dukerrirako autakuntza baldintzatu eban, ortik aurrera alamanak beartuta, berari lagundu egiotzien Babierako guda ekitaldietan, IVn Teoderikoren izenean egindako legeak azalkatuta.

730eko urtean Karlosek, Alamania menperatu bear izan eban eta bere Lantfrido dukea il.

730eko urte onetan moroak, bisigodoaren menpean egon ziran Septimaniako lurraldeakaz jabetuta, iparralderantza bideratu ebazan euren erasoak, Akitaniako Eudel dukeari, Marteltar Karlosen laguntza eskatzera beartu eutsonea.

732ko urtean Karlos Martelek Eudeleri laguntzen joanda ta Abd al Ramanen mauritarrak euren gudalozteakaz Frantziako ipar aldea erasotzen ibilita Poitiersera eldu ziranean, bertan aurkitu ebazan Eudel dukea ta Marteltar Karlosen gudalozteak, eta moruak astintasan ederra artu ta gero, Auñamendiak aldatu ebazan.

Martelentzat gauza ona izan zana, ortik aurrera Frantziaren egoaldeko lurraren jabetasuna lortzeko. Eta batez be, Europak euki eban islamizazioaren arriskutik kanpo geratuta, katolikotasunaren menperatzailetasunezko asmo eritziak jabetu egiezen.

734ko urtean Marteltar Karlosek, Frisiaren ekialdeko gudalozteakaz borrokatu zan eta lortu eban menperatzea.

734-740ko urte bitartean ta euskaldun erasoakaz beartuta, mauritarrak guda zainpean ipini bear izan eben Iruñako uria, 741eko urterarte iraun ebana.

735ean Eudon Aundiak, ez eban on artzen iñolako nagusitasunik frankotarren aldetik, eta Karlos Martel Euskalerrian sartu ta Eudon il eban. Eudonen urrengoa, bere seme I Unaldo izan zan, frankotarra zintzotasunezko ziñ-itza⁽¹⁾ emon ostean.

735ko urtean, Mauronto dukearen gudalozteakaz aurkitu ziran mauritarrak ta ekialderuntz bideratu ebazan, mauritar gudalozteak Arleseko uria menperatuta.

737ko urtean mauritarrek Abiñon artuta, euren eraso azkarrakaz⁽²⁾ Lyon eta Akitaniaraiño eldu ziran. Eta urte onetan il zan IVn Teodoriko erregea.

739ko urtean mauritarrek, naita Probenzako etxezaiñaren birreraso aldia euki, lonbardoak keñatu edo ta larderiatu ebazan, ta Marteltar Karlosek lonbardoaren laguntzagaz, ia lortu eban lurralde orren jabetasuna, eta alde batera ta bestera ibili zan, 759ko urtean, Pipino Laburrak Narbonagaz jabetu arte.

(1) Zintzotasunezko ziñ-itza = juramento de obediencia, fidelidad, rectitud, honradez. (2) Eraso azkarrak = razzias.

741eko urtearen Urrian Marteltar Karlos il orduko, erregea izan balitz lez, berak lenngo emazteagaz euki ebezan seme bien artean banandu eban erregetza, Grifon seme txikerrari iñork ez dakien lur ondasun edo beste gauza batzuk emonda.

IVn Teodoriko il zanetik ez zan egon erregerik, Marteltar Karlosen semeak, Pipino Laburra⁽¹⁾ eta Karlomanek⁽²⁾ erregetzaren ardurazkoak izanaz, etxezaiñaren ardurak bakarrik auki ebazalako, eta errege ordezeko lez, Karlomanek Austrasia, Alamannia eta Turinjiaren arduragaz geratuta, Pipinok, Neustria, Probenza ta Borgoñaren ardurak artu ebazan.

Eta bananduzko ardura orreik erakusten dabe, zelango askatasunak euki ebezan Unaldok bideratzen eban Akitania, eta Odilonek Babierako dukaterriak, banaketa orreitan ez ziralako sartzen.

751ko urte onetan Karlos Martelen semea izan zan Pipino Laburra, zaldunai laguntza eskatuta ikusten dogu, IIIIn Txilderiko bota ebenean merobinjioaren erregetzatik, zelan lortu eban karolinjioaren onespena, berak irasi ebalako Karolinjioaren errege leiñua.

19. Euskalerriko edestian, IIn atal onen “ONDORIOA”.

1. Zatian:

Aurkezpenagaz azten gara, beren mamia lenngo atalaren mamiagaz bat egiteko, eta Euskalerriko edestiaren aria jarraian ekarteko.

Egiten dodan sarreran, eta bereztasundutako mundu onek oiñarrituta daukazan legearen ardurazko ulermenean oituratuz, euskal askatasunaren demokrazizko izatasun ederra lortzeko ta Euskerearen nortasunezko baita sendotzeko bidetik, 20.000 milla urte-tik goragoko euskal azturaren ekintzak argitzen dodaz, arik eta Keltiarrak agertu arte.

K.a. 2.000n urtean Ekialdeko lurraldeetatik, lenngo jerman-keltiarrak euren burdiñezko aurrerakuntza guztiagaz aurkezten dodaz, ortik aurrera jakiteko, zelan asi ziran nastuten Eskoziatik Kadizeraño, ta Atlant Itsasotik Alemania erdirarteko euskal lurralde bitarteetan, euskaldunak askatasun osoz lortu eben euskal jatorrizko jendekuntz demokratikoa, euren auzotasunezko Batzar Nagusi bidez.

Erromatarrak agertu ziranean, euskal-erromatarren arteko arremanak be aurkezten dodaz, jakin daigun, zelako begirunegaz jokatu bear izan gendun euskaldunak, erroma-keltitar guda jokoetatik urteteko.

2. Zatian.

Egiten dodan sarreran, erromatar fazizta kaisar zaleak zer ziran erakusteko, euren edestian sartzen gara, gure artean zer gertatu zan jakiteko.

(1) Pipino laburra = 715-768 Marteltar Karlosen semea eta Karlomajnoren aita, 741-751 urte bitatean etxe-zaiña eta 751-768 urte bitartean frankoen errege bere anai Karlomanegaz batera 747ko urterarte, eta orren ostean Zakarias Aita Santuaren laguntzagaz, Merobinjioaren IIIIn Txilperiko erregea bere aulkitik botata, frankoen erregetza lortu eban eta Bonifasio Santuaren eskutik errege igurtzita 751ko urtean, Esteban Aita Santuak ostera igurtzi eban errege 754ko urtean ortik aurrera bere erregetza Akitania eta Septimaniako lurraldeetatik zabaldua, eta 768ko urtean il zanean, bere erregetza euki zituzen semebi Karloman eta Karlos, gero Karlomajno izango zanakin banandu eban. (2) Karloman = Marteltar Karlosen semea eta Pipino Laburraren anaia, Austrasiako etxe-zaiña.

*Batez be, K.o. 325eko urtean Nizearen eléiz batzarretatik, ta erromatar kaisertzan go-
doak sartu ziranetik, euskaltasunaren bidea gaur arte zer izan dan azaltzeko, bai ta ka-
tolikotasunezko erlijioak zelango indarra artu eban, Europako bizitzaren saltsa guztie-
tan sartuz, saltsatu edo ia Europako bizitzaren arnasagaz bat eginda iraun daualako
odoljarioz gaurko egunerarte, Jainkoak gaiezko izadi oneri oiñarrituta bereztu eutsezan
legeak kontuan artu bage.*

*Katolikotasunean batzangotzeko fazizmo edo indarkeria be, aurkeztu gura izan dot,
gero gure errege jauntzak agertzen diranean, garrantzi aundikoa dalako konturatzea,
euren leen antolamenduzko epai bidetik, katolikotasunean batzangotzeko indarrean
zelan apurka apurka katolikotasunagaz batera aldatu ziran al-osokerira errege jaun
orreik, ta al-osokerizko nagusitasun orrek, katolikotasunezko nagusitasuna galerazi edo
ta eragozpendu egiten ebalako, zelan kendu eutsezan nagusitasunezko agindu orreik,
apaingarrizko irudi lez izteko, erregeen azkeneko eritzi au bere lekuan agertuko dana.*

*Bai ta Ekialdeko lurretatik errigizartearen jaurkintzarako Sargon menperetzaillea-
gaz asita, errege mailla orreik norleriaren jendekuntz bidetik eta oitura bezela etorri
direla edesti guztitik kaisar agintezko zentzuan. Ordezkaritzaren ardurazko ekintzak
izan bear ziran berezko errigizartearen antolakuntzak, goitik berako aginte ekintzatan
biurtuta.*

*Jainkoaren berezko legeari begitu ta azturazko ekintzaren oituran, orduan ezagutu, eta
mundu guztiarentzat Paleolitiko Neolitiko bitarte orreitan, lortu zan askatasunezko
demokrazia, nola Asia Txikerreko lurraldeetatik asi ta, Europaren mendebal aldekoak
baino, norleriaren jabetasunezko jendekuntz orreitan 3.000 urte aurreratuagoak egon
ziralako, zigor, zorigaitz edo izurrite aundi bat bezala ikusten dogu, zelan illuntzen di-
ran apur apurka demokrazizko ekanduaaren argitasun aundiak Europaren lurraldeetan,
ekialdetik mendebalerantza Atlantikoaren itsas ertzera eldu arte.*

*Nizean asmatu zan katolikotasunezko erlijioa, garrantzi aundiko ardatz nagusian
biurtu zan, sasijainkotasun itxuran, erromatar katoliko-kaisertzaren menpetasunezko
batzagosunak lortzeko. Eta au izan da Europako edesti guztiaren odoljariozko giza-
bidea gaurko egunerarte.*

*Orregaitik aurkezten dodaz euskaldunak, mundu onen Euskaldunezko izar txiki bat
bezala, gure arbaso maiteak Paleolitiko Neolitiko alditan euskal baita lez lortu ebezan
askatasunezko demokrazazi ederrak, munduko onen giza seme/alaba ta euskal guztien
arnasa bezela, zaindu dagiguzan.*

*Iparagirrek abestuten eban lez, “emankorra izan daiten”, badakigulako munduko giza
osoari berriz emon bear dautsaguzela beren ardurak, Omosapiensen eskubide lez.*

*Gaurko gizon emakumeak ezin ote gara izango gai..., maltzurtasunezko trikimailla
guzti orretatik alde egin eta gure demokraziaren ordezkaritzazko eragipenaren ekintza
guztiak, ardurazko oitura lez, nortasunezko demokraziaren zentzupean ezartzeko ?.*

Alegiñ orreik merezi dabe zalantza barik, danon oarkerazko begiramen ederrena.

*23-24ko orri aldetan ikusten dogu, zelan 395eko Urtarrillaren 17an I Teodosio Aundia
il zanetik, Europako Mendebal eta Ekialdeak, Asiako lurraldeak bezala, naste askoko
lurraldeetan biurtu ziralako, Euskal Keltiarren bakezko egoeratik, Erromatar, Franko,*

Godó, Uno, Erulo, Eszita, Samata, Ostrogodo, Jepido, Boyo, Turinjio, Franko, Alano ta Borgeñesak ekarri eben borrokaren nastetasunezko saltsa erdian agertuta.

Geiago, Suebo, Bandalo ta Alanoak alderrai agertu ziranean Asiatik, euren bizi lekuak eskatzen sortu ziran borrokakaz, danoen ikuspegiak lokaztu egin ziralako guztiz.

Beste aldetik begituta, zelan Euskaldunak ainbesteko lokatzartetik, euki eben lur zabal-tasunezko bizitzak eta lurretan gutxitzen joan arren, zaindu edo “betiko lege zarrak” iltzen ez eben itzi, Euskal barnean ondo “Baituta” daukan askatasunezko demokrazitik aldendu gura ez ebelako eta gaur be, gura ez dogulako.

Egoera onetatik eta Mauritarrek agertzen diranean, Euskalerrria aukera ezin obeetan agertuko zan, bere euskal lurretan bear eben jaurkintzazko antolamentuak egiteko.

Zelan baiña, Jesusen Kristautasuna katoliko alderdikidetu ebenean, maltzur-tasunezko lapurtza aundi-ena egin ondoren, “katolikotasunaren aberrikuntz fazizta batzangozale ori” aurrera egingo dabela, eta munduan sortzen diran jaurkintzazko era ezberdin guz-tiak, iru baldintz faziztapean jaioko dirala.

Ondo jakin bear doguzan baldintzak dira oneik, bestela, iñoiz ez doguz ulertuko zein-tzuk diran askatasunezko egarriak beteten dabezan baldintzak:

a).– “Erromatarren sakratuzko kaisertza ta legeak”.

b).– “Norkeriz asmatutako judu–katolikotasunaren aberritasunezko batzangotasuna”.

d).– “Griego´en jakintza”.

–Eta iru baldintza oneri begituta, zelan leenengo biak, menperatzailetasunezko baldin-tzak dirala, biak diralako Jainkoak izadi oneri ipini eutsoezan berezko legearen aurka-koak: “nai mundu onek daukazan legediarenak”, “bai Omosapiensen gizakiak azturaren oiturazko bidetik, baitu ebazan “Arimarenak”.

–Eta zelan irugarren baldintzagaz, askatasunezko demokraziaren emaitzak emonez gain, guri gaiezko antzerki onetan berez eskubidetuta daukagun “asmatzailearen” ant-zezlaritzan kokatzen gaitula, mundu onetako gizon emakumearen “nortasunezko zen-tzu ederrenean” kokatzen gaituelako.

Guzti au ikusita, eskubide bardiñean jaioten garelako, danon eskubidearen ordezkari-tzazko arduratan “nortasuna dala antzezlarri nagusiena”, bere askatasunaren zentzuz-ko alderdibagekeria dalako mundu onetan dagoan altxor aundi-ena, Jainkoari arpegiz begitu gura ezkerro.

Orregaitik, leenengo biak ez dirala nortasunaren askatasunezko demokrazi zaleak, Jainkoaren zeregiñetan sartuta “irrazale” edo “sortzailearen” antzezlaritzan kokatzen diralako, eta guk ez dogulako “ezerezetik” ezer sortzeko almenik, batzangozale orreik “norkerizko jokuetan ezartzen dirala”, benetako Jaungoikuari begira gagozenai, bizitza infernu baten biurtuta.

Eta guzti oneri begituta, orreik dirala norkerizko katolikotasunaren aberritasunezko asmo txarrak, ezin diralako zorro baten sartuta alkar ekarri “Erromatar Kaisar Sakra-tua eta katolikotasunaren batzangotasunezko lerrauts edo bolboraren artean”, “supizteko poxpolloak diran Greziaren Askatasunezko Jendekuntz Demokratikoak”, euren artean ikutu orduko eztanda egiten dabelako, edesti osoan ikusten dogun lez.


Orregaitik, katolikotasunezko aberkide menperatzaileai, ortik agertzen jakie, Berezko erritartasunaren aurkakoak izatea.

Zer ziran frankoak euskaldunentzat, mauritarrak gure artera agertu ziran arteko edes-
tiagaz amaitzen dot *“In Euskalerriko edesti onegaz”*, irugarrenean, mauritarren eto-
rreragaz Europan sortu zan jaurkintzazko antolamendu barrian erreñu eta kaisertza
barriakaz, Euskaldunen ingurutasuna irudimentzeko.

Bakantasunezko argitasunean berezkatuz azalke ratuteko, zeintzuk diran Euskalerria-
ren nortasunezko azturan lortutako Askatasunaren Demokrazizko Lege Zarrak, eta
zelangoak mercantil-katolikotasunaren-kaisertzazko lege menperatzaileak.

Atutxa'tar Paul

Zornotzan 2.014ko Urrilla'ren 10ean



1936´ko GERRAREN ONDORENGO GOSETEA

1

Gauz ederra zan errotatikan
ekartzen gendun iriña,
garia eta artoa txetua
arri artean egiña;
etxerako ogia ta taloa,
ori zan gauza ,iakiña,
kaletarraren bizimodua
ez gendun orren berdiña.

2

Bizitutako gauzak asi naiz
emen bertsoz itzegiten,
ikusi gabe ez da erreza
bear bezela jakiten;
basarrin bazan animali bat
da etzuan utsegiten,
orduko astoak errotarako
bidea ondo zekiten.

3

Kale aldean etzan txantxarik,
janaritik eskaxia,
jatekoa saldu edo erosi
zegoan galerazia;
biziko bazan lapurreta zan
jende askoren grazia,
ori izan zan gerra santuak
sortu zun irabazia.

4

Goseak berriz berekin ditu
malkoak eta negarrak,
buruausterik aundiñak zitun
gosea kendu bearrak;
aur askorentzat esnerikan ez
legortutako bularrak,
inbiri pranko ematen gendun
orduko basarritarrak.

5

Neguro bazan txerri gizen bat
ikuillu baztarren baten,
ura iltzean zer pesta gendun
ez da erreza esaten;
umean gozamina bere puskak
auzotara eramaten,
orduko urdaiak kolesterolik
ere etzuten izaten.

6

Gobiernoak illero ematen
zun janari errazioa,
illan erdia iristerako
bukatzen zan puntzioa;
kontrabandoko gauzetan berriz
urrearen prezioa,
eskerrak txerrikiak egiten zun
olion zerbizioa.

7

Ñola goardi ala salatari
bazan orduko bizitzan,
gure aita zana txekorra saldu:
lazo ortan erori zan;
norbere gauzaz ezin agindu
da mixeria ori zan,
Donostin munta pagatu zun da
triste asko etorri zan.

8

Gariak eltzen ziradenean
errotak ixten zituzten,
da guk gauetako ibillerak
orduan asten giñuzten;
errotak ere gaueko lanez
"traka" otsikan etzuten,
irabazteko aukerik emen
iñorrek ez baitu uzten.

9

Errotariak soldata zuan,
"laka" deitzen geniona,
euneko ainbesteko bat zan
zakuari kentzen ziona;
agian, gaueko lan orretan
etzan zuzen eta ona,
bai baizekian basarrietan
baskularik etzegona.

10

Lege zorrotzak egonagatik
 gerra ondorengo bizitzan,
 nekazariak sortzen zun dana
 zuzen neurtu ezin zan;
 badakit ez giñadela bizi
 printzipe batzuen gisan,
 legeak-lege basarrietan
 goserik ez gendun izan.

11

Eguneroko buruaustea
 pentsamentuz janarira,
 tripa-zorriak nola kenduko
 ertenikan atarira;
 parienterik izan ezker
 azkar asko basarrira,
 mantendu truke morroi-neskame
 joandakoak badira.

12

Adiskidea etzazu uste
 gezurrik esan dedanik,
 arrokeriak umiltzen dira
 ez baldin bada zer janik;
 gerra batek zer ekarri zuan
 ori ikusia daukat nik,
 baiña ala ere ez du ematen
 eskarmentatu geranik.

2014'ko Apirillean
Txomin Garmendia

Aurrerapenak

1

Aurrarapenan bidez
ainbat buruauste,
eta nere burura
bertsoak datozte;
onak diradenikan
etzazute uste,
baiña dozenatxo bat
jarri nai nituzke.

2

Aurrerapenak sortzen
da askoren lana,
arrigarrizko gauzak
datoz guregana;
esango det sarritan
esaten dedana:
"Pozik egon liteke
erotzen ez dana".

3

Modan jarri zaiguna
ordenadorea,
baldin ikasi ezker
pitxi dotorea;
gure etxera ere
sartu dan lorea,
txuleta bat plateran
ez al da obea?

4

Ñola ordenadorea
ala interneta,
begiratzen badegu
alderdi daneta;
sartua izango da
etxe geieneta,
gure etxera ere
etorri da eta.

5

Orrelakorik gabe
biziak lenago,
orain bearrezkoa
ori omen dago;
askotan al dakigu
zer degun naiago?
Orain etxean degu
traste bat geiago.

6

Ortatik datoztela
nai ainbeste emaitz,
era berean diot,
baita ere milla gaita;
nere kasoa berriz,
ez da izango maiz,
larogei urte pasata
eskolan asi naiz.

7

Ume jaio nintzan da
 ume biurtua,
 esaera zarra beintzat
 daukat ziartua;
 emaitzik gabekoa
 arbola zartua,
 nere gaitzik txarrena
 ezin ulertua.

8

Ume askori begira
 egoten naiz noski,
 teleponoz itzegiten
 amarretik zazpi;
 izketaldi luzeak
 ez dituzte itz bi,
 "segapotoa" berengan
 duten ezkerotzi.

9

Oso bearrezkoak
 gaurko lanerako,
 neurria komeni da
 emen danerako;
 aurrerapena izan
 leike kalterako,
 galera baldin bada
 poltsikutarako.

10

Bildur aundirik gabe
 nik esango nuke,
 aurrerapenik ez dala
 emen musu truke;
 nola iñor ez geran
 konde edo duke,
 guraso askok ondo
 aitortuko dute.

11

Maitasun arrigarria
 teleponongana,
 erri guztian bakarra
 izan genduana:
 orain pertson bakoitzak
 poltsikuan bana,
 ezin sinistuz nabil
 ikusitzen dana.

12

Ezin leikela bizi
 lenago bezela,
 da askok diotenakin
 arritzen naizela;
 aurrerapen aundigoak
 aurki datozela,
 obetogo bizitzeko
 izan ditezela.



Euskeraren Erri Akademia
Academia Popular de la Lengua Vasca
L'Academie Populaire de la Langue Basque

e-mail: aeuskerazaintza@gmail.com
www.euskerazaintza.org